



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko ekainaren 15a

48-2. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostena, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina. (2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bi aletan argitaratzen da, 48-1 eta 48-2. zenbakietan).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostena, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina.**

- 48-2 ZENBAKIKO AURKIBIDEA
- |   |  |
|---|--|
| <p>VI. gehigarria. Egitura organikoa (3. or.).</p> <p>VI.1. Egitura organikoa (3. or.).</p> <p>VI.2. Eginkizunak esleitzea (4. or.).</p> <p>VI.3. Jarduera administratiboaren adierazleak. (4. or.).</p> <p>VII. gehigarria. Langileak (5. or.).</p> <p>VII.1. Plantilla organikoa (5. or.).</p> <p>VII.2. 2005eko abenduaren 31n egiaz zeuden langileak (6. or.).</p> <p>VII.3. Absentismoa (6. or.).</p> <p>VII.4. Prestakuntza (7. or.).</p> <p>VII.5. Sektore publikoak eta sektore pribatuak ezgaituentzako eta zaharrentzako zentroetan aplikaturiko ordainsariak eta lanaldiak (8. or.).</p> <p>VIII. gehigarria. Inbertsioetako eta kapital transferentzietako gastuak (9. or.).</p> <p>VIII.1. Inbertsio errealeetako gastuak (9. or.).</p> <p>VIII.2. Kapital transferentzietako gastuak (10. or.).</p> <p>IX. gehigarria. Kobrantzen kudeaketa hirugarren adinerako etea ezgaituentzako zentroetan (12. or.).</p> <p>IX.1. Aurrekontuen eta kontabilitatearen informazioa (14. or.).</p> <p>IX.2. Zorraren aitorpena (14. or.).</p> <p>X. gehigarria. Hirugarren adina (16. or.).</p> <p>X.1. Hirugarren adinekoen arloko aurrekontu-gastuaren bilakaera (16. or.).</p> <p>X.2. Plangintza (17. or.).</p> <p>X.3. Hirugarren adinerako itunak (18. or.).</p> | <p>X.4. Banakako prestazio ekonomikoak (19. or.).</p> <p>X.5. Toki bakoitzeko gastu/kostuaren eta dirusarreraren alderaketa, hirugarren adinerako egoitzetan. 2002-2005 aldiko bilakaera. (21. or.).</p> <p>X.6. Hirugarren adinekoentzako tokien bilakaera. (24. or.).</p> <p>X.7. Zaharrentzako zentroetako itxaron zerrendak. (28. or.).</p> <p>XI. gehigarria. Ezgaituak (29. or.).</p> <p>XI.1. Ezgaituen arloko aurrekontu-gastuaren bilakaera (29. or.).</p> <p>XI.2. Itunak (30. or.).</p> <p>XI.3. Ezgaituentzako besteren zentroetan egoteko laguntza ekonomikoak (32. or.).</p> <p>XI.4. Toki bakoitzeko gastu/kostuaren eta dirusarreraren alderaketa, ezgaituentzako. 2002-2005 aldiko bilakaera. (33. or.).</p> <p>XI.5. Ezgaituentzako tokien bilakaera (35. or.).</p> <p>XI.6. Ezgaituentzako tokien itxaron zerrendak (37. or.).</p> <p>XI.7. Lanerako Prestatzeko Zentroak (38. or.).</p> <p>XII. gehigarria. Larrialdietarako telefono-zerbitzua (41. or.).</p> <p>XII.1. Zerbitzuaren alderdi orokorrak (41. or.).</p> <p>XII.2. Aurrekontu informazioa (2002-2005) (41. or.).</p> <p>XII.3. Kudeaketari buruzko adierazleak (2002-2005) (42. or.).</p> <p>XIII. gehigarria. Etxez etxeko laguntza zerbitzua (ELZ) (44. or.).</p> <p>XIII.1. ELZren alderdi orokorrak (44. or.).</p> |
|---|--|

XIII.2. Aurrekontu informazioa (2002-2005) (44. or.).

XIII.3. Kudeaketari buruzko adierazleak (2002-2005) (45. or.).

XIV. gehigarria. Gizarte Zerbitzuen kalitatea eta ikuskapena (49. or.).

XIV.1. Zentroen ikuskapena (49. or.).

XIV.2. Gogobetetze maila (50. or.).

Gizarte, Kirol eta Gazteria Departamentuak aurkeztutako alegazioak (51. or.).

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak aurkeztutako alegazioei Comptos Ganbarak emandako erantzuna (53. or.).

## VI. GEHIGARRIA. EGITURA ORGANIKOA

### VI.1. EGITURA ORGANIKOA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren egungo egitura organikoari buruzko arauak otsailaren 24ko 46/2005 Foru Dekretuan daude jasota; foru dekretu horrek 2005eko martxoaren 1ean hartu zuen indarra. Hari jarraituz, departamentuak ondoko organoak dauzka (ikus 7. taula):

- Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusia.
- Familia zuzendaritza Nagusia.
- Idazkaritza Tekniko Orokorra.

Gainera, ondoko erakunde autonomoak dauzka atxikirik:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua.
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.
- Nafarroako Emakumearen Institutua

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiak ondoko zerbitzuak dauzka:

1. Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapen Zerbitzua, hiru atal eta bulego bat dituena.

2. Gai Ekonomikoetarako eta Inbertsioetarako Zerbitzua, bi atal eta bi bulego dituena.

3. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak, atal bat eta bulego bat dituena.

Familia zuzendaritza Nagusiak zerbitzu bakarra dauka, Familiaren eta Adinez Txikikoen Politiken Plangintza, Segimendu eta Ebaluaziorako Zerbitzua. Zerbitzu horrek hiru atal eta hiru bulego dauzka.

Idazkaritza Tekniko Orokorra bi atal eta bulego bat dauzka.

Departamentuari atxikitako langileei dagokienez, 2005eko plantilla organikoaren arabera<sup>(14)</sup>, langile finkoen 75 lanpostu daude; horietatik 20 lanpostu hutsik daude –hau da, ehuneko 27–. Lanpostu finko horien ehuneko 71 A eta B mailletakoak dira; gainerakoak, C, D eta E mailletakoak.

Antzeman dugu bi atalek eta zazpi bulegok kasuko buruari dagokion lanpostua baino ez dutela.

Atxikitako erakunde autonomoei dagokienez, beren estatutuen arabera araututa daude. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan zentratuz, 2004ko otsailetik 20/2004 Foru Dekretuaz onetsitako estatutuen arabera araututa dago; foru dekretu horri aldaketa batzuk egin zaizkio gero, hain zuzen ere 261/2004, 381/2004 eta 46/2005 foru dekretuen bitartez onetsiak<sup>(15)</sup>. Gainera negoziatuen mailako egitura organikoa 83/2004 Foru Aginduaz garatu zen.

Institutuak lau zuzendariordetza dauzka (ikus 8. taula), zuzenean zuzendari kudeatzailearen pean daudenak. Honakoak dira lau zuzendariordetzak:

1. Kudeaketa Zuzendariordetza, lau atalek eta lau bulegok osatua.

2. Giza Baliabideen eta Araubide Juridikoaren Zuzendariordetza, bi atal eta hiru bulego dituena.

3. Menpekotasunaren arloko Laguntzaren Zuzendariordetza, hiru atal, hamaika bulego, zortzi haurtzaindegi eta lau laguntza-zentro dituena.

4. Oinarrizko Laguntzaren eta Gizarteratzearen Zuzendariordetza, hiru atal eta hiru bulego dituena.

2005eko plantilla organikoaren arabera<sup>(16)</sup>, institutuak guztira 583 lanpostu finko dauzka; horietatik 196 hutsik daude –hau da, ehuneko 34–. Mailen arabera, langile horien ehuneko 22 A eta B mailetan daude; gainerakoak, ehuneko 78, C, D eta E mailetan daude.

Ikus daiteke 21 bulegok ez dutela beren arduraduna beste langilerik.

(14) Ikus VII. gehigarria.

(15) Txosten hau idazten ari ginela, Nafarroako Gobernuak, 2006ko maiatzaren 22an (2006ko ekainaren 14ko 71. NAO), NGOlren estatutu berriak onetsi ditu, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeari egokitzeko.

(16) Ikus VII. gehigarria.

## VI.2. EGINKIZUNAK ESLEITZEA

Departamentuko eginkizunen esleipena, zuzendaritza nagusi, zerbitzu eta atalei dagokiena, otsailaren 24ko 46/2005 Foru Dekretuan araututa dago.

Bulegoen eginkizunak 1992tik indarra duten foru aginduetan ezarritakoak dira; kasu askotan, gaurkotu gabe daude, departamentuko eta NGOIko egitura organikoan izandako atxikipen eta funtzio aldaketak gorabehera.

NGOIn, unitateen eginkizunen esleipena bai estatutuetan bai 83/2004 Foru Aginduak ezarrita daude, negoziatuen kasuan.

Ez dago jasota idatzizko eskulibururik dagoenik departamentua kudeatzeko. NGOIk, berriz, ondokoei buruzko prozedura-eskuliburuak dauzka: egintza administratiboak, ordainketak, informazioa, prestazioen katalogoa, menpekotasuna dutenentzako laguntza, zorra aitortzea, informatika, pentsioak, aginte koadroa eta beste.

Eskuliburu horietatik, aginte koadroa azpimarratu behar da; izan ere, hilero informazioa ematen du helburuei eta haien betetze-mailari buruz, eta NGOIk garaturiko jarduera nagusiei buruzko estatistikak eskaintzen ditu. Aginte koadro hori guztiz operatiboa da 2005eko ekitalditik aurrera.

## VI.3. JARDUERA ADMINISTRATIBOAREN ADIERAZLEAK.

Jarduera administratiboa neurtzearen ondorioetarako, NGOIk, 2004 eta 2005eko oroitidazkietan,

kudeaketa administratiboari buruzko adierazle batzuk biltzen ditu; horien artean, balioekin batera, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

Adierazlea	2004	2005
Erregistraturiko dokumentuak	112.246	85.862
Nafarroako Gobernuak erregistraturiko dokumentu guztietan egiten duen ehunekoa	24	19
Igorritako kudeaketa-ebazpenak	5.484	5.526
Aurretiko erreklamazioen izapidetzea	130	155
Gora jotzeko errekurtsoen izapidetzea	142	135
Egoitzan bertan emaniko informazioa	5.826	7.013
Telefono bidezko informazioa	17.545	26.454
Informazio fitxen kopurua	1.121	1.121

Adierazle horiek garaturiko jardueraren bolu-arena erakusten dute; dena den, ez dute balio bestelako balorazioak egiteko: produktibitatea, epeak, estaldura, kostuak eta abar.

Hala eta guztiz ere, 2005eko abenduko aginte koadroan, menpekotasunaren arloko laguntzari buruzko adierazle batzuk ezartzen dira; haien bidez, aurkeztutako eskabideak eta ebatzitakoak aztertzen dira, bai eta haiek baloratzeko erabili diren egunak ere, batez beste. Ez dago aurreko ekitaldiei buruzko informaziorik. Txosten honen ondorioetarako, ondoko adierazleak azpimarratu nahi ditugu:

Eskaria	2005ean bizirik dauden ebazpenak	Ebatzitakoak	%, ebazpen guztien gainekoa	Emandakoak	%, ebatzitako en gainean	Egun kopuruaren batez bestekoa
Etkez etxeko diru laguntza.	971	915	94	405	44	35
Zahar-etxeetako egonaldiak	1.060	810	76	662	82	47
Egoitzetako egonaldia. Ezgaituak.	123	108	88	94	87	66
Minusbaliotasunaren aitortzea	2.721	2.269	83	1.441	64	-
Emetiroarengatik kotizazio gabeko pentsioak	246	226	92	169	75	65
Baliaezinetasunarengatik kotizazio gabeko pentsioak	97	89	92	67	75	43

Aurreko laukitik, ondokoa adierazi ahal dugu:

- 2005ean bizirik zeuden ebazpenek beren baitan hartzen dituzte, kasua bada, bai 2005ean aurkeztutakoak, bai aurreko urtetik eman gabe zeudenak.
- Oro har, ebatzitakoaren ehunekoa handia da; salbuespena zahar-etxeetako egonaldiei dagozkienak dira. Horri dagokionez, adierazi digute ez ebatzea zor zaiola balizko erabiltzaileei informazio osagarria eskatzeko beharrari.

- Onartutako eskarien ehunekoak behera egin du minusbaliotasunak aitortzeari dagokionez eta etxeko laguntza ekonomikoari dagokionez.

- Ebatzi eta eman gabeko eskariak funtsean ukatutakoak dira, salbu eta ehuneko txiki bat, zeinetan biltzen baitira bestelako administrazio-egoera batzuk.

- Batez besteko epeetan, luzeak izateagatik nabarmendu behar dira ezgaituentzako egoitzetako egonaldiei buruzkoak eta erretiroarengatik kotizazio gabeko pentsioei buruzkoak.

**VII. GEHIGARRIA. LANGILEAK**

Gehigarriak honako alderdi hauek aztertzen ditu, batez ere:

- Departamentuko (Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusia, Familia zuzendaritza Nagusia eta Idazkaritza Tekniko Orokorra) eta NGOIko plantilla organikoaren analisia eta bilakaera.

- 2005eko abenduaren 31n, erakunde horietan egiaz beren zerbitzuak ematen dituzten langileak.

- Absentismoa

- Prestakuntza

- Sektore publikoak eta sektore pribatuak ezgaituentzako eta zaharrentzako zentroetan aplikaturiko ordainsariak eta lanaldiak.

**VII.1. PLANTILLA ORGANIKOA**

Departamentuaren eta NGOIren 2002ko abenduaren 31tik 2005eko apirilaren 2ra bitarteko plantilla organikoak aztertutik<sup>(17)</sup> (ikus 9. taula), honako azpimarratu behar dugu:

- Ondoko taulan azaltzen dugu aztertutik epean plantilletan jasotako lanpostuen kopuruak izan duen bilakaera:

	2002	2005	Aldea (%)
Departamentua	46	82	78
NGOI	667	591	(11)
Guztira	713	673	(6)

Antzeman dugu plantillak 40 lanpostu gutxiago dituela; izan ere, 2002an 713 lanpostu zituen, eta 2005ean, berriz, 673. Horrek esan nahi du ehuneko 6 egin duela behera, 2002ko plantillarekin alderatuta.

Departamentuko langileen kopuruak ehuneko 78 egin du gora. Igoera hori azal daiteke, funtsean, 2003tik aurrera hari Familia zuzendaritza Nagusia atxiki zaiolako; arlo hori, lehen, institutuaren barruan zegoen.

- Ondoko taulan plantilla horien osaketa agertzen da, betiere jatorriaren arabera antolatutik. Hura irakurrita, ondorioztatu daiteke lanpostu hutsen kopuruak ehuneko 53 handitu dela; bitartean, lanpostu finkoek ehuneko 21 egin dute behera.

	2002	2005	Aldea (%)
Finkoak (funtzionarioak gehi lan-kontratadunak)	558	442	(21)
Lanpostu hutsak	141	216	53
Behin-behinekoak	14	15	7
Guztira	713	673	(6)

- 2005ean, lanpostu hutsen ehuneko 91 –guztira 196 lanpostu– NGOIri zegozkion; azpimarratzen da, halaber, kopuru horrek ehuneko 45 egin duela gora, 2002rekin alderatuta. Lanpostu huts horiek 2005ean egoitza propioetan zeuden batez ere –Vergel (69 lanpostu), Santo Domingo (34 lanpostu) eta San José (49 lanpostu)– bai eta haurtzaindegietan ere (19 lanpostu huts).

- Mailaren arabera atxikipenari dagokionez, ondoko taulan langile finkoek (funtzionarioak eta lan-kontratuak dutenak) beteriko lanpostuek 2002-2005 urteetan izaniko bilakaera agertzen da. Ikus daitekeenez, C, D eta E mailek beteriko lanpostu guztien ehuneko 70 inguru egiten dute; A eta B mailak, berriz, guztizkoaren ehuneko 26 izatetik ehuneko 31 izatera pasa dira.

	2002	2005	Aldea (%)
A	41	34	(17)
B	103	104	1
C	143	114	(20)
D	132	106	(20)
E	139	84	(40)
Guztira	558	442	(21)

B maila kenduta, gora egin baitu pixka bat, gainerako mailek ehuneko jaitziera nabarmenak izan dituzte.

Lanpostu hutsak honela zeuden banatuta mailen arabera:

	2002	2005
A	4	15
B	18	31
C	15	15
D	51	84
E	53	71
Guztira	141	216

(17) Lan honen dataren egunean, 2005eko abenduaren 31ko plantilla argitaratu gabe zegoen.

la maila guztiek gora egin dute lanpostu hutsetan. 2005ean, lanpostu hutsetan ehuneko 79 C, D eta E maileri atxikikoak dira; 2002an, berriz, ehuneko 84 egiten zuten.

## VII.2. 2005eko ABENDUAREN 31n EGIAZ ZEUDEN LANGILEAK

2005eko abenduaren 31n lorturiko informazioari jarraituz, departamentuan eta NGOIn guztira 654 pertsonak egiten dute lan. Hona azalpena:

	Departamentua	NGOI	Guztira
Finkoak	52	392	444
Behin-behinekoak	7	5	12
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak.	19	179	198
Langile efektiboak, guztira	78	576	654
2005eko plantilla organikoko lanpostuak, guztira	82	591	673

Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Egiazko langileen kopurua plantillan aurreikusitako lanpostu guztien ehuneko 97 inguru da.
- Plantillako lanpostu hutsetan ehuneko 92 aldi baterako beteta daude.
- 2005eko abenduaren 31n lanpostuetan zegoen behin-behinekotasuna ehuneko 30 zen; bereziki NGOIn zeuden.
- 2005eko enplegu eskaintzan, guztira, 168 lanpostu zeuden; hau da, NGOiko lanpostu hutsetan ehuneko 86.

Aurreko lanpostuez gainera, 2005eko abenduaren 31n NGOIk 15 lanpostu zeuzkan plantillan aurreikusi gabeak, behar jakin batzuk betetzeko. Lanpostu horiek zeregin-pilaketarengatiko kontratuaren, obra kontratuaren edo proiektu kontratuaren formulaz betetzen dira.

## VII.3. ABSENTISMOA

Eskura dagoen informazioaren arabera, ondoren departamentuko eta NGOiko lanera ez agertzeari buruzko datuak iruzkinduko ditugu.

### VII.3.1. Departamentua

Departamentuak bere langile finkoen lanera ez agertzearen maila kalkulatu du soilik bi arrazoiri begiratuta: lan baxerik gabeko gaixotasuna eta gaixotasun edo istripuarengatiko medikuaren baja.

Horren arabera, 2002tik 2005era bitarteko eperako, lanera ez agertzeari buruzko ondoko datuak

aurkezten ditugu, urteko guztizko orduen ehunekoaren gainean neurtuta.

Ekitaldia	Lanera ez agertzearen orduak, %
2002	4,45
2003	3,86
2004	1,89
2005	17,74

2002tik 2004ra antzeman da departamentuan lanera ez agertzearen orduak pixkanaka jaitsi direla. Joera hori 2005ean hautsi zen, iraupen luzeko bi bajen ondorioz; izan ere, baja horiek guztizko datuan eragin nabarmena izan dute.

2005eko ehunekoak erakusten du lanera ez agertzearen orduak 8.000 izan zirela.

### VII.3.2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua

Institutuak bere langileen lanera ez agertzea zehazten du, alde batetik, 11 arrazoi kontuan hartuz, eta bestetik, lau zentro edo lantaldeetan banatuz (NGOIn bulego zentralak, haurtzaindegia, egoitzak eta Lur Gorri).

2004ko eta 2005eko ekitaldietako emaitzak honakoak izan dira:

- Lanera ez agertzeak, arrazoen arabera. NGOIn guztizkoa (orduen ehunekoari erreparatuta)

Arrazoiak	2004	2005
Gaixotasunarengatiko baja medikoa	6,45	6,48
Istripuarengatiko baja	0,31	0,29
Amatasun baja	0,36	0,36
Baja medikorik gabeko gaixotasuna	0,82	0,82
Sindikatu gaietarako baimena	1,25	1,26
Euskara	0,52	0,49
Norberaren aferak	0,92	0,90
Ordainduriko baimenak	0,68	0,59
Berandu sartzea	0	-
Norbera ateratzea	0,24	0,22
Prestakuntza	0,50	0,53
Guztira	12,05	11,94

Lanera ez agertzearen ehuneko horiek 87.000 ordu inguru egiten dute.

Arrazoi nagusia gaixotasunarengatiko baja medikoa dira; izan ere, lanera ez agertzeko kasuen ia ehuneko 54 arrazoi horri zor zaizkio.

• Lan zentroyen arabera (orduen ehunekotan), hona datuak:

Zentroak	2004	2005
NGOI	9,31	9,32
Egoitzak	15,41	15,27
Lur Gorri	3,08	2,52
Hurtzaindegiak	7,19	7,00
Guztira	12,05	11,94

Azpmarratzekoa da egoitzetako lanera ez agertzeak –57.000 ordu inguru–; horien artean, gaixotasunarengatik baja medikoak –ehuneko 8,7– eta baimen sindikalak –ehuneko 2,3– nabarmentzen dira.

#### VII.4. PRESTAKUNTZA

Langileen prestakuntzari buruz, honakoak adierazi behar ditugu:

##### VII.4.1. Departamentuko prestakuntza

Departamentuak ez du prestakuntzako programa berariazkorik, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren (NAPI) langile publikoentzako programa orokorra aplikatzen zaie.

##### VII.4.2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua

NGOIk prestakuntza plan bat garatu du 2005ean, NAPIrekin lankidetzan, langileak eta oinarrizko gizarte zerbitzuak, Familia zuzendaritza Nagusia eta Ezgaitasuna duten Pertsonak Zaintzeko Fundazioa birziklatzeko eta hobetzeko xedez.

Plan honek aurreikusten zuen 60 prestakuntza ekintza egitea eta haietan, guztira, 1.764 pertsonak parte hartzea. Ekintzak ondoko arloetakoak ziren:

- Informatika.
- Administrazioa.
- Trebetasun sozialak eta zuzendaritzakoak.
- Atalen berariazko ekintzak.
- Zentro berekietako berariazko ekintzak.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetako ekintza berariazkoak.

Planak prestakuntza ekintzen antolamendu, garapen eta parte-hartze modu desberdinak aurreikusten ditu:

• NAPIri banakako eskariak egitea.

• Unitateetako arduradunek NAPIri eskariak egitea.

- NAPIk NGOirentzat antolaturiko ikastaroak.
- NGOIk eta beste entitate batzuek zuzenean antolaturiko ikastaroak.

NGOiren kalitate-atalak landutako jarraipen-tostenaren arabera, lorturiko emaitzak ondokoe-tan laburbiltzen dira:

• 32 ikastaro egin dira, eta guztira 28 ikastaro geratu dira egin gabe; hau da, aurreikusitakoen ehuneko 48,5.

• Prestakuntza hartutako langileak 782 dira; hau da, aurreikusitakoen ehuneko 44,3.

• NAPIri planean aurreikusitakoaren arabera eginiko banakako eskariei dagokienez, 183 ikastaro eskatu ziren eta 130 egin ziren; hau da, ehuneko 71.

• Honakoak dira prestakuntza ekintzak ez garatzeko arrazoi nagusiak:

1. NAPIk ez die langile interesdunei deitu.
2. Prestakuntzarako datak eta interesdunen lanbide-jarduerak bateraezinak ziren.
3. NGOiren arduradunek ekintzak garatzeko lehenetsunik edo modurik ez aurkitzea.
4. NAPIko arduradunen eta berezko zentroyen artean koordinaziorik ez izatea.

• Prestakuntzaren kudeaketa hobetzeko aipatzen diren gomendioen artean, honakoak azpimarratu behar dira:

1. Prestakuntza plan bat lantzea hartzaileen interesetatik hurbilen dauden edukiekin, betiere interes horiek eta prestakuntzarako beharizan instituzionalak uztartuz.
  2. NAPIrekiko koordinazioa hobetzea, prestakuntza ekintzak egiaz gauzatu ahal izateko.
  3. Programatutako ikastaroak bultzatzeko, exekutatzeko eta jarraitzeko batzorde bat sortzea.
  4. Prestakuntza ekintzen kopurua haien exekutatze arduraren aukera efektiboaren arabera diseinatzea.
- Azterlanek ez dute garaturiko prestakuntza ekintzen erabilgarritasun eta kalitateari buruzko erreferentziarik, ez eta haien kostu finantzarioari buruzkorik ere.

### VII.5. SEKTORE PUBLIKOAK ETA SEKTORE PRIBATUAK EZGAIUENTZAKO ETA ZAHARRARENTZAKO ZENTROETAN APLIKATURIKO ORDAINSARIAK ETA LANALDIAK.

Lortutako informazioaren arabera, zentroei aplikatzeko den ordainsarien araubidea honela laburbildu daiteke:

- Ezgaituak

a) Ordainsariei eta lanaldiari buruzko foru arauen arabera zentro publikoak.

b) Itun araubidean modu pribatuan kudeaturiko zentro publikoak, 2005eko urtarrilaren 1etik, foru erkidegorako sinaturiko hitzarmen sektorial baten arabera araututa daude. Hitzarmen horrek 500 langileengan du eragina, gutxi gorabehera, eta Nafarroako Gobernuak 2005ean 0,71 milioi euro jarri ditu hura finantzatzeko.

c) Zentro pribatu eta itunduetan, hitzarmen berezien arabera.

- Zaharrak

a) Ordainsariei eta lanaldiari buruzko foru arauen arabera zentro publikoak.

b) Zentro pribatuei (itunduei eta ez-itunduei) abiapuntu gisa hirugarren adinerako egoitza pribatuen nazio mailako esparru hitzarmena aplikatzen zaie; hitzarmen horri, enpresa bakoitzean, hobekuntza batzuk egin zaizkio.

Atal honetan eginiko lanarekin nahi genuen, alde batetik, sektore publikoan eta pribatuan aplikatzekoak diren ordainsari maila desberdinak kon-

paratzea; bestetik, enplegatuen lanaldiari erreparatu diogu.

Konparazio-analisi horrek araudi bakoitzean sartzen diren lanpostuen terminologia eta katalogio desberdinaren mugak izan ditu, bai eta entitate pribatuen hitzarmen edo itun partikularrei buruzko informazioa ez izateren ondoriozkoak ere. Hala eta guztiz ere, eginiko lanetik eta NGOik eman digun informaziotik, honako ondorioak atera ditugu:

- Ezgaituekin lan egiten dutenen kasuan, Nafarroako Gobernuak langileei aplikatzen dizkien lansariak, oro har, ehuneko 6 handiagoak dira monitorea eta ehuneko 44 handiagoak goi mailako titulua dutenentzat foru erkidegoko hitzarmen sektorialaren arabera aplikatzen direnak baino; zerbitzu orokorretako langileen kasuan, ordea, ehuneko 33 txikiagoak dira.

- Zaharrekin lan egiten dutenen kasuan, 14 egoitzetako eta Nafarroako Gobernuak lanpostuen arteko konparazioa eginda, antzeman dugu alde handiak daudela aztertutako hiru kategorietan; hartara, zaharren zaindari eta OLT lanpostuetan, gobernuak ematen dituen lansariak ehuneko 20tik ehuneko 30era bitarte handiagoak dira; sendagileen kasuan, ordainsari publikoak ehuneko 3 inguru handiagoak dira, batez beste, baina batetik beste alde handiak daude: ehuneko 33 handiagoak izatetik ehuneko 14 txikiagoak izatera, hain zuzen.

- Lanaldiari dagokionez, ondoko taulan azalzen dira 2005ean aplikaturiko urteko orduak, berariazko araupetzearen arabera:

Araudia	Lanaldia	Goizeko, arratsaldeko eta	Gaueko txanda
Nafarroako Gobernua	1.592	1.457	1.535
Foru erkidegoko ezgaituen arlorako	1.672	1.552	1.530
Zaharren arlorako nazioko hitzarmena	1.792	-	-

Oro har, Nafarroako Gobernuak lanaldia laburragoa da gainerako hitzarmenetakoa baino; kasu batzuetan, nabarmen laburragoa da.

Azkenik, "Nafarroako II. plan gerontologikoa egiteko oinarritzko diagnostika eta azterlana" izeneko txostenean, zaharrentzako egoitza ez-publikoetako langileen arloan, ondokoak aipatzen dira:

- Nafarroak, Andaluziak eta Galiziak bezala, egoitzetan zuzeneko langileei<sup>(18)</sup> gutxieneko ratio handienak exijitzen ditu; hain zuzen ere, ehuneko 0,35. Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago zuzeneko langileen artean, Nafarroan garbitzaileak eta sukaldariak ere sartzen dira.

- Lansariei dagokionez, Nafarroan, oro har, Espainiako –Nafarroa kenduta– batez bestekoaren azpitik dauden lansariak ematen dira. Eta hala:

(18) Zuzeneko langiletzat sendagilea, gerokultorea, OLTa eta klinikako laguntzailea; zeharkako langile gisa, berriz: garbiketari, jantoki eta mantentze lanetakoak; bestelako langileak, azkenik: fisioterapeuta, psikologoa, gizarte hezitzailea eta gizarte langilea.



Lanbidea	Espainiako batez bestekoa (Nafarroa kontuan hartu gabe)	
	Batez bestekoa Nafarroan	
Gizarte laguntzailea	13,41 e/o	14,6 e/o
Sendagilea	16,2 e/o	20,07 e/o
OLT	13,8 e/o	16,93 e/o
Laguntzailea	9,5 e/o	11,38 e/o

### VIII. GEHIGARRIA. INBERTSIOETAKO ETA KAPITAL TRANSFERENTZIEKOTAKO GASTUAK

Departamentuko, orokorrean hartuta, 6. kapituluari –Inbertsio errealek– eta 7. kapituluari –Kapital transferentziak– egotzitako kapital gastuen aurrekontu-bilakaera ondoko taulan azaltzen dira, milioika eurotan:

Kapitulua	2002	2003	2004	2005	Aldaketaren %, 2005/2002
Inbertsioak	9,19	6,48	9,51	10,61	15
Kapital transferentziak	17,68	18,10	13,46	9,08	(49)
Kapital gastuak, guztira	26,87	24,58	22,97	19,69	(27)
Departamentuaren gastu guztien gaineko ehunekoa	17	14	12	10	(41)

Hau da, azterturiko aldian, kapital gastuek ehuneko 27 egin dute behera. Jaitsiera hori heldu da transferentzietako gastuek izaniko jaitsieratik –ehuneko 49–, zeren eta inbertsio errealek ehuneko 15 egin baitute behera.

Logikoa den bezala, jaitsiera orokor horrek berekin dakar galera bat izatea gastu horiek departamentuko aurrekontuaren guztizkoan duten garrantzi erlatiboan: izan ere, 2002an ehuneko 17 izatetik 2005ean ehuneko 10 izatera pasa dira.

Kapitulu horietako analisi zehatza egin aurretik, adierazi behar dugu azterturiko aldian ez dela departamentuaren inbertsio-planik aurkitu, hain zuzen ere lortu nahi diren helburuak, haiek lortzeko erabili beharreko bitartekoak eta haien jarraipena egiteko tresnak zehaztasunez jasotzeko. Horrenbestez, ezin dugu iritzirik eman departamentuaren inbertsio-politiken betetze mailari buruz.

#### VIII.1. INBERTSIO ERREALETAKO GASTUAK

Ondokoak dira kapitulu honen exekuzioari buruzko iruzkin nagusiak:

Nora	2002	2003	2004	2005	Guztira
Hirugarren adina	3,49	1,00	0,13	0,11	4,73
Ezgaituak	2,02	2,59	6,10	6,93	17,64
Inbertsio guztien gaineko ehunekoa	60	55	66	66	63

Hau da, inbertsio guztietatik ehuneko 63 menpekotasuna dutenentzako gastuetarako bideratzen da. Horren barrenean, ezgaituei egotzitakoak ehuneko 79 inguru dira.

Halaber, antzeman da hirugarren adinaren arlorako inbertsioek behera egin dutela –behin eta berriz aipatu dugun plan gerontologikoko inbertsio-

- Inbertsioen kudeaketa departamentuko zerbitzu zentraletan eramaten da, salbu eta NKGlrri dagozkionak.

- Inbertsio horiek, funtsean, Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako “Azterlanak, plangintza eta obrak” programari eta NKGlrri atxikitako “Kirolen sustapena eta gazteen sustapena” programari egozten zaizkie.

- Eginiko inbertsioen ehuneko 90 inguru “Eraikinak” eta “Bestelako eraikuntzak” aurrekontu-kodeei egozten zaizkie. Kode horiei atxikitako zenbaterakoek 2002tik 2003ra bitarte behera egin dute, plan gerontologikoan aurreikusitako obrak bukatzearen ondorioz (2000ko ekitaldiaren bukaerara arte izan zuen indarra); 2004an eta 2005ean, San Jose ezgaituentzako zentroko obren ondorioz, gora egin dute.

- Txostenaren helburuetan zentratu, “Azterlanak, plangintza eta obrak” programaren barruan, bi lerro daude berariaz identifikatzen dituztenak hirugarren adinerako eta ezgaituentzako berezko zentroetan eginiko inbertsioak. Hain zuzen ere, ondoko betetzea izan dute (milioika eurotan):

en amaieraren ondorioz– eta pixkanaka gora egin dutela ezgaituentzako inbertsioak, funtsean San José zentroko obregatik.

Aurreko inbertsioak hartu zituen zentroari erreparatuta, azterturiko aldian gastuak ondokoetan zentratu dira –zenbatekoa milioika eurotan emana dago–:

Nora	Zentro berekia	Zenbatekoa
Hirugarren adina	El Vergel	3,66
Ezgaituak	La Atalaya	3,53
	San José	12,57

Zenbateko horiek aztergai dugun aldiko inbertsioen ehuneko 55 egiten dute.

- Aurreko gastuez gainera, NGOIk, azterturiko aldiari, 0,39 milioiko inbertsioak egin ditu menpekotasunaren arloko berezko zentroetan; inbertsio horiek, funtsean, erabili dira San José eta El Vergel zentroak ekipatzeko.

Artikulua	2002	2003	2004	2005	Guztira
Toki korporazioei	10,45	9,41	6,79	5,07	31,72
Enpresa pribatuei	1,92	0,95	-	-	2,87
Familiei	0,27	0,24	0,27	0,22	1,00
Irabazi gabeko asmorik erakundeei	5,03	7,50	6,40	3,79	22,72

Ikusten denez, artikulu guztietan murrizketa progresibo bat gertatu da zenbatekoetan; azpimarratzekoa da 2004ko ekitaldian enpresa pribatuetarako transferentziak falta direla. 2002tik 2005era bitartean, toki korporazioetarakoek ehuneko 51 egin dute behera, eta familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei dagozkienak, ehuneko 24.

Nora	2002	2003	2004	2005	Guztira
Hirugarren adina	7,37	7,62	3,97	2,14	21,10
Ezgaituak	1,34	1,44	1,66	1,66	6,10
kapital transferentzien guztizkoaren gaineko ehunekoa	% 49	% 50	% 42	% 42	% 47

Hau da, kapital transferentzia guztien ehuneko 47 menpekotasunaren arlorako erabiltzen dira. Horren barrenean, hirugarren adinekoei zuzendutakoak ehuneko 78 inguru dira.

Hirugarren adinerako inbertsioek jaitsiera nabarmena izan dute azterturiko aldiari; bitartean, ezgaituei zuzendutakoak gora egin dute pixka bat.

## VIII.2. KAPITAL TRANSFERENTZIETAKO GASTUAK

### VIII.2.1. Aurrekontuari buruzko informazioa

Aurrekontuaren bilakaera aztertuta, honakoa azpimarratu behar dugu:

- NGOIren gastu horiek proportzio handiagoan egin dute behera departamentuaren guztizkoan: ehuneko 49 ehuneko 24aren aldean. Murrizketa horren arrazoia da, alde batetik, 2002an indarra izan zuen aurrekontu luzatua, eta, bestetik, ekitaldi horretan lehenbiziko plan gerontologikoan aurreikusitako jardura nagusiak amaitu direla.

- Ondoko taulan gastu horiek artikulatu ekonomikoetan duten banaketa islatzen da, milioika eurotan adierazita:

- Txostenaren helburuan zentratuz, aurreko gastuetatik ondoko zenbatekoak erabiltzen dira menpekotasunaren arlorako (milioika eurotan):

- Hartzaileak zehazteko garaian, kontuan hartu behar da gerta daitekeela urte anitzeko jardura batzuk aurreko ekitaldietatik etortzea; horrelakoak identifikatu ahal izan ditugunean, zenbateko horiek bereizirik jarri ditugu ondoko taulan. Laburbilduz, 2002-2005 aldirako aurreko dirulaguntzen hartzaile nagusiak -0,3 milioi euro baino gehiago-, ondokoak izan dira (milioika eurotan):

**Enpresa pribatuak**

Zentroa	2002-2005 zenbatekoa	Zenbatekoa, 2001
Seresgema, SA	2,14	0,48
Asistencial Rochapea, SA	0,74	1,01

**Udalak**

Udala	2002-2005 zenbatekoa
Kaseda	0,80
Andosilla	1,15
Fustiñana	0,56
Martzilla	0,63
Mendabia	0,91

**Irabazi asmorik gabeko erakundeak**

Zentroa	2002-2005 zenbatekoa	Zenbatekoa, 2001
Bellido Fundazioa	0,46	
HH. ancianos R. Guerendiain	1,18	
HH. . San José	3,93	
S. Manuel eta S. Severino	2,44	0,82
Muruzabal egoitza	0,67	
San Joséegoitza	2,76	0,20
P. Menni klinika	3,04	

**b) Ezgaituak****Irabazi asmorik gabeko erakundeak**

Zentroa	Zenbatekoa
Adacen	1,02

**VIII.2.2. Transferentzietarako deialdien analisia**

Ezer baino lehen, azpimarratu behar da ez dagoela zentroak egiteko dirulaguntzetarako deialdi berariazkorik; izan ere, deialdi horiek gizarte zerbitzuen arloko inbertsioetarako laguntzen urteko deialdian sartzen dira.

2001, 2002, 2003 eta 2005. urteetarako gizarte zerbitzuen arloko inbertsioetarako deialdien oinarriak aztertu dira, deialdien esparrua eta xedea ezagutzeko, bai eta diruz laguntzen diren inbertsioak eta modalitate bakoitzerako ezarritako zenbatekoak ere. 2001eko deialdia sartzen da, zeren eta aztertutako aldirian dirulaguntza batzuk deialdi horretan oinarriturik eman baitziren. 2004an, ez zen gizarte zerbitzuen arloko inbertsioetarako deialdirik izan.

Dirulaguntza horiek emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko dauden araubide orokorreko xedapenak foru aginduz onesten dira. 2001ean eta 2003an, aurreko urteko azaroan onetsi ziren;

2002an eta 2005ean, berriz, urte bereko urtarrean.

Deialdi horietako bakoitzean, diruz laguntzen dira deialdia dagokion ekitaldian zehar hasitako edo eginiko inbertsioak, bai eta, 2001ean izan ezik, aurreko ekitaldian eginiko inbertsioak ere. Hartara, 2004an berariazko deialdirik egin ez bazen ere, urte hartan eginiko inbertsioetarako laguntza 2005ean eskatu ahal izan zen.

Dirulaguntzen modalitateak NGOIren jardueraren eremu guztietarako balio du. Hirugarren adinean eta ezgaituetan zentratutako, dirulaguntza horiek, lau deialdietan antzekoak direnak, ondokoetarako dira:

- Plan gerontologikoko inbertsioak: Toki entitateentzako transferentziak.
- Plan gerontologikoko inbertsioak: Irabazi asmorik ez duten erakundeentzako transferentziak.

- Ezgaituentzako kanpoko zentroetako inbertsioak.

- Oztopoak kentzeko dirulaguntzak.
- Bestelako inbertsio eta ekipamenduak.

Berezitasun gisa adierazi behar dugu soilik 2001eko deialdian jaso zirela enpresa pribatuek plan gerontologikoaren barruan eginiko inbertsioetarako dirulaguntzak.

Dirulaguntzen zenbateko zehatzei dagokienez, aldaketak izan ziren 2001eko eta 2002ko deialdietan. Hartara,

- Egoitza berriak: irabazi asmorik gabeko entitateak, inbertsioaren ehuneko 50 egiteraino.

- Egoitza berriak: irabazi asmoko entitateak, ehuneko 30eraino Iruñean eta Iruñerrian, eta ehuneko 50eraino Nafarroako gainerako lekuetan.

- Apartamentu babestuak: proiektuko eta obra zuzendaritzako lansarien kostuen % 100 gehienez ere.

- Zahar-etxeetako erreformak eta zabaltzeak: irabazi asmorik gabeko entitateak: inbertsioaren ehuneko 80eraino.

- Zahar-etxeetako erreformak eta zabaltzeak: irabazi asmoko entitateak: Iruñeko eta Iruñerrian inbertsioaren ehuneko 30eraino; Nafarroako gainerako lekuetan ehuneko 50eraino.

- Beste eraikin batzuetako erreformak eta zabalkuntzak: irabazi asmorik gabeko entitateak, inbertsioaren ehuneko 90 egiteraino.

- Ekipamendua: irabazi asmorik gabeko entitateak: inbertsioaren ehuneko 80 egiteraino.

2003ko deialdian, gehieneko ehuneko horiei eusten zaie, bi aldaketarekin:

- Irabazi asmoko entitateek sustaturiko inbertsioetarako dirulaguntza desagertzen da, inbertsio horiek eraikuntza berri baterako izan nahiz dauden zentroak erreformatzeko edo zabaltzeko izan.

- Deialdi horretan, aldatzen da, halaber, toki entitateek sustaturiko ekipamenduaren gehieneko ehunekoa, eta ehuneko 80tik ehuneko 50era jaiten da.

2005erako deialdian, zenbatekoak eta ehunekoak sinpletu egin ziren: lokalak erostea, eraikitzea, hirugarren adinerako ekipamendua eta beste arlo batzuk: inbertsioaren ehuneko 50 egiteraino.

Oro har, antzemandako joera da laguntzak ematea deialdietan ezarritako gehieneko ehunekoaren arabera.

Deialdi guztietan, onuradunaren betebeharren artean, honakoa azpimarratzen da: “Dirulaguntza-aren kontzesioak berarekin ekarriko du zentroak funtzionatzen edukitzeko obligazioa, hasiera batean erabakitako xedearekin eta gutxienez 30 urtez”.

Ekipamendurako dirulaguntzen kasuan, dirulaguntza justifikatu zuen erabilerarako afektazioak gutxienez ere 10 urtez iraunen du.

Afektazioa ezarritako epea baino lehen etenez gero, amortizatu gabeko dirulaguntzaren zatia itzuli beharko da.

Aztertu ditugun deialdietako bakarrean ere ez dugu antzeman NGOIk edo diruz lagundutako entitateek tokiak ituntzeari buruz inolako betebeharririk egotea adierazi izana. Horri dagokionez, martxoaren 24ko 14/1998 Foru Aginduak –haren bidez, zaharrentzako egoitzak egiteko zenbait proiektu Nafarroako plan gerontologikoan (1997-2000) aurreikusitako finantzaketa plantan sartzen ziren– bere ondorioetan adierazten zuen “hautaturiko entitateek NGOIri nahitaez eskaini beharko diote itunak ituntzeko aukera, dirulaguntzaren ebazpenean ezarritako ehunekoaren arabera”.

Aurreko dirulaguntzen lagin bati buruz eginiko berrikuspenetik ondorioztatzen da, oro har, espedienteak kasuko deialdietan adierazitako beharkizun eta baldintzen arabera izapidetu direla, eta haietan exijitzen diren dokumentazioa eta txostenak jaso direla.

## **IX. GEHIGARRIA. KOBRANTZEN KUDEAKETA HIRUGARREN ADINERAKO ETA EZGAITUENTZAKO ZENTROETAN**

Hasi aurretik, ondoko zehaztapen terminologiakoak egin behar ditugu:

### a) Prezioak

Gehieneko prezioa, zentro mota bakoitzaren arabera eta hirugarren adineko egonaldi bakoitzeko. Urtero finkatzen da aurrekontuei buruzko foru legearen bitartez, kontuan hartuz bai zuzeneko kostuak, bai egotz daitezkeen kostu orokorren ehunekoa. Gehieneko prezio horiek zehazterakoan saiatu behar da merkatuko prezioen parean jartzeko, Nafarroako egoera ekonomiko orokorra eta errenta-mailak eta erretiro-pentsioek horretarako bidea ematen duten neurrian.

Hasiera batean, lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera kalkulatzen dira: eguneko zentroa, lanbide arteko gutxieneko soldata bat; baliatzen direnen tokia, 1,5 aldiz lanbide arteko gutxieneko soldata; eta laguntza behar dutenen tokia 2,5 aldiz lanbide arteko gutxieneko soldata. 2002. eta 2003. urteetako ekitaldietan, aurrekontuak luzatu baitzi-

ren, gaurkotzea aipatu lanbide arteko gutxieneko soldataren arabera finkatu zen, baina ez da kuantifikazio hori berariaz jaso; 2004. eta 2005. urteetarako, zuzenean aurrekontuen foru legeetan finkatu zen. Zehazki, honakoak izan dira aplikatutako gehieneko prezioak (eurotan):

Hirugarren adinerako tokiaren mota	2002	2003	2004	2005	Handitzea (%) 2005/2002
Baliatzen direnen tokia	663,30	676,80	719,30	740,88	12
Laguntza behar duen batentzako tokia	1.105,50	1.127,50	1.307,82	1.347,10	22
Eguneko zentroa	442,20	451,20	719,30	740,88	68

Azpiarratu behar da eguneko zentroen prezioak izan duen gorakada; haren zenbatekoa, 2004ko ekitalditik, baliadunen tokien parean jarri da. Halaber, azpimarratzekoa da 2004an prezioekin izan duten gorakada, 2003ko prezioekin alderatuta; hartara, baliatzen direnen tokiek ehuneko 6 egin zuten gora, laguntza behar dutenen tokiek, berriz, ehuneko 16, eta eguneko zentroetako tokiek, azkenik, ehuneko 60. 2004 eta 2005 bitarte, prezio guztiek ehuneko 3 egin duten gora.

Gehieneko prezio horiek erreferentzia bat dira zentro berekietako, zentro itunduetako eta udal zentroetako tarifen kalkulua zehazteko, bai eta

kanpoko zentroetako erabiltzaileentzako prestazio ekonomikoak zehazteko ere.

NGOIk finkaturiko prezioa edo tarifa. Urtero, NGOIk, aurreko gehieneko prezioa erreferentzia gisa harturik, zentro berekietako eta itunduetako erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifa zehazten dute, eta adierazten den bezala "tarifa horrek ez ditu islatzen aipatu NGOIrentzat zerbitzu horiek duten kostu erreala". Oro har, tarifa horiek urtero gaurkotzen dira KPIaren aldaketaren arabera.

Lanaren helburuari jarraituz, 2002tik 2005era bitartean izandako tarifak ondokoak dira (eurotan):

Mota	2002	2003	2004	2005	Igoeraren ehunekoa 2005/2002
3. adina; baliatzen direnen tokia	503,63	523,78	543,69	567,07	13
3. adina; laguntza behar dutenen tokia	1.034,77	1.076,17	1.106,30	1.142,81	10
Ezgaituentzako egoitza iraunkorra	1.009,56	1.022,34	1.050,97	1.114,96	10
Eguneko zentroa. + 18 urtekoentzat	141,96	143,76	147,78	121,26	(15)

Banakako ekarpena edo kuota. NGOIk, tarifa oinarri harturik, urtero zehaztuko du erabiltzaile bakoitzaren ekarpen ekonomikoa, errentaren arabera eta familiaren osaketaren arabera. Kuota horren muga gisa ezartzen da ezin izanen dela erabiltzailearen errentaren ehuneko ehunera iritsi.

#### b) Kostuak

Zentro berekiaren gastua, zentro bereki bakoitzeko aurrekontu administratiboan bitartez zehaztutakoa.

Zentro itundu bakoitzeko modulua, kasuan kasuko itunean finkatutakoa zentroaren ezaugarrien eta itunaren beharkizunen arabera.

Kanpoko zentroetako prezioa, kanpoko zentro bakoitzak finkatutakoa bere irizpideen arabera.

Kanpoko zentroak erabiltzen dituzten pertsonentzako prestazio ekonomikoa. Administrazioak, jasotako zerbitzuak ordaintzeko, kanpoko zentroetako erabiltzaileei eskuratutako zenbatekoak. NGOIk zehaztuko du, ekarpen efektiboa edo kuota eta gehieneko prezioa kontuan hartuta.

#### c) Zorraren aitortpena

Zentro eta egoitzetan etengabe eta jarraian ematen diren zerbitzuak ordaindu behar dituzten eta, horretarako behar adinako dirusarrerarik ez izateagatik, banakako prezioa ordaintzerik ez duten pertsonen izenpetu beharko dute agiri bat, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin duten zorra, tarifaren eta kuotaren arteko aldea, onartuz.

### IX.1. AURREKONTUEN ETA KONTABILITATE-AREN INFORMAZIOA

Zaharrentzako eta ezgaituentzako zentroetan aitorturiko eskubideei dagokienez, hurrengo gaiak nabarmendu behar dira aurrena:

- Zentro itunduetako tokietatik heldu diren dirusarrerak itunetako kostuaren gastu txikiagoa balira bezala egozten dira, eta ez da haien zenbaterako zehatza jaso.

- Aurrekontuari egotzitako dirusarrerak, horrenbestez, erreferentzia egiten diote soilik erabiltzaileak berezko zentroetan ordaindu beharreko kuotari eta kobratutako zorraren aitortzeari.

- Erregistratzeko irizpide gisa, kutxa hartzen da. Hau da, aurrekontuan aitortzen eta erregistratzen dira soilik zentro berekietako erabiltzaileen-gandik benetan kobratutako dirusarrerak.

Honakoak dira zentro berekiak:

a) Hirugarren adina

- “El Vergel” egoitza

- Santo Domingo egoitza

- San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoa

b) Ezgaituak

- San José zentroa

- Lur Gorri etxebizitza

2002tik 2005era bitarteko aldirian, zentro bereki horietako egonaldiarengatik aitorturiko dirusarrerak ondoko taulan islatzen dira:

Ekitaldia	Aitorturiko eskubideak (euroak, milioitan)	Indizea
2002	3,48	100
2003	4,63	133
2004	4,08	117
2005	5,25	151

Antzemandako igoera, ehuneko 51, funtsean honakoetatik heldu da:

- El Vergel egoitzako tokien kopuruak gora egin izana, behin egoitza zabaltzeko obrak bukatu ondoren.

- San Frantzisko Xabierkoa zentroko dirusarre-  
rek gora egin izana; izan ere, 2003ko erditik aurre-  
ra toki horiek NGOIk kudeatzen ditu, eta kuotak  
garestitu egin dira.

- Zorra aitortzeagatik sorturiko dirusarrerek  
ehuneko 52 egin dute gora.

Bestalde, kobratzeko prozeduraren berrikuspe-  
na dela eta, ondokoa adierazi behar dugu:

- Ez dago igorri eta kobratu ez diren ordainagi-  
rien kasuan (itzulitako ordainagariak) jarduteko  
prozedura sistematikorik.

- Aginte koadroan islatutako kobrantzen hileko  
datuak eta kontabilitatekoak ez datoz beti bat.

### IX.2. ZORRAREN AITORPENA

#### IX.2.1. Hirugarren adina

Hirugarren adinekoendako zerbitzuak finantza-  
tzen laguntzeko egoitzetako erabiltzaileek egin  
beharreko diru-ekarpena arautzen duen abendu-  
aren 29ko 17/2000 Foru Legeko 8. artikulua ondo-  
koa dio:

“Hilean ordaindu beharrekoarekin ez badute  
erabiltzaileek hileko prezio guztia ordaintzen, zorra  
eginen dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Ins-  
titutuarekin; zorraren zenbatekoa, hain zuzen ere,  
honakoa izanen da: erabiltzaileak ordaindutakoa-  
ren eta institutuak bere zahar-etxeetarako edo  
itunduetarako ezarritako prezioaren arteko aldea.

Zor hori kobratuko dela ziurtatzeko, erabiltzai-  
leei eskatuko zaie berme pertsonal edo errealak  
eratzera... Berme horiek, aldirian aldirian, berrikusi  
egin ahalko ditu administrazioak, bai bere kabuz,  
bai alderdi batek hala eskatuta.”

Horrenbestez, erabiltzaile batek ez duenean  
ordaintzen bere ekarpen ekonomikoarekin ezarri-  
tako tarifaren guztizkoa, NGOIrekin zor bat sortzen  
du. Zor horrek ez du interesik sortzen, eta urtero  
kalkulatu eta aipatu erabiltzaileari jakinarazten  
zaio; erabiltzaileak zor hori ordaindu ahalko du,  
dela osorik edo hein batean, hala nahi izanez  
gero.

Kobrantza segurtatzeko, NGOIk bermeak era-  
tzea exijitzen du; erabiltzaileak ondarea duenean,  
berme horiek berme hipotekarioak izaten dira.  
Aparteko kasuetan berme pertsonalak eratu dira  
erabiltzaileen ondorengo bizkar.

Berme hipotekario horiek eskritura publikoan  
jasotzen dira eta Jabetzaren Erregistroan inskriba-  
tzen dira. Gehieneko zenbatekoa erabiltzailearen  
bizi-esperantzaren arabera kalkulatzen da.

2002ko ekitalditik, ondoko bermeak eratu dira:

Ekitaldia	Berme kopurua
2002	1
2003	27
2004	18
2005	57

Erabiltzaileak ondarrerik ez badu, ez da bermerik eraten. Hala eta guztiz ere, egoitzetan sartzeko garaian balorazio ekonomikoa egiteko prozesuan, eskatzaileek aurreko bost urteetan eginiko ondare-eskualdaketen gaineko jarraipena egiten da.

Zorraren zenbatestea bukatzen da erabiltzaileak zerbitzua jasotzeari uzten dionean, hil delako edo bestelako arrazoi batzuk direla medio. Zuzenbide publikoko dirusarreraren denez gero, kobrantzarako arauetan ezarritako tresna eta prozedura guztiak erabil daitezke, premiamenduzko bidea barne.

Normalean metaturiko zorraren ordainketa beren borondatez egiten dute erabiltzailearen zuzeneko ahaideek, dena batera nahiz zatikako ordainketatan; azken modu hori, dena den, ez dago berariaz araturik.

Borondatezko bidetik zorra berreskuratzeko modurik ez dagoenean, NGOIk bi bide erabili ahal ditu.

- Bermeak exekutatzeko. Gaur arte ez da inolako bermerik exekutatu, ez baita horren beharrik izan.

- Bide exekutibotik kobratzea. Foru Ogasunari igortzen zaizkio kudea ditzen; gaur arte lorturiko emaitzak oso urriak dira, exekutatzeko dauden zailtasun tekniko eta juridikoen ondorioz.

Behin izapide guztiak bukatuta eta kobrantzak kudeatzeko prozesua amaiturik, kobratu gabeko zorra berreskurazintzat hartzen da.

Hirugarren adineko kanpoko zentroetako laguntzengatik sorturiko zorrari dagokionez, jarraitzen den prozedura aurreko lerroketan deskribaturikoaren antzekoa da, berezitasun batzuekin betiere.

Hartara, erabiltzaile batek kanpoko zentroetarako eskura dezakeen prestazio ekonomikoa kalkulatu da haren ekarpen pertsonala (errentaren eta ondarearen arabera kalkulaturik) eta aurrekontuen foru legeetan zentro bereki eta itunduetarako finkaturiko gehieneko prezioaren artean kalkulatu da.

Hala eta guztiz ere, zorraren zenbatekoa kalkulatzeko, erreferentzia ez da aipaturiko gehieneko prezio, baizik eta NGOIk bere zentro bereki eta itunduetarako ezartzen duen tarifa. Hartara, laguntza horiek jasotzen dituztenek NGOIri itzuli behar diote ordaindutakoaren eta NGOIk ezarritako tarifaren arteko aldea; gainerakoa, gehieneko preziora arte, berreskurazintzat jotzen da.

Hau da, erabiltzaileak toki bat betetzen duenean zentro bereki edo itundu batean, zorraren zen-

batekoa institutuak emaniko prestazio ekonomikoaren edo emandako laguntzaren berdina izanen da. Kanpoko zentro bateko toki bat betetzen bazuen, sortutako zorra aipatu prestazioa edo erabiltzaileak jasotako laguntza baino txikiagoa izan daiteke, zeren eta laguntza gehieneko prezioaren arabera kalkulatu baita, eta prezio hori NGOIren tarifak baino garestiagoa da. Soilik kanpoko zentroak kobraturiko gehieneko prezioa erreferentziakoak baino txikiagoa denean –gehieneko prezioa edo NGOIren tarifa–, zorraren zenbatestea bat etor liteke institutuak benetan ordaindutako kopuruarekin.

Hala eta guztiz ere, NGOIn adierazten dute laguntza horietan kontrolatu egiten dela zenbatekoak ez gaintzea kanpoko zentroak ordaindu beharreko prezioa.

Gure iritziz, beharrezkoa da inguruabar eta kalkulatu modu horiek egoki arautzea.

### IX.2.2. Ezgaituak

Gizarte zerbitzuen arloan prestazioak eta norbanakoentzako eta familientzako laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuko 12. artikulua honakoa ezarri zuen:

“Itundutako egonaldietarako prestazio ekonomikoak zaharrei, ezinduei eta adingabeei laguntza emateko ezartzen dira, horiek zentro nahiz egoitza batean egon behar direnean eta egonaldia ordaintzeko behar adinako diru baliabiderik ez dutenean.

Onuradunak edo legezko ordezkariak sortzen den zorraren aitortze-dokumentu bat sinatu behar du, zeinaren kobrantza haren ondasunen kargu egingo den, zerbitzuak emateari uzten zaionean edo, hala gertatzen bada, bere heriotzaren ondoren.

Zorra aitortzeak ondasun-transmisioa egiteko ezintasuna dakar, zorra kitatzen ez den bitartean.”

Lortutako informazioaren arabera, ez dira aurreko aurreikuspenak aplikatzen, eta ez da sorturiko balizko zorra zenbatesten.

### IX.2.3. Hirugarren adinekoengatik aitorturiko zorraren egungo egoera

2005eko abenduaren 31n hirugarren adinekoen egoitzetan tokia dutenek metaturiko zorraren guztizkoak 36,5 milioi euro egiten ditu; zor hori 1.557 pertsonen sortua da, guztira.

Hala eta guztiz ere, zor hori soilik exijitu daiteke erabiltzaileak zerbitzua jasotzeari uzten dionean, hil delako edo beste arrazoi batzuk direla medio.

Ondoko taulan, 2002tik 2005era bitarte sorturiko zorraren bilakaera agertzen dugu:

Ekitaldia	Exijitu daitekeen zorra (euroak, milioitan)	Indizea
2002	18,94	100
2003	26,06	138
2004	31,52	166
2005	39,47	208

2005eko abenduaren 31n sorturiko zorrak 39,47 milioi euro egiten ditu, eta 2002ko ekitaldikoaren bi halako da. Zor hori 2.774 espediente edo erabiltzaileri dagokie.

Hala eta guztiz ere, aipaturiko datan, zorraren egoera ondoko taulan islatutakoa da:

Egoera	Zenbatekoa (euroak, milioitan)	Ehunekoak
Kobratutako zorra	7,17	18
Berreskuraezina den zorra	27,80	70
Kobratzeko dagoen zorra	4,50	12
Guztira	39,47	100

Hau da, bakarrik sortutako zorraren ehuneko 18 kobratu da; portzentaje hori ehuneko 12 puntu gehiagotan igo daiteke izapidetzen ari diren zorra kobratzeko kudeaketek arrakasta badute.

Zor berreskuraezinaren barruan, 27,80 milioi ondoko egoerei dagozkie:

- Artxibatu/deuseztutako espedienteak, ondatsunik, ondarrerik edo exekuta daitekeen bermerik ez izateagatik.
- Zatikako ordainketak egin diren espedienteak, zeinetan ordaintzeko falta dena kobraezintzat jotzen baita.
- Errekurtsoak ebazteko dituzten espedienteak.
- Zatikako ordainketak egin diren espedienteak, zeinetan ordaintzeko falta dena ahaideei kobratzekotan dagoen.
- Bide exekutibotik kobratzeko dauden espedienteak.

Aurreko egoerak azterturik, benetan berreskuraezintzat jotzen den zor gisa 24 milioi euro

daude; haietan ez dago ondarrerik edo hura exekutatzeke bermerik. Gainerakoei dagokienez, kasuko errekurtsoak ebazteaz gainera, bide exekutibotik jotzeko aukera egonen litzateke, ondarea badagodelako; egoera horretan, 150 espediente inguru daude, guztira 3 milioi euroko zorra sortzen dutenak.

## X. GEHIGARRIA. HIRUGARREN ADINA

Gehigarri honetan, funtsean, ondoko gaiak aztertzen dira:

- Hirugarren adinekoen arloko aurrekontu-gastuaren bilakaera.
- Planifikazioa.
- Itunak.
- Banakako prestazio ekonomikoak.
- Kostua/gastua eta toki bakoitzeko sarrera alderatzea, hirugarren adinekoentzako egoitzetan.
- Hirugarren adinekoentzako tokien bilakaera.
- Hirugarren adinekoentzako egoitzetako itxaron zerrendak.

### X.1. HIRUGARREN ADINEKOEN ARLOKO AURREKONTU-GASTUAREN BILAKAERA

III. eta IV. gehigarrietan adierazitakoaren osagarri, hirugarren adinekoentzako bideraturiko aurrekontu-gastuak eta aipagarriak diren gainerako adierazleen multzoa ondoko taulan islatzen dira, honakoetatik abiatuta:

- 2002tik 2004ra bitarteko aldian, gastu horiek "hirugarren adinekoak" berariazko programan jasotzen dira; 2005ean, ordea, funtsean "laguntza soziosanitarioa" eta "boluntarioak, elkarteak eta programak" programetan sartzen dira; azken horiek hirugarren adinekoentzako eta ezgaituentzako gastua batera biltzen dituzte. Horrenbestez, azken kasu horretan, soilik hirugarren adinekoentzako gastuak hartu dira aintzat.
- Ez dira sartzen inbertsio gastu aipagarrienak, zeinak departamentuaren barreneko programei egozten zaizkien.



## Aurrekontu gastuaren bilakaera (2002-2005)

Ekitaldia	Hirugarren adinekoentzako gastuak (euroak, milioitan)	NGOren guztizko gastuen gaineko ehunekoak	Hirugarren adinekoentzako gastuek Nafarroako BPGean egiten duten ehunekoak	> 65 urteko populazioaren gaineko per capita gastua (eurotan)
2002	20,33	19	0,16	197,89
2003	20,94	17	0,16	202,92
2004	18,88	14	0,13	182,60
2005	20,45	18	0,13	197,37

Haiek irakurrita, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

- Hirugarren adinekoentzako aurrekontu-gastuek ehuneko 0,62 egin dute behera aztertutako aldian; 2004ko jaitsiera da aipagarriena.

- Aurreko gastu horiei kentzen badizkiegu langile propioei ordaindutakoak, hirugarren adinekoentzako jarduera propioetan eginiko gastuak ehuneko 7 egin du gora aztertutako aldian.

- NGOren aurrekontuen aldean, gastu horiek garrantzi erlatiboan galtzen joan dira; hala eta guztiz ere, 2005ean, nolabait ere, oneratzera jo dute.

- Nafarroako BPGaren gainean, azken bi urte hauetan ehuneko 0,13 izaten jarraitzen du; horrek adierazten du aldi horretan ehuneko 18ko jaitsiera gertatu dela.

- Azkenik, 65 urtetik gorako populazioaren per capita gastuak, 2005ekoak, 2002ko mailak berreskuratu ditu, termino korrontetan. Euro konstantetan, berriz, per capita gastuak ehuneko 9 egin du behera 2002tik 2005era.

## X.2. PLANGINTZA

Nafarroako Gobernuak zaharrentzako politikak garatzeko aurrera eramandako gizarte ekintza, azken urteetan, 1997tik 2000ra bitarteko aldirako Nafarroako lehenbiziko plan gerontologikoari jarraituz bete da.

Plan hori gobernuak onetsi zuen 1997ko martxoan, eta Nafarroako Parlamentuak urte bereko ekainean berretsi zuen.

Plan horrek 2000ko ekitaldira arteko indarra bazuen ere, hartan jasotako neurri garrantzitsuenek indarrean jarraitzen dute, eta plan horren adierazleak kalkulatu jarraitu da. Adierazle horiek gobernuak arlo horretan egin duen politikaren helburuak markatu dituzte, eta ondoko ataletan haien jarraipenari buruzko iruzkina ematen dugu.

Gaur egun, bigarren plan gerontologikoa presartzeko fasean dago. Horretarako, kontuan hartu

dira egoerari buruzko analisiaren aurretiko azterlan batzuk; besteak beste, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

“Nafarroan hirugarren adinekoei arreta emateko politikak ebaluatzeko txostena”, 2005eko abuztuko, Gizarte Ongizate Zuzendaritza Nagusiak egin (Plangintza, Kalitatearen Ebaluazio eta Ikuskapen Zerbitzua). Helburu gisa planteatzen da, planean aurreikusitako neurrietatik abiatuta, hirugarren adinekoei laguntza emateko baliabideetan izaniko aldaketak ezagutzea, gaur egun duten egoera ezagutzea eta behar diren hobekuntzak zehaztea.

Adierazleei buruzko ondorioak kasuko ataletan komentatuko ditugu; azterlanean “egiteko dagoena, kontuan har dezazuen etorkizunean 2. plana lantzerakoan” deitzen den atalean, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Klub eta elkarteetan aisialdiko jarduerak eta prestakuntza jarduerak sustatzea, bai eta ohitura osasungarriak eta boluntario-lana mantentzekoak eta sustatzekoak ere. Azken batean, sare horren bitartez bideratzea prebentzio eta parte hartzeko politikak.

- Adineko pertsonak beren etxean gera daitezzen errazteko ahaleginak areagotzea; horrek esan nahi du ondoko arloetan sakondu behar dela:

a) Aparteko laguntza ekonomikoetako (etxeko erreformak, sarbideak eta abar) baremoak goratzea.

b) Estali gabeko arloetan, planean markaturiko estaldura-mailak lortzea.

c) “Beren buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntza komunitarioa emateko programa” garatzea, besteak beste kudeaketa eredu bat definituz. Kudeaketa eredu horrek, hain zuzen ere, laguntza banakakoagoa izatea ahalbidetuko du, eta foru lurraldean ekimen pribatuari exijitzekoak zaizkion gutxieneko maila batzuk; etxeko laguntza soziosanitarioa hobetzeko bidea emanen du, familia zaintzaileentzako prestakuntza sanita-

ria eta laguntza tekniko eta ekonomikoa bermatuko du, boluntarioak sustatu eta artikulatuko ditu, eta eguneko zentroak badaudela eta haien eginkizunak zein diren zabalduko du.

- Zentroetako laguntzetako kalitate teknikoa, hala egoitzetako nola eguneko zentroetako, hobetzea, autonomia sustatzeko, estimulazio kognitiborako eta behar psikologikoetarako laguntza emateko programa berritzaileak garatuz. Ildo horretatik, halaber, egoitzetako gelen banakako erabilera sustatu nahi da.

- Etxez etxeko laguntzako eta egoitzetako nahiz eguneko zentroetako profesionalen etengabeko prestakuntza.

- Erabakiak hartzeko behar diren datuak eskura izatea, bai datu zehatzak, bai ondokoei buruzko aldizkako planak: kudeaketa, pertsona zaharren ezaugarriak, zerbitzuetako erabiltzaileen ezaugarriak, eskaintako prestazioak, haien kostua eta abar.

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko abenduko "Nafarroako pertsona zaharrak sustatzeko eta haiei laguntza emateko plana (2. plan gerontologikoa) idazteko analisia eta diagnostia." Horren helburua zen zaharrentzako politiken egungo egoeraren diagnostia egitea, populazioaren atal horretarako politika sozial berri baterako estrategiak zehaztu ahal izateko. Azterlanaren amaieran sintesia dakarren atal bat dago. Ondoko alderdiak nabarmendu nahi ditugu hartatik:

- Alderdi sendoak: Era horretako politiken arloan, Nafarroako Espainiako estaldura tasarik altuenetako bat dauka, eta jarrera eta inplikazio egokiak antzeman dira politika horiek gauzaten dituzten artean zaharrentzako sistema soziala hobetzeko.

- Alderdi ahulak: Gizartean gertaturiko aldaketen ondorioz, zaharrentzako gizarte zerbitzuen beharrak aldatu dira; erabiltzaileengan, ekintza batzuetan masa kritikoa falta da hurbiltasun politika dela eta; sektore sozialeko egileen aitortza profesionala falta da, eta, azkenik, koordinazioa falta da ekintza sozialean inplikaturiko departamentuetako esku-hartzeen artean.

### X.3. HIRUGARREN ADINERAKO ITUNAK

Atal honen barruan, honakoak aztertu ditugu:

#### X.3.1. Ituntzeko irizpideak.

Hirugarren adinekoentzako tokiak ituntzeko irizpideak ez dira berariaz jasotzen. Erabakian, zenbait faktore hartzen dira kontuan; esate baterako, eskualde jakin bakoitzeko tokien eskaria, haien itxaron zerrendak, itundu beharreko tokien izaera eta proiektuaren eta zerbitzuan dauden langileen bideragarritasuna.

Itun bat badago foru lurraldeaz kanpoko, Errioxako, egoitza batekin.

#### X.3.2. Itunen kopuruaren eta haietarako aurrekontu-gastuaren bilakaera (2002-2005)

Itunen arlorako aurrekontu-gastuaren zehaztapenean eragina du hura erregistratzeko aplikatzen den kontabilitate-irizpideak. Hau da, NGOIk itunen aurrekontu-gastu gisa kontabilizatzen du haien zenbateko garbia, hau da, hari zentro bakoitzeko erabiltzaileek ordaindutako kopurua kendu eta ondorengo, betiere toki horren eskaria onartzeko NGOIk eginiko kalkuluen arabera.

Aurreko lerrokada kontuan harturik, ondoko taulan islatzen dira hirugarren adinerako itunen kopurua eta haietatik ondorioztatzen den aurrekontu gastua:

Ekitaldia	Itunen kopurua	Itunetan eginiko gastu garbia (euroak, milioitan)	Indizea	Hirugarren adinerako guztizko gastuaren gaineko %
2002	16	9,91	100	49
2003	16	10,62	107	51
2004	15	10,50	106	56
2005	16	10,77	109	53

Hau da, itunen kopuruak ia berdin dirau aldi guztian zehar; gastu garbiari dagokionez, ehuneko 9 egin du gora, prezioen igoerari buruzko tasak izan duen igoera –ehuneko 9,8– baino zerbait gutxiago.

Itun horiek ehuneko 50a baino gehiago egiten dute hirugarren adinekoentzako gastuen guztizkoan.

Oro har, aurreko kopuru horiek itunpeko egoitzei ordaintzen zaizkie bi hilez behin, aurreko sei hilekoaren azken egunean zegoen okupazio mailaren arabera, eta sei hilez behin erregularizatzen dira.

NGOIrri bidali beharreko informazioei dagokionez, hurrengo ekitaldikiko martxoaren 31 baino lehenago itundutako entitate horiek, eredu norma-

lizatua erabiliz, ekitaldi bakoitzean garaturiko jarduera islatuko duten oroitidazki teknikoak eta ekonomikoa igorri beharko dituzte. Informazio horrekin analizatu nahi da, funtzionamenduari buruzko ebaluazio orokor bat gorabehera, toki bakoitzeko enplegatuen modulua betetzen ote den (horren emaitzak XIV. gehigarrian azaltzen dira).

### X.3.3. Itunetan aplikatzekoa den modulua eta haren bilakaera (2002-2005)

Moduluaren finkatzea ituntze prozesu bakoitzeko zehazten da itundu beharreko proiektuaren kostuen ezaugarrien eta egituraren arabera. Oro

Titulartasuna	Moduluaren prezioa (eurotan)		Aldaketaren %, 2005/2002
	2002	2005	
Publikoa	1.215	1.342	10
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	1.253	1.384	10
Merkataritzako pribatua	1.491	1.647	10

Hau da, azterturiko aldian, itunetako prezioek ehuneko 10eko goera berdin-berdina izan dute.

Bi ekitaldietarako, halaber, pribatuetan aplikaturiko prezioa ehuneko 23 handiagoa da titulartasun publikoko tokietan aplikatutakoa baino, eta ehuneko 19 handiagoa irabazi asmorik gabeko erakundeentzako diren itunetarako aplikatutakoa baino.

Toki itunduen kopurua	2002	2003	2004	2005	Aldaketaren %, 2005/2002
Lagunduak	930	930	922	937	1
Baliatzen direnak	42	42	42	15	(64)
<b>Guztira</b>	<b>972</b>	<b>972</b>	<b>964</b>	<b>952</b>	<b>(2)</b>

Ikusten denez, lagunduentzako tokiek itundutako toki guztien ehuneko 95 inguru egiten dute. Guztizko kopuru horrek ehuneko 2 egin du behera 2002tik 2005era, bereziki baliatzen direnei dagozkienak.

Zentroen titulartasunari eta atxikipen geografikoari erreparatuta, honako alderdiak adierazi behar ditugu:

- Merkataritza entitate pribatuekiko itunak 9 dira; entitate publikoekiko itunak 3, eta irabazi asmorik gabeko entitateekiko itunak 4.

- Iruñeak eta Iruñerriak lagunduen toki itunduen ehuneko 35 biltzen dituzte, guztiak merkataritzako 5 entitate pribatuk kudeatuak, salbu irabazi asmorik gabeko erakunde batek kudeatzen dituen 30 toki. 2005ean ez dago baliatzen diren itunetako toki itundurik.

har, titulartasun publikoko egoitzetan –udalek zuzenean kudeatutakoak nahiz kudeaketa kanpogan kontratatua dutenak–, irabazi asmorik gabeko entitateenak (erlijio kongregazioak) eta merkataritza entitate pribatuenak bereizten dira.

Titulartasun publikokoei aplikatzekoa zaien modulua txikiagoa da, zeren eta funtsean ez baitira sartzan ez instalazioen amortizazioak ekarritako gastuak, ez finantza gastuak.

Ondoko taulan, toki bakoitzeko aplikaturiko moduluen eta haiek 2002tik 2005era bitarte izan duten bilakaeraren laburpena ematen dugu:

### X.3.4. Itundutako tokiei buruzko eta haien bilakaerari buruzko azterketa

Ondoko taulan, itundutako tokien bilakaera erakusten dugu, betiere baliatzen diren itunetako tokiak eta laguntza behar duten itunetako tokiak bereiziz.

- Baliatzen diren itunetako toki itundu gehienak Tafalla aldean biltzen dira, titulartasun publikoko egoitza batean.

- Oro har, toki itunduen okupazio maila ia ehuneko 100 da.

## X.4. BANAKAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK

### X.4.1. Laguntza horien ezaugarri orokorrak

Laguntza hauen helburua da adineko pertsonak sartu ahal izatea besteren zentroetan edo NGOik itundu gabeko zentroetan, banakako ekarpen ekonomikoen bitartez.

Laguntza hauek 65 urte baino gehiagoko pertsonen zuzenduta daude, dauzkaten ezaugarri bereziengatik edo inguruabar sozial eta familiarrengatik berariazko laguntza behar badute eta

haien egoera ekonomikoa dela-eta zentroaren tarifa osoa ordaintzeko modurik ez badute.

Besteren zentro horiek hauek izan daitezke: eguneko zentroak, eguneko egonaldia, lagunduen tokia, baliatzen direnen tokia.

Laguntza horiek jasotzeko honako baldintzak bete behar dira:

- Nafarraren izaera zibila izatea edo foru erki-degoan bizitzea gutxienez ere eskabide aurkeztu aurreko azken 10 urteetan.

- 65 urte baino gehiago izatea.

- 65 urte baino gutxiago izatea eta modu independentea bizitzeko modurik ez izatea.

- Gaur egun behar adin baliabide ez izatea zentroko tarifa osoa ordaintzeko, eta kapital higigarriko edo higiezinako ondasunik eskualdatu ez izatea.

Hilabeteko laguntza ekonomikoetan gehieneko kopuruak honakoak dira, esate baterako 2005. urterako: Eguneko zentroa, hileko 479,14 euro; lagunduen tokia, hilabeteko 751,68 euro; eta baliatzen direnen tokia, hileko 328,86 euro.

Laguntza horiek hartzen dituzten pertsonak zor bat sortuko dute NGOirekin, eta zor hori, agian, beren etorkizuneko ondasunekin ordainduko dute edo haien oinordekoek ordainduko dute oinordetza onartzerakoan. Zorrak sortze horretatik salbuetsirik daude eguneko zentroetarako laguntzak.

Normalean, besteren zentroetako egonaldiatarako laguntza horietarako eskariak oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez izapidetzen dira, behin kasuan kasuko pertsona zentroan ingresatu eta ondoren. Behin laguntza jaso denean, behar den balorazioa egiten da eta puntuazio bat ematen zaio; kasua bada, eskatutako laguntza ematen

zaio. Laguntza zuzenean ordainduko zaio hartzailerak dagoen zentroari.

Oro har, ez dago toki itundu hutsik eta aldi berean zuzeneko laguntza duten tokiak.

Aplikatzen den prozedura administratiboa, oro har, egokia da laguntzaren xederako.

#### X.4.2. Aurrekontu informazioa (2002-2005)

Aurrekontu likidazioei erreparatuta, honakoa izan da laguntza horientatik gastua:

Ekitaldia	Zenbatekoa (euroak, milioitan)	Indizea
2002	3,33	100
2003	3,28	98
2004	3,16	95
2005	3,28	98

Horrenbestez, halako egonkortasun bat antzematen da azterturiko aldiko aurrekontu zenbatekoetan.

Prestazioaren izaerari dagokionez, laguntza horiek honela banatzen dira –milioika eurotan–:

Ekitaldia	Eguneko zentroa	Lagunduak	Baliatzen direnak	Guztira (euroak, milioitan)
2002	0,10	2,36	0,87	3,33
2003	0,11	2,30	0,87	3,28
2004	0,12	2,17	0,87	3,16
2005	0,10	2,24	0,94	3,28

Ikusten denez, laguntza guztien ehuneko 70 inguru besteren zentroetako lagunduen tokiak finantzatzera bideratzen dira.

Gehieneko laguntzaren zenbatekoari erreparatuta, hona bilakaera:

Euroak, hilabeteko	2002			2005		
	Eguneko zentroa	Lagunduen tokia	Baliatzen direnen tokia	Eguneko zentroa	Lagunduen tokia	Baliatzen direnen tokia
Gehieneko laguntza	Ez dago jasota	679,14	309,54	479,14	751,68	328,86

Hau da, lagunduen tokiak ehuneko 11 egin du gora; bitartean, baliatzen direnen tokirako gehieneko laguntzaren igoera ehuneko 6koa izan da. Azpimarratzekoa da halaber, 2005eko eguneko zentro-entatik laguntzak –2003tik antzeman den

bezala– nabarmen gaintzen duela baliatzen direnen tokietarako laguntza.

Azkenik, laguntza hauen onuradunen kopurua ondoko taulan agertzen dena da:

Ekitaldia	Eguneko zentroa	Lagunduak	Baliatzen direnak	Irakasleak, guztira
2002	34	428	344	806
2003	20	294	258	572
2004	25	269	269	563
2005	20	302	262	584

Ikusten denez, onuradunen kopuruak nabarmen egin du behera 2003an aurreko ekitaldiarekin alderatuta –ehuneko 29 gutxiago–, eta gainerako urteekin alderatuta antzeko mailan geratzen da. Onuradunen kontzentrazio handiena lagunduentzako tokietan antzematen da.

Lagunduen tokien ehuneko 64 eta baliatzen direnen ehuneko 64 Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako barrutietan daude; baliatzen direnen tokien ehuneko 71 aurreko arloei atxikitzen zaizkie. Eguneko zentroi dagokionez, onuradunen ehuneko 61 Nafarroako Ipar-mendebaldekoak dira.

Laguntza horien kudeaketari dagokionez, aurkeztutako eskabideei eta haien izapidetzeari buruzko 2004ko datuak dauzkagu. Ondokoak dira:

Eskariak (2004)	Zenbat
Aurkeztutakoak	810
Emandakoak	638
Ukatuak	58
Artxibatutakoak	114

Ekitaldia	Toki bakoitzeko gastua zentro berekian (eurotan)	Indizea
2002	1.745,66	100
2003	1.898,78	109
2004	e.d.	-
2005	2.678,49	153

Horrenbestez, 2002tik 2005era bitarte, toki bakoitzeko gastuak, Nafarroako Gobernuko zentro berekietan, ehuneko 53 egin du gora. Igoera horren arrazoiak dira, funtsean, batetik El Vergel egoitzako langileen gastuak –ordainsariak gehi zama sozialak– izan duen igoera –2003tik 2005era langile gastuak ehuneko 66 hazi dira–, eta bestetik betetako tokien gutxitze orokorra –2003an 309 izatetik 2005ean 269 izatera.

- Itundutako toki bakoitzeko hileko modulua

Itunen oinarri diren prezioak kontuan hartuta, toki bakoitzeko batez besteko modulua kalkulatu da, eta ondoko emaitzak lortu dira:

Horrenbestez, baiezkoa eman zaien eskarien kopurua aurkeztutakoen ehuneko 79 dira.

#### X.5. TOKI BAKOITZEKO GASTU/KOSTUAREN ETA DIRUSARRERAREN ALDERAKETA, HIRUGARREN ADINERAKO EGOITZETAN. 2002-2005 ALDIKO BILAKAERA.

IX. gehigarrian kontzeptu horiei buruz eginiko gogoeta metodologikoak abiapuntu hartuta, ondoren alderatuko ditugu toki bakoitzeko kostua/gastua eta dirusarrera, hirugarren adineko egoitzetan.

##### X.5.1. Zentro berekiak eta itunduak

- Hileko gastua toki bakoitzeko zentro berekietan

NGOik gastu hori honela kalkulatu du: zentro bakoitzeko aurrekontu administratiboak, hari zuzenean atxikitako aurrekontu gastuak zehaztuz –funtsean, langileei, ondasun arruntei eta zerbitzuei eta NGOik eginiko inbertsioei dagokie–, zati betetako tokien kopurua. Aurrekontu gastuaren izaera kontuan hartuta, ez da sartu zama orokorren zati proportzionala edo zeharkako kostuak, ez eta instalazioen amortizazioa ere.

Ondoko taulan erakusten da toki bakoitzeko batez besteko gastua eta haren bilakaera, kontuan hartuz ezin izan dela zehaztu 2004koa, langileen gastu berariazkoiei buruzko informazioa ez izateagatik, nominak kudeatzeko sistema informatikoa aldatu delako.

Ekitaldia	Toki bakoitzeko batez besteko modulua (eurotan)	Indizea
2002	1.404,08	100
2003	1.450,42	103
2004	1.491,03	106
2005	1.550,67	110

Hau da, azterturiko aldirian, moduluak ehuneko 10eko hazkundea izan du.

Bestalde, moduluaren balioa eta tokiak egoitza itunduetan duen kostu erreala alderatu nahi izan

dira. NGOIk ez du datu orokorrik egoitza itunduetako kostu errealei buruz; hala eta guztiz ere, 2004an, gaiari buruzko lehenbiziko hurbilketa bat egin zen, lau egoitza itundu nagusietako ustiaketa-kontuak aztertuz; 2004. urterako lortu ziren emaitzen arabera, toki bakoitzaren kostu erreala hileko 1.331,83 eta 1.835,10 euro bitartekoa da. Tarte horrek gobernuak aplikaturiko moduluaren balio biltzen du.

Toki mota	2002	2003	2004	2005	Gehikuntza, % 2005/2002
Baliatzen direnen tokia	663,30	676,50	719,30	740,88	12
Laguntza behar duen batentzako tokia	1.105,50	1.127,50	1.307,82	1.347,10	22

Horrenbestez, azterturiko aldian, laguntza behar dutenen prezioak gehiago igo dira baliatzen direnen prezioak baino.

- NGOIk ezarritako hileko tarifa.

Toki mota	2002	2003	2004	2005	Gehikuntza, % 2005/2002
Gauza direnena	503,63	523,78	543,69	567,07	13
Laguntza behar dutenena	1.034,77	1.076,17	1.106,30	1.142,81	10

Gehieneko prezioarekin gertatzen denaz bestera, laguntza behar dutenen tarifak igoera txikiagoa izan du baliatzen direnen tarifak baino.

- Hileko batez besteko kuota.

Toki mota	2002	2003	2004	2005	Gehikuntza, % 2005/2002
Gauza direnena	377,73	394,41	430,95	447,35	18
Laguntza behar dutenena	552,01	611,49	635,45	693,24	26

Hau da, erabiltzaileen ekarpenak hein handiagoan igo dira tarifak edo gehieneko prezioak baino. Igoera berezia antzeman da laguntza behar dutenen tokietan.

2005eko balioa Nafarroako hileko batez besteko erretiro pentsioarekin alderatu behar da; pentsio hori hileko 750,25 eurokoa zen 2005eko urtarrian. Horrenbestez, erabiltzaileen ekarpenak batez besteko pentsioaren azpitik daude; halere, laguntza behar dutenen kasuan, nahiko antzekoak dira. Horri dagokionez, adierazi beharra dago egun indarra duen arau-esparruak ezarritakoaren arabera, zentro berekietako eta itunduetako egoili-

- Toki bakoitzeko hilabeteko gehieneko prezioa.

Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeei jarraituz, ondoko taulan azaltzen ditugu erabiltzaileek ordaindu beharreko gehieneko prezioak, tipologiari eta bilakaerari erreparatuta.

Urtero, NGOIk, eta erreferentzia gisa hartuta aurreko gehieneko prezioa, zentro berekietako eta itunduetako erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifa zehazten du. Azterturiko aldirako, honakoak dira tarifa horiek:

Tokiaren erabiltzaileak eginiko batez besteko ekarpena adierazten du, inguruabar pertsonal eta ekonomikoei erreparatuta. Azterturiko aldian, batez besteko kuotak edo batez besteko ekarpenak honakoak izan dira:

arrek ez dutela sekula beren tokiarengatik ordainduko beren errentaren ehuneko 100.

Aurreko taulen arteko erlazioak aztertuta eta alderaketa orotan antzeman daitezkeen salbuespen eta mugak kontuan hartuta, are gehiago batez besteko balioekin jokatzeko denean, honako ondorioak atera behar ditugu:

- Toki bakoitzeko hileko gastuaren eta toki itunduen moduluaren arteko erlazioa. Ondoren, 2002 eta 2005 urteetarako, zentro berekietako gastuaren eta toki bakoitzeko moduluaren arteko erlazioa alderatu behar ditugu.

Ekitaldia	Toki bakoitzeko gastua	Modulua	Moduluaren gaineko gastua
2002	1.745,66	1.404,08	24
2005	2.678,49	1.550,67	73

Azterturiko urte guztietan, zentro berekietako toki bakoitzeko gastuak nabarmen gainditzen du toki bakoitzeko modulua; joera hori, gainera, gora egiten ari da, zeren eta 2002an ehuneko 24 izate-tik 2005ean ehuneko 73 izatera pasa baita. Horrenbestez, eta zerbitzuaren kalitateari buruzko analisia alde batera utzita, Nafarroako Gobernuaren 2005eko zuzeneko prestazioaren kostua ehuneko 73 gainditzen du Nafarroako Gobernuak berak toki bakoitzeko zentro itundu batean ordaintzen duen modulua.

Toki berekietako adierazlea	2002		2005	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Toki bakoitzeko gastua	1.745,66	100	2.678,49	100
Batez besteko tarifa	731,83	42	911,99	34
Batez besteko kuota	452,61	26	594,66	22

Hau da, zentro berekian, tokiaren gastuaren eta batez besteko tarifaren eta kuotaren arteko distantzia handitu egin da. 2002an tarifak gastuaren ehuneko 44 estaltzen zuen eta kuotak, berriz, ehuneko 20; 2005ean, ehuneko 20 eta ehuneko 9 estaltzen zuten, hurrenez hurren.

• Toki bakoitzak duen gastua/hileko modulua tarifa ertainarekin eta erabiltzaileak ordaindutako batez besteko kuotarekin alderatuta. Alderaketa hori egiteko, tarifaren eta kuotaren batez bestekoa kalkulatu da, laguntza behar dutenen tokiari eta baliatzen direnen tokiari erreparatuta. Alderaketa hori egiten da bai zentro berekietako tokiei bai zentro itunduetako tokiei erreparatuta.

Bestalde, kuotaren eta tarifaren arteko erlazioari dagokionez, 2002an kuotak tarifaren ehuneko 62 estaltzen zuen; 2005ean, ordea, ehuneko 65 estaltzen du; hau da, erabiltzaileak tarifa dela-eta egiten duen ahalegina edo ekarpena hiru puntu igo da.

Adierazlea. Toki itundua	2002		2005	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Batez besteko tokia	1.404,08	100	1.550,67	100
Batez besteko tarifa	1.010,15	72	1.133,57	73
Batez besteko kuota	543,93	39	689,30	44

Toki itunduetan, moduluaren eta tarifaren eta batez besteko kuotaren arteko distantziak antzeko mailari eusten dio bi ekitaldietan.

Azpimarratzekoa da, halaber, tarifak moduluaren ehuneko 70 baino gehiago estaltzen duela, eta kuotak haren ehuneko 40 baino gehiago. Zentro berekietan, portzentajeak ehuneko 35 eta 25 bitartekoak izan ziren.

Tarifaren eta kuotaren arteko erlazioari dagokionez, 2002an, kuotak tarifaren ehuneko 54 estaltzen zuen; 2005ean, ordea, ehuneko 61 estaltzen zuen. Horrenbestez, erabiltzailearen ekarpenak zazpi puntutan egin du gora; zentro berekietan, aldiz, igoera hiru puntutakoa izan da.

• Hileko gehieneko prezioaren, tarifaren eta kuotaren arteko erlazioa, baliatzen direnen eta laguntza behar dutenen tokietan. Horri buruz ondokoa adierazi beharra dugu:

Aideralzea-baliatzen direnen tokia	2002		2005	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Gehieneko prezioa	663,30	100	740,88	100
Tarifa	503,63	76	567,07	77
Kuota	377,73	57	447,35	60

Baliatzen direnen tokiei dagokionez, antzeko mailan mantentzen da bi ekitaldietan gehieneko prezioaren eta tarifaren eta kuotaren arteko distantzia; igoera hiru puntukoa izan da azken horretan.

Kuotaren eta tarifaren arteko erlazioa ehuneko 75 eta 79 da, hurrenez hurren. Igoera horrek ondorio bat berresten du; alegia, erabiltzaileak ahalegin edo ekarpen handiagoa egin duela 2005ean 2002an baino.

Adierazlea. Laguntza behar dutenen tokia	2002		2005	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Gehieneko prezioa	1.105,50	100	1.347,10	100
Tarifa	1.034,77	94	1.142,81	85
Kuota	552,01	50	693,24	51

Laguntza behar dutenen artean, tarifaren halako gutxitze bat antzeman da gehieneko prezioarekin alderatuta; kuota, berriz, antzekoa da.

Kuotaren eta tarifaren alderaketa ehuneko 53 eta 61 da. Berriz ere esan beharra dugu 2005ean erabiltzailearen ekarpena handiagoa izan dela.

Bestalde, baterako alderaketa eginik, antzemanen dugu laguntza behar dutenen tarifak gehieneko prezioaren ehuneko 90 inguru estaltzen duela; baliodunetan, berriz, ehuneko hori 76raino jaisten da. Kuotetan, ordea, ehuneko 50 dira laguntza behar dutenen kasuan eta ehuneko 60 baliatzen direnen kasuan.

#### X.5.2. Besteren zentroetako prezioak

Iturri desberdinetatik lorturiko informazioaren arabera, egoitza pribatueta ondoko batez besteko prezioak adierazi ahal ditugu:

2001erako, Inforesidencias elkarteak afiliaturiko egoitzen arteko batez besteko prezioa kalkulatu zuen; toki bakoitzaren prezioa 1.057 eta 1.387 euro artean egon zen hileko eta tokiko.

2003an, Negocios y Gestión Residencial aldizkariaren arabera, Espainiako egoitzetako gehieneko prezioak 1.000 eta 2.300 euro bitartekoak ziren toki bakoitzeko; Nafarroako prezioa 1.200 eurokoa zela zioen.

2005ean, Inforesidencias Elkartearen arabera, toki bakoitzeko batez besteko prezioa hileko 1.220 eta 1.572 bitartekoa izan zen. Batez besteko horren nabarmen gaintetik Madril eta Bartzelona hiriak daude; izan ere, haietan prezioak ehuneko 20 eta 10 handiagoak dira hurrenez hurren.

Azkenik, NGOik 2006. urteari buruz daukan erlazio batean, ondoko prezioak antzeman ditugu besteren egoitzetan:

- Laguntza behar duen batentzako tokia: 1.100 eurotik 2.365ra bitarte.

- Baliatzen direnen tokia: hileko 700 eta 1600 euro bitarte.

Aurreko prezio horiek ondokoekin lotu daitezke:

- 2005ean, honakoak NGOik besteren zentroetako egonaldietarako ematen dituen gehieneko laguntzak:

a) Laguntza behar duen batentzako tokia: hileko 751,68 euro bitarte.

b) Berez baliatzen den batentzako tokia: hileko 328,86 euro bitarte.

- 2005ean, Nafarroako batez besteko erretiro pentsioa hileko 750,25 eurokoa zen.

Informazioa dela eta antzeman ditugun muga guztiekin ere, ondoriozta dezakegu besteren egoitzetan laguntza behar dutenen tokien prezioak nabarmen gaintzen duela Nafarroako batez besteko erretiro pentsioa; baliatzen direnen tokietako prezio merkeagoa, ordea, batez besteko pentsio horrekin ordain daiteke.

Kasuan kasuko laguntza publikoak edukitzeko aukera kontuan hartuta, herritar batek baliatzen direnen tokien prezioaren tarte txikiena ordain dezake.

Logikoa den bezala, ez dira kontuan hartu kasuko erabiltzaileak eduki ditzakeen bestelako diru iturriak.

#### X.6. HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO TOKIEN BILAKAERA.

##### X.6.1. Egoitzetako tokiak

Ondoko tauletan hirugarren adinekoentzako egoitza tokien kopuruaren osaketa eta bilakaera aztertzen dugu, betiere foru komunitateko lurraldearen barruan eta irizpide jakin batzuen arabera.

Egoitzetako tokien guztizko kopuruaren bilakera honakoa izan da, kudeaketa motaren arabera:

Tokien kudeaketa	2002	2003	2004	2005
Berekia	398	395	459	439
Itundua (*)	906	906	940	935
Besterena	3.678	3.714	4.109	3.987
<b>Guztira</b>	<b>4.982</b>	<b>5.015</b>	<b>5.508</b>	<b>5.361</b>
Indizea	100	101	111	108
Zentro kopurua	74	74	75	73

(\*) Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko toki itunduak kanpo utzita



Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Azterturiko aldiak, egoitzetako tokien kopuruak ehuneko 8 egin du gora. Zentro kopuruak, berriz, nolabaiteko egonkortasuna izaten jarraitzen du.

- 2005ean, zentroak honela banatzen dira: Nafarroako Gobernuaren hiru zentro bereki, hama sei zentro itundu eta besteren 54 zentro.

- Nafarroako Gobernuaren toki berekiek<sup>(19)</sup> ehuneko 10 egin dute gora azterturiko aldiak; itunduek,

berriz, ehuneko 3, eta besterenek ehuneko 8.

- Zentroetako tokien batez besteko kopuruak honako bilakaera izan du: 67 toki 2002an eta 73 toki 2005ean.

- Tokien guztizko kopuruaren egiturak ezaugarri hauek dauzka: egoiliarren ehuneko 75 besteren zentroetan daude, ehuneko 17 zentro itunduetan eta ehuneko 8 zentro berekietan.

Tokien hartzailearen arabera –baliorduna nahiz lagundua–, aurreko zenbatekoa honela banatzen da:

Toki/zentro mota	2002		2003		2004		2005	
	Lagunduak	Baliatzen direnak	Lagunduak	Baliatzen direnak	Lagunduak	Baliatzen direnak	Lagunduak	Baliatzen direnak
Berekiak	171	227	246	149	271	188	263	176
Itunduak	864	42	864	42	898	42	920	15
Besterenak (*)	859	2.819	1.057	2.657	1.611	2.498	1.811	1.829
<b>Guztira</b>	<b>1.894</b>	<b>3.088</b>	<b>2.167</b>	<b>2.848</b>	<b>2.780</b>	<b>2.728</b>	<b>2.994</b>	<b>2.020</b>
Indizea	100	100	114	92	147	88	158	65

(\*) 2005ean, beteak soilik

Honakoak aipatu behar ditugu:

- Lagunduen tokiek ehuneko 58 egin dute gora azterturiko aldiak; baliordunen, tokiek, berriz, ehuneko 35 egin dute behera.

- Zentro berekietan, baliordunen tokiak nagusi ziren 2002an; 2005ean, ordea, kopuru handiena laguntza behar dutenena da.

- Itunetan, tokiak, funtsean, laguntza behar dutenenak dira –2005ean ehuneko 98 izan ziren–.

- Besteren zentroetan, 2002an baliordunen tokiek garrantzi handiagoa zuten, baina 2005ean bali-

ordunen eta lagunduen tokiak ia maila berean daude.

- Baliatzen direnen tokien egitura ehuneko 91n mantentzen da, besteren zentroetan, eta ehuneko 9 da zentro berekiak eta itunduak batuta. Laguntza behar dutenen tokiei dagokienez, proportzio hori, 2002an, ehuneko 45 eta 55 bitartekoa izan zen; 2005ean, berriz, ehuneko 60 eta 40 izatera iritsi zen, hurrenez hurren.

Nafarroako lurraldeen arabera, tokien guztizkoa, kudeaketa motaren arabera eta 2002 eta 2005 bitarteko alderaketa kontuan hartuta, ondoko taulan adierazitakoa da:

Eskualdea/mota	2002				2005			
	Berekiak	Itunduak	Besterenak	Guztira	Berekiak	Itunduak	Besterenak	Guztira
Ipar-mendebaldea	-	100	407	507	-	90	330	420
Ipar-ekialdea	-	17	328	345	-	20	297	317
Lizarrak	110	226	505	841	102	210	583	895
Tafalla	-	89	495	584	-	89	560	649
Tutera	-	129	584	713	-	121	713	834
Iruña	288	345	1.359	1.992	337	405	1.504	2.246
<b>Guztira</b>	<b>398</b>	<b>906</b>	<b>3.678</b>	<b>4.982</b>	<b>439</b>	<b>935</b>	<b>3.987</b>	<b>5.361</b>

(19) Santo Domingo (Lizarrak), El Vergel (Iruña), Centro Psicogeriatrico S. F. Javier (Iruña) eta Pabilioi Urdina (Iruña) –2003ra arte-egoitzei buruz ari da.

Aurreko taulatik ondoriozta daitezkeen iruzkin nagusiak ondokoei buruzkoak dira:

- Nafarroako lau eskualdek ez dute zentro berekirik. Eskualde guztiek, bi aldietan, toki itunduak eta besteren tokiak dauzkate.

- Aurreko lerrokatetako iruzkinen arabera, besteren tokiak nabarmen nagusitzen dira eskualde guztietan.

- 2005 eta 2002 bitarteko aldea negatiboa da ipar-mendebaldean eta ipar-ekialdean; gainerako eskualdeetan toki kopurua handiagoa da. Nabarmentzekoak dira Tuteran –ehuneko 17– eta Iruñean –ehuneko 13– izandako igoerak.

- Iruñeko eskualdeak toki guztien ehuneko 40 biltzen zituen 2002an; 2005ean, ehuneko 42 biltzen ditu. Toki berekiei begiratuta, ehuneko 75 biltzen ditu; itunduei dagokienez, ehuneko 40 inguru biltzen ditu.

- 2002an, Nafarroako eskualde guztietan, baliatzen direnen tokiak gehiago ziren laguntza behar zutenena baino; halere, 2005ean, Tafallako eskualdeak baizik ez zion erlazio horri eusten; gainerakoe-tan, laguntza behar dutenen tokiak gehiengoak dira.

Egoitzetako tokien guztizkoaren estaldura indizea, 65 urtetik gorako populazio nafarrari begiratu-ta, ondoren datorrena da:

Ekitaldia	Estaldura indizea	Indizea
2002	4,85	100
2003	4,86	100
2004	5,33	110
2005	5,17	107

65 urtetik gorako biztanle bakoitzeko tokien estaldura-indizea ehuneko 7 hazi da 2002 eta 2005 bitartean; 2005ean, 5,17 toki zen.

Plan gerontologikoak 65 urtetik gorako 100 persona bakoitzeko 5 toki aurreikusten zituen 2000. urterako; aurreikuspen horiek hona banakatzen ziren: 2 toki lagunduentzat eta 3 toki baliodunentzat. Helburu horiek azterturiko aldiarekin alderatuta, antzeman dugu oro har 2004.etik aurrerako planeko helburuak betetzen dira.

Laguntza behar dutenen eta baliatzen direnen tokien osaketari dagokionez, ondoko taulan lortu-tako indizeak aztertzen ditugu:

Tokiak	2002	2003	2004	2005 (*)
Lagunduak	1,84	2,10	2,69	2,89
Baliatzen direnak	3,01	2,76	2,64	1,95

(\*) betetako tokien gainean

Horrenbestez, planaren aurreikuspenek 2 toki ezartzen zituzten laguntza behar dutenentzat eta 3 baliatzen direnentzat; 2005ean, proportzioa ia alderantzizkoa da, zeren eta 3 toki baitaude laguntza behar dutenentzat eta 2 baliatzen direnentzat.

Nafarroako eskualde geografikoen arabera, ezin izan dugu berariaz identifikatu 2004. urterako tokien estaldura indizea. Ondoren adierazten dena da:

Eskualdeak	2004ko estaldura indizea
Ipar-mendebaldea	4,81
Ipar-ekialdea	6,53
Lizarra	5,91
Tafalla	6,25
Tutera	4,87
Iruñerria	5,09
Nafarroako erdialdea	5,33

Horrenbestez, ipar-mendebaldea, Tutera eta Iruñerria Nafarroako batez bestekoaren azpitik daude. Azpimarratzekoa da, halaber, ipar-ekialdearen eta Tafallaren indize handia.

Azkenik, 2004. urterako Nafarroako egoera Espainiako batez bestekoarekin, autonomia erkidego mugakideekin, gainerako autonomia erkidegoetako gehieneko eta gutxieneko balioekin eta gure Europako ingurune herrialde jakin batzuekin alderatzen dugu. Datu horiek Menpekotasunei buruzko Liburu Zuritik lortu ditugu.

	2004ko estaldura indizea	Indizea
Espainiako batez bestekoa	3,78	71
Nafarroa	5,33	100
Aragoi	4,46	84
Gaztela eta Leon (gehienekoa)	6,12	115
EAE	3,90	73
Errioxa	4,71	88
Galizia (gutxienekoa)	2,08	39

Horrenbestez, Nafarroak nabarmen gainditzen du batez besteko nazionala eta autonomia erkidego guztiak, Gaztela eta Leon izan ezik. Autonomia erkidegoen hurrenkeran, bigarren lekua betetzen du aipatutako azken horren atzetik.

Nazioartean alderatuta honako hau nabarmendu dugu:

	2004ko estaldura indizea	Indizea
Espainiako batez bestekoa	3,78	71
Nafarroa	5,33	100
Frantzia	6,7	126
Holanda	9,0	169
Alemania	4,1	77
Danimarka	13,0	244

Hau da, alderatutako herrialde guztiek Espainiako batez bestekoa gainditzen dute, batzuetan nabarmen; Nafarroako indizea, ordea, Alemaniako batez bestekoaren gainetik dago.

### X.6.2. Eguneko zentroetako tokiak

Ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko eguneko zentroetako tokien osaketa eta bilakaera aztertzen dugu.

Eguneko zentroetako tokien guztizko kopuruaren bilakaera honakoa izan da, kudeaketa motaren arabera:

Tokien kudeaketa	2002	2003	2004	2005
Berekia	50	45	42	43
Itundua	71	71	91	91
Besterena	194	162	171	203
Guztira	315	278	304	337
Indizea	100	88	97	107
Zentro kopurua	16	11	16	19

- Azterturiko aldiari, eguneko zentroetako tokien kopuruak ehuneko 7 egin du gora. Eguneko tokiak dituzten zentroen kopuruak hirutan egin du gora.

- 2005ean, tokiak dituzten zentroak honela banatzen dira: Nafarroako Gobernuaren bi zentro bereki, lau zentro itundu eta besteren 13 zentro.

- Nafarroako Gobernuaren toki berekiek ehuneko 14 egin dute behera azterturiko aldiari; itundu-

ek, berriz, ehuneko 28 egin dute behera, eta besterenak ehuneko 5 hazi dira.

- Toki guztien ehuneko 60 inguru Iruñerrian daude. Halaber, toki bereki guztiak eskualde horretan eskaintzen dira.

- Zentroetako tokien batez besteko kopuruak honako bilakaera izan du: 20 toki 2002an eta 18 toki 2005ean.

- Tokien guztizko kopuruaren egitura, 2002an eta motaren arabera, honakoa da: tokien ehuneko 62 besteren zentroetan eta ehuneko 38 zentro berekietan eta itunduetan; 2005ean, kopuru horiek ehuneko 60 eta 40 dira, hurrenez hurren.

Eguneko zentroetako tokien guztizkoaren estaldura indizea, 65 urtetik gorako populazio nafarrari begiratuta, ondoren datorrena da:

Ekitaldia	Estaldura indizea	Indizea
2002	0,31	100
2003	0,27	87
2004	0,29	94
2005	0,33	106

65 urtetik gorako biztanle bakoitzeko eguneko zentroetako tokien estaldura-indizea ehuneko 6 hazi da 2002 eta 2005 bitartean; 2005ean, 0,33 toki zen.

Beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta, 2004ko ekitaldiko datuekin, eguneko zentroko aurreko tokiei eguneko egonaldietakoak gehitu behar zaizkie, zeren eta eskura daukagun konparaziozko informazio guztiak bi kontzeptu horiek batera hartzen baititu. Informazio horren arabera, Nafarroako egoera Espainiako batez bestekoarekin, autonomia erkidego mugakideekin eta gainerako autonomia erkidegoetako gehieneko eta gutxieneko balioekin alderatzen dugu. Datu horiek Menpekotasunei buruzko Liburu Zuritik lortu ditugu.

	2004ko estaldura indizea (Eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak)	Indizea
Espainiako batez bestekoa	0,46	96
Nafarroa	0,48	100
Aragoi	0,34	71
Gaztela eta Leon	0,35	73
EAE	0,55	115
Emioxa	0,48	100
Katalunia (kopuru handiena)	0,95	198
Galizia (gutxienekoa)	0,18	38

(20) El Vergel egoitza eta Xabierko San Frantzisko zentro psikogeriatrikoa, biak Iruñean.

Horrenbestez, Nafarroa tarteko egoera batean dago gainerako autonomia erkidegoekin alderatuta.

#### X.7. ZAHARRENTZAKO ZENTROETAKO ITXARON ZERRENDAK.

Itxaron zerrendan eskatutako tokien kopuruaren xehetasunak baino lehen, komeni da azaltzea behin tokiaren eskaria onartu eta ondoren, kasuko pertsonarengan biltzen diren alderdi sanitarioen eta sozialen balorazio bat egiten da, eta puntuazio bat ematen zaio. Puntuazio hori da, eta ez eskariaren antzintasuna, gero tokiak esleitzeko garrantzia duen irizpidea.

Ondoko taulan, itxaron zerrendan dauden tokien kopuruaren bilakaera ikusten dugu –aurkeztu eta onartutako eskariak–, hirugarren adinekoentzako laguntza-baliabide guztietarako, azterturiko lau urteetan:

Ekitaldia	Zentroetako itxaron zerrendak	Indizea
2002	604	100
2003	310	51
2004	405	67
2005	412	68

Horrenbestez, azterturiko aldirian, itxaron zerrendan dauden eskari onartuek ehuneko 32 egin dute behera. Azpimarratzekoa da, halaber, 2003tik 2002ra izan den gutxitzea, ia erdirainokoa.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da 2005eko abenduaren 31n guztira 252 toki harrera-prozesuan daudela, dokumentazio gehiago eskatu delako, eta baloratu gabe daudela.

Aipatu itxaron zerrendak, irizpide batzuen arabera zatitzen dira:

Presakoak direnak eta presakoak ez direnak. Lortutako puntuazioari erreparatua, presakotzat jotzen dira, lagunduen kasuan, 90 puntu baino gehiagoko puntuazio soziala dutenak, eta baliodunen kasuan, 80 puntu baino gehiago dutenak. Honakoa da presako tokiek izan duten bilakaera:

Ekitaldia	Itxaron zerrendak-presakoak	Indizea
2002	188	100
2003	127	68
2004	66	35
2005	52	28

Hau da, presakoen itxaron zerrendetan izan den gutxitzea –2005ean ehuneko 72, 2002rekin alderatuta–, handiagoa da itxaron zerrenden guztizkoan izandakoa baino. 2005eko abenduaren 31n, presakoak ziren 52 tokietatik, 20 laguntza behar dutenen tokiak dira, 18 baliodunenak eta gainerakoak mota desberdinetakoak; atxikipen geografikoaren arabera, ia ehuneko 60 Iruñerrian daude, eta ehuneko 23 Lizarra aldean.

Toki motaren arabera, honako bilakaera gertatu da:

Toki mota	2002	2003	2004	2005
Lagunduak	217	180	214	213
Baliatzen direnak	334	79	137	144
Eguneko zentroa	33	27	30	27
Psikogeriatrikoa	20	22	11	12
Bestelakoak	-	2	13	16
Guztira	604	310	405	412

Hau da, itxaron zerrenden ehuneko 85 inguru laguntza behar dutenen eta baliatzen direnen tokiak dira. Azpimarratzekoa da, halaber, baliatzen direnen tokiek nabarmen gutxitu direla 2002tik 2005era –ehuneko 57–; lagunduen tokiak, berriz, bi ekitaldi horien artean ia berdin mantendu dira.

Banaketa geografikoari dagokionez, 2005eko itxaron zerrenda honela azal daiteke eskualdeka:

Eskualdeak	Zenbat
Lizarra	36
Ipar-mendebaldea	16
Ipar-ekialdea	5
Tafalla	18
Tutera	34
Iruñerria	303
Guztira	412

Hau da, itxaron zerrendetako tokien ehuneko 74 Iruñerrian daude.

Azkenik, txaron zerrendan dagoen jendea 65 urtetik gorako Nafarroako populazioaren guztizkoarekin alderatu dugu.

Ekitaldia	65 urteko > > populazioa	Itxaron zerrendak	Ehunekoa
2002	102.730	604	0,59
2003	103.200	310	0,30
2004	103.382	405	0,39
2005	103.637	412	0,40

Hau da, Nafarroako 65 urtetik gorako populazioaren guztizkoan, itxaron zerrendak 2002an ehuneko 0,59 izatetik 2005ean ehuneko 0,40 izatera pasa dira.

### XI. GEHIGARRIA. EZGAIUAK

Gehigarri honetan, funtsean, ondoko gaiak aztertzen dira:

- Ezgaituen arloko aurrekontu-gastuaren bilakaera.
- Itunak.
- Banakako prestazio ekonomikoak.
- Kostua/gastua eta toki bakoitzeko sarrera alderatzea, ezgaituentzako egoitzetan.
- Ezgaituentzako tokien bilakaera.
- Ezgaituentzako egoitzetako itxaron zerrendak.
- Lanerako prestatzeko zentroak.

### XI.1. EZGAIUEN ARLOKO AURREKONTU-GASTUAREN BILAKAERA

III. eta IV. gehigarrietan adierazitakoaren osagarri, ezgaituentzako bideraturiko aurrekontu-gastuak eta aipagarriak diren gainerako adierazle-en multzoa ondoko taulan islatzen dira, honakoetatik abiatuta:

- 2002tik 2004ra bitarteko aldian, gastu horiek “ezgaituak” berariazko programan jasotzen dira; 2005ean, ordea, funtsean “laguntza soziosanitarioa” eta “boluntarioak, elkarteak eta programak” programetan sartzen dira; azken horiek hirugarren adinekoentzako eta ezgaituentzako gastua batera biltzen dituzte. Horrenbestez, ezgaituentzat bideraturiko gastuaren kalkulu bat egin behar izan dugu.

- 2005eko azaroan, programak berritasun bat dakar, laguntza psikosozialerako (buruko nahaste larria) 230 toki sortu baitziren. Kontzeptu berri horrengatik ekitaldi horri egotzitako gastuak 0,24 milioi euro egiten du.

- Ez dira sartzen inbertsio gastu aipagarrienak, zeinak departamentuaren barreneko programei egotzen zaizkien.

Aurrekontu gastuaren bilakaera (2002-2005)

Ekitaldia	Ezgaituen arloko gastuak (euroak, milioitan)	NGOren guztizko gastuen gaineko ehuneko	Ezgaituentzako gastuen ehunekoa Nafarroako BPGaren gainean	Minusbaliatuen populazioaren gaineko per capita gastua (eurotan)
2002	21,80	20	0,17	781,86
2003	23,54	19	0,18	813,22
2004	23,68	18	0,17	775,69
2005	28,12	25	0,18	897,09

Haiek irakurrita, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

- Azterturiko aldian, ezgaituentzako aurrekontu-gastuek ehuneko 29 egin dute gora; igoera hori progresiboa da azterturiko lau urteetan. Euro konstantetan, 2002 eta 2005 bitarteko igoera ehuneko 17koa izan da.

- NGOren aurrekontuei dagokienez, gastuek garrantzi erlatiboa galdu dute 2004ra arte; hala eta guztiz ere, 2005ean igoera nabarmena izan dute, NGOren gastuen ehuneko 25era iritsi baitira.

- Nafarroako BPGarekin alderatuta, 2005ean 2003ko balioak berreskuratu dira, ehuneko 0,18 hain zuzen.

- Minusbaliotasuna dutenen guztizko populazioaren gaineko per capita gastuak ehuneko 15 egin du gora 2002tik 2005era. Euro konstantetan, igoera ehuneko 4koa izan zen.

Bestalde, azpimarratzekoa da minusbaliotasunen zentsuan sartzen direla baldintza hori aitortuta daukaten guztiak, daukaten adina alde batera utzita. Ondoko taulan, halere, zentsu hori bitan zatiturik ageri da: 65 urtetik beherakoak batetik eta 65 urtetik gorakoak bestetik.

Ekitaldia	Minusbaliotasuna dutenen zentsua	65 urtetik beherakoa	65 urtetik gorakoa
2002	27.882	16.656	11.226
2003	28.941	16.826	12.115
2004	30.525	17.303	13.222
2005	31.346	18.002	13.344

Antzematen da bi taldeetan antzeko igoera bat gertatu dela; izan ere, 65 urtetik beherako populazioa ehuneko 8 hazi da; 65 urtetik gorakoen igoera, berriz, ehuneko 19koa izan da.

## XI.2. ITUNAK

Honakoak aipatu behar ditugu:

### XI.2.1. Ituntzeko irizpideak

Egoitzetako tokiak ituntzeko irizpideak ez dira berariaz jasotzen. Behin ituntzeko erabakia hartu ondoren eta esparru jakin horretan tokietako beharrak eta proiektuaren ezaugarriak kontuan hartuta, bidezkoa da kontratatzeko prozesuari ekitea, eta prozedura negoziatua aplikatzea titulartasun publiko egoitzetan eta lehiaketa, berriz, titulartasun pribatuko egoitzetan.

Itunak titulartasun publikoa eta kudeaketa pribatua duten entitateei eta titulartasun eta kudeaketa pribatuko entitateei aplikatzen zaizkie.

### XI.2.2. Itunen kopuruaren eta haietarako aurrekontu-gastuaren bilakaera (2002-2005)

Hirugarren adinekoen kasuan bezala, ezgaituentzako laguntzaren arloko itunetarako aurrekontu-gastua zehazterakoan, eragina du itun horiek erregistratzerakoan aplikatzen den kontabilitate-irizpideak: NGOIk itunen aurrekontu-gastu gisa kontabilizatzen du haien zenbateko garbia, hau da, hari zentro bakoitzeko erabiltzaileek ordaindutako kopurua kendu eta ondorengoa, betiere toki horren eskaria onartzeko NGOIk eginiko kalkuluen arabera.

Aurreko lerrokada kontuan harturik, ondoko taulan islatzen dira ezgaituentzako laguntzarako itunen kopurua eta haietatik ondorioztatzen den aurrekontu gastua:

Ekitaldia	Itundutako entitateen kopurua	Itunetan eginiko gastu garbia (euroak, milioitan)	Indizea	Ezgaitasunaren arloko guztizko gastuaren gaineko %
2002	5	12,76	100	59
2003	6	13,62	107	58
2004	6	14,94	117	63
2005	6	16,96	133	68

Hau da, itunen kopuruak ia lehengo mailari eusten dio aldi osoan; itunak egoitza gisako, eguneko zentroko erako edo pisu funtzional erako laguntza araubidea duten 17 zentrotan egiten dira. Zentro horiek titulartasun publikoa eta kudeaketa pribatua dutenak eta titulartasun pribatua eta kudeaketa pribatua dutenak dira.

Gastu garbiari dagokionez, ehuneko 33 egin du gora, prezioen igoerari buruzko tasak izan duen igoera –ehuneko 9,8– baino askoz gehiago. Gastuaren handitze hori justifikatzen da, aurrerago aztertuko den bezala, toki itunduen kopuruak izan duen igoerarekin.

Itun horiek azterturiko aldiaren gorantz doan ehuneko bat egiten dute ezgaitasunaren arloko gastuen guztizkoan; 2005ean, gastu guztiaren ehuneko 68 egiten dute.

2005eko itunen kudeaketari buruz, ondoko alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Itunen berritzea ez da beti behar bezain azkar egiten; urtebete bitarteko atzerapenak antzematen dira izapidetu bitartean.

- NGOIk behin baino gehiagotan eskatu du Ramón y Cajal zentroarekin sinaturiko ituna amaiarazteko, antzemandako desokupazio ehuneko handia –toki itunduen ehuneko 24– eta inguruabar horrek institutu horri ekarriko liokeen kostua ikusit –toki bakoitzeko moduluaren kostuan ehuneko 95–.

- 2005eko amaieran, errehabilitazio psikosozialeko (buruko nahaste larria) lau zentro publikoen kudeaketa itundu zen, guztira 230 tokitarako.

• 2005eko maiatzaren 2an, ezgaituei laguntza ematen dieten zentro publiko itunduetako hitzarmen kolektiboa sinatu zen; haren bidez, 2005etik 2008ra titulartasun publikoko zentroak kudeatzen dituzten enpresetako langileen lan baldintzak arautu ziren. Hitzarmen horrek enpresa desberdinetan eta haien langileengan eragina badu ere, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen du hark izenpeturiko itunduetan duen eragin ekonomikoa; haren indarraldirako, kostua 5,47 milioi eurokoa izanen da. 2005ean, kostu erreala 0,71 milioi eurokoa izan zen.

Oro har, itunetatik eratorritako kopuru horiek itunpeko egoitzei ordaintzen zaizkie bi hilez behin, aurreko sei hilekoaren azken egunean zegoen okupazio mailaren arabera, eta sei hilez behin erregulartzatzen dira, betetze errearen arabera.

NGOri bidali beharreko informazioei dagokienez, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehenago itundutako entitate horiek, eredu normalizatu erabiliz, ekitaldi bakoitzean garaturiko jardura islatuko duten oroitidazki tekniko eta ekonomikoa igorri beharko dute. Informazio horrekin analizatu nahi da, funtzionamenduari buruzko ebaluazio orokor bat gorabehera, toki bakoitzeko enplegatuen modulua betetzen ote den (horren emaitzak XIV. gehigarrian azaltzen dira). Ez dago jasota berrikuspen horiek egiteko idatzizko prozedura normalizatu bat dagoenik.

Prestazio mota	Batez besteko modulua (eurotan)		Aldea (%) 2005/2002
	2002	2005	
Egoitzetako tokiak	29.424,01	35.082,41	19
Eguneko zentroa	13.364,85	16.761,04	25
Etxebizitza funtzionalak	12.354,17	14.148,76	15

Hau da, aztertutako aldiak, itunetako batez besteko prezioek igoera aldakorra izan dute; nabarmenagoa da eguneko zentroaren moduluen kasuan. Egoitza tokietako moduluen igoera handiagoa da aldi horretako KPIaren igoera baino –ehuneko 9,8–.

Toki. Kop.	2002	2003	2004	2005	Aldaketaren %, 2005/2002
Egoitzetako tokiak	383	396	436	436	14
Eguneko zentroak	183	198	198	198	8
Etxebizitza funtzionalak eta beste	84	101	101	101	20
<b>Toki itunduak, guztira</b>	<b>650</b>	<b>695</b>	<b>735</b>	<b>735</b>	<b>13</b>

### XI.2.3. Itunetan aplikatzekoa den modulua eta haren bilakaera (2002-2005)

Moduluaren finkatzea ituntze prozesu bakoitzeko zehazten da itundu beharreko proiektuaren kostuen ezaugarrien eta egituraren arabera.

Aurrekoaren ondorio gisa, heterogeneotasun bat dago moduluen zenbatespenean, zeren eta, jarraitutako ituntze prozesuaz gainera, kontuan hartu behar baitira bai emandako zerbitzuaren izaera (eguneko zentroa, egoitza toki edo pisu funtzionala) bai ezgaitasun mota. Hala eta guztiz ere, NGOik epe ertainera joera bat markatu du modulu horren zenbatespenean homogeneotasuna lortzeko.

Zenbatespen zehatza txosten ekonomikoen baten bitartez gauzatzen da; bertan, kontuan hartzen dira, funtsean, plegu zehatzean ezarritako baldintzez gainera, langileria gastuan duten eragina, itundutako zerbitzuaren estaldura, zerbitzu-ematean eragina duten gainerako gastuak eta beste zentro batzuekin alderatuta kostuek daukaten egitura; oro har, langileriaaren kostuek moduluen zenbatespenean ehuneko 80 egiten dute. Ez da jasota ageri zenbatespen prozesu hori jasoko duen idatzizko prozedurarik.

Aurreko iruzkinak kontuan hartuta, ondoren erakusten dugu 2002tik 2005era bitarte aplikaturiko batez besteko moduluen bilakaera:

### XI.2.4. Itundutako tokiei buruzko eta haien bilakaerari buruzko azterketa

Ondoko taulan, itundutako tokien bilakaera erakusten dugu, betiere egoitzetako tokiak, eguneko zentroak eta etxebizitza funtzionalak bereiziz.

Hau da, itundutako tokien guztizkoa ehuneko 13 handitu da aldi horretan; azpimarratzekoa da pisu funtzionalei dagokien igoera. Tokien ehuneko 60 egoitzako tokiak dira. Egonkortasun bat antzeman dugu, halaber, 2004ko eta 2005eko ekitaldietan guztira itundutako tokietan.

Atxikipen geografikoaren arabera, Iruñerriak itundutako toki guztien ehuneko 70 biltzen ditu 2005ean.

Toki itunduen okupazio-mailari dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

- Nolabaiteko dispersioa antzeman bada ere, oro har egoitza tokietan ehuneko 100aren ingurukoa da; indize horren balio txikiagoak eguneko zentroetan lortzen dira.

- Kontratazio pleguetan ezarritakoaren arabera, NGOik moduluaren eguneko bat ordainduko du bete gabeko modulu bakoitzeko; normalean, ehuneko 80 izaten da, baina kasuren batean ehuneko 95eraino iristen da. Ehuneko hori normalizatu daiteke itun guztietan, zentro bakoitzeko kostu finkoak abiapuntu hartuta.

### XI.3. EZGAIUENTZAKO BESTEREN ZENTROETAN EGOTeko LAGUNTZA EKONOMIKO-AK

#### XI.3.1. Laguntza horien ezaugarri orokorrak

Laguntza horien xedea da ezagaitasunen bat izan eta beren inguruabar sozial, familiar eta pertsonalengatik ingresatuta egon beha dutenen laguntza bideratzea foru erkidegoko administrazio-arenak ez diren zentroetan, betiere foru baliabide publikorik ez dagoenean.

Oro har, laguntza hauek bideratzen dira foru erkidegoaz kanpoko egonaldiak diruz laguntzera; aparteko kasuetan, ordea, Nafarroa barreneko egoitzetako egonaldietarako eman ahalko zaizkie pertsona batzuei.

Laguntza hauen hartzaileak diren pertsonen honako diagnosiak dituzte, batez ere:

- Buruko gaixotasuna
- Buruko atzerapena gehi buruko gaixotasuna
- Buruko atzerapena gehi jokabide arazoak

Laguntza horiek, normalean, asistentzialak dira, nahiz eta beste prestazio batzuetara ere zabal daitezkeen; esate baterako eguneko zentro-etara.

Laguntzak hileko prestazio ekonomikoak dira; haien gehieneko zenbatekoa foru agindu bidez finkatzen da. Hartara, 2005erako hileko 1.714,55

euro dira. Emandako laguntzaren zenbatekoa egoitzaren kostuaren eta eskatzailearen errentaren arabera modulatu da.

Laguntza horiek jasotzeko honako baldintzak bete behar dira:

- Ehuneko 33ko edo gehiagoko minusbaliotasuna duten pertsonak.
- Barneratze-araubidean lagunduak izateko behar errealak dutenak.
- Familiarik ez dutenak edo laguntza jasotzeko zailtasunak ematen dituen familia-egoera dutenak.
- Egonaldia ordaintzeko behar adina baliabide ekonomiko ez dutenak.

Zuzenean izapidetzen dira, oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez edo kasuko osasun etxeen bitartez.

Laguntza hauen berezitasuna da onuradunari zuzenean ordaintzen zaizkiola. Hori dela eta, neurrien multzo bat ezartzen da haien aplikazio egoia bermatzeko; hartara, laguntzak emateko fasean, hautaturiko zentroaren egonaldiaren kostua ordaindu behar da; hurrengo ekitaldietarako, onuradunak bere dirusarreren ziurtagiriak, zentroaren kostua eta aurreko ekitaldiko ordainagiriak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Azkenik, azpimarratu beharra dago laguntza horien lege-euskarria Gizarte zerbitzuen arloko banakako eta familiariko prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretua dela. Gainera, arau horrek, III. kapitulu- an, zeharkako laguntzak ezartzen dituela zentro itunduetarako, ez besteren zentroetarako.

Bestalde, aipatu foru dekretuan, 13. artikulua ezartzen du urtero eta foru agindu bidez egonaldi itunduetarako laguntzen zenbatekoa ezarriko dela. Hartara, urriaren 19ko 56/1998 foru dekretuak laguntza horien gehieneko zenbatekoa finkatzen zituen, 1998ko urriaren 1etik aurrera aplikatu beharrekoa. 2005.era arte, jasota dagoenaren arabera, ez da zenbateko hori gaurkotu; urte horretan, gaurkotzea 21/2005 foru aginduaren bitartez ezarri zen. Izan ere, foru agindu horrek zenbatekoak ezarri zituen baina soilik besteren zentroetako egonaldiak laguntzeko.

#### XI.3.2. Aurrekontu informazioa (2002-2005)

Lortutako informazioa oinarri hartuta, ondoko taulan laguntzen guztizko kopuruaren, onuradunen kopuruaren eta haien batez besteko zenbatekoaren bilakaera erakusten ditugu.



Ekitaldia	Laguntzen guztizko zenbatekoa (euroak, milioitan)		Onuradunak	Hileko batez besteko laguntza (eurotan)	
		Indizea			
2002	0,72	100	73		823
2003	0,76	106	78		814
2004	0,84	114	70		999
2005	0,94	130	75		1.044

Hau da, laguntzen guztizko kopuruak ehuneko 30 egin du gora azterturiko aldirian; onuradunen kopuruak, berriz, lehengo terminoetan dirau, gutxi gorabehera. Logikoa den bezala, hileko batez besteko laguntzak ehuneko 27 egin du gora.

Onuradunen ehuneko 84 inguru foru lurraldeaz kanpoko egoitzetan ingresaturik daude, gehienak Gaztela eta Leongo erkidegoan.

#### XI.4. TOKI BAKOITZEKO GASTU/KOSTUAREN ETA DIRUSARRERAREN ALDERAKETA, EZGAITUENTZAKO. 2002-2005 ALDIKO BILAKAERA.

IX. gehigarrian kontzeptu horiei buruz eginiko gogoeta metodologikoak kontuan hartuta, ondoren toki bakoitzeko gastu/kostua eta harengatik dirusarrera aztertzen ditugu.

Ekitaldia	Egoitza toki baten gastua (eurotan)		Etxebizitza funtzional bateko toki baten gastua (eurotan)		Indizea
		Indizea		Indizea	
2002	2.129,29	100	1.189,68	100-	
2003	4.041,75	190	1.848,82	155	
2004	n.d.	-	n.d.	-	
2005	4.648,84	218	2.629,78	221	

Horrenbestez, 2002 eta 2005 bitarte, egoitza toki bakoitzeko hileko gastuak, Nafarroako Gobernu zentro berekietan, ehuneko 118 egin du gora; etxebizitza funtzionaletarako, igoera ehuneko 121ekoa izan da. Bi ekitaldietan tokien kopuruari eusten zaio. Aurreko gastuen oinarritzko osagai gisa, langile gastuek ehuneko 90 egiten dute egoitza-tokietan eta ehuneko 80 etxebizitza funtzionaleko tokietan.

Igoera horiek, funtsean, ondokoei zor zaizkie:

- Egoitzetako tokiak:

a) Langile gastuak ehuneko 13 inguru igo dira; termino konstantetan igoerak ehuneko 6 egiten du.

b) Zuzeneko gastuen aurrekontu-egozpen egoikiagoa, bereziki langile gastuei dagokienez.

#### XI.4.1. Zentro berekiak

NGOIk gastu hori honela kalkulatu du: zentro bakoitzeko aurrekontu administratiboak, hari zuzenean atxikitako aurrekontu gastuak zehaztuz –funtsean, langileei, ondasun arruntei eta zerbitzuei eta NGOIk eginiko inbertsioei dagokie–, zati tokien kopurua. Aurrekontu gastuaren izaera kontuan hartuta, ez da sartu zama orokorren zati proportzionala edo zeharkako kostuak, ez eta instalazioen amortizazioa ere.

Ondoko taulan erakusten da toki bakoitzeko hileko batez besteko gastua eta haren bilakaera, kontuan hartuz ezin izan dela zehaztu 2004koa, langileen gastu berariazkoiei buruzko informazioa ez izateagatik, nominak kudeatzeko sistema informatikoa aldatu delako.

c) Inbertsio gastuek gora egin dute –ia hirukoiztu dira 2005 eta 2003 bitarte–, San José egoitza egokitzearen ondorioz.

- Etxebizitza funtzionalak

a) Langile gastuak ehuneko 58 inguru igo dira; termino konstantetan igoerak ehuneko 48 egiten du. Igoera hori, NGOIn adierazitakoaren arabera, funtsean ondokoan oinarritzen da: langile gastuak hobeki egotzi dira, nominetarako aplikazio berri bat ezarri baita.

Ondoko taulan, egoitza tokiei dagokienez, aurreko gastuak, tarifa eta erabilzaileak ordaindu-tako kuota alderatzen ditugu.

Egoitza toki berekietako adierazlea	2002		2005	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Toki bakoitzeko gastua	2.129,29	100	4.648,84	100
Batez besteko tarifa	942,26	44	927,61	20
Batez besteko kuota	431,18	20	434,53	9

2002an tarifak gastuaren ehuneko 44 estaltzen zuen eta kuotak, berriz, ehuneko 20; 2005ean, ehuneko 20 eta ehuneko 9 estaltzen zuten, hurrenez hurren. Horrenbestez, gastuaren eta tokiaren tarifaren arteko distantzia areagotu egin da.

Bestalde, kuotaren eta tarifaren arteko erlaziorari dagokionez, 2002an kuotak tarifaren ehuneko

46 estaltzen zuen. 2005ean, ordea, ehuneko 47 estaltzen du; hau da, erabiltzaileak tarifa dela-eta egiten duen ahalegina edo ekarpena puntu bat igo da.

Etxebizitza funtzionalarako tokien aurreko alderaketa ondoko taulan adierazi dugu:

Etxebizitza funtzionaleko toki berekiaren adierazlea	2002		2005	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Toki bakoitzeko gastua	1.189,68	100	2.629,78	100
Batez besteko tarifa	336,52	28	361,88	14
Batez besteko kuota	229,40	19	266,87	10

Hau da, etxebizitza funtzionalean, tokiaren gastuaren eta tarifaren eta kuotaren arteko distantzia handitu egin da. 2002an tarifak gastuaren ehuneko 28 estaltzen zuen eta kuotak, berriz, ehuneko 19; 2005ean, ehuneko 14 eta ehuneko 10 estaltzen zuten, hurrenez hurren.

Bestalde, kuotaren eta tarifaren arteko erlaziorari dagokionez, 2002an kuotak tarifaren ehuneko 68 estaltzen zuen; 2005ean, ordea, ehuneko 74 estaltzen du; hau da, erabiltzaileak tarifa dela-eta egiten duen ahalegina edo ekarpena sei puntu igo da.

#### XI.4.2. Itunpeko zentroak

Zentro itunduetako tokien batez besteko kostu erreala zehazteko muga eskura izan dugun informazioa izan da. Hartara, 2002tik 2004ra bitarte, NGOIk duen informazioa toki bakoitzaren batez

besteko kostu garbiari dagokiona da; hau da, toki hori egiazki kostatzen zaiona behin erabiltzailearen ekarpena kendu ondoren. Ezin izan dugu informazio hori xehakatu, alde batetik tokiaren kostu erreala lortzeko eta bestetik erabiltzaileak benetan ordaintzen duena. 2005erako, halere, xehakatzeko hori badago.

Horrenbestez, egindako lanean hauexek egin dira: alde batetik, toki itunduek NGOIrentzat egiten duten kostu garbiaren 2002-2005 bilakaera aztertzea, eta, bestetik, 2005. urterako, toki horien kostu erreala eta erabiltzaileak ordaindutako tarifa eta kuota.

Toki itunduek NGOIrentzat egiten duten hileko kostu garbiaren bilakaera (kostu erreala ken erabiltzailearen kuotak edo ekarpenak) ondoko taulan azaltzen dugu:

Postu-mota	2002	2003	2004	2005	% Aldak. 2005/2002
Egoitza	1.896,86	1.926,95	2.076,95	2.465,27	30
Etxebizitza funtzionala	703,81	858,23	922,21	979,04	39
Eguneko zentroa	1.088,40	1.155,73	1.205,24	1.299,42	19

Hau da, toki itunduen hileko kostu garbiak ehuneko 30 egin du gora 2005 eta 2002 artean egoitzetako tokien kasuan, ehuneko 39 etxebizitza funtzionalen kasuan eta ehuneko 19 eguneko zentroen kasuan.

Mota	Hileko kostua	Tarifa	Tarifa/kostua (%)	Kuota	Kuota kostua (%)	Kuota/tarifa (%)
Egoitza	2.865,87	927,61	32	400,60	14	43
Etxebizitza funtzi onala	1.188,67	361,88	30	209,63	18	58
Eguneko zentroa	1.526,63	121,26	8	89,79	6	74

Ikus daitekeen bezala, tarifek egoitzetako toki-en hileko kostuaren ehuneko 30 inguru estaltzen dute, eta ehuneko 8 eskasa eguneko zentroen kasuan; kostua kuotarekin alderatuz gero, ehuneko 14, 18 eta 6 egiten dute hurrenez hurren.

Mota	Hileko gastua zentro berekietan	Hileko kostua zentro itunduetan	Gastua/kostua ehunekoa
Egoitza	4.648,84	2.865,87	62
Etxebizitza funtzionala	2.629,78	1.188,67	121

Horrenbestez, egoitza toki bateko kostuak, zentro berekietan, ehuneko 62 gainditzen du zentro itunduko tokia; etxebizitza funtzionalen kasuan, ehuneko 121 da.

#### XI.5. EZGAIUENTZAKO TOKIEN BILAKAERA

Ezgaituentzako toki kopuruaren bilakaera, 2002 eta 2005 bitartean, ikuspegi desberdinetatik aztertu dugu:

Zentroaren titulartasunaren arabera. Horretarako, honakoa adierazi behar dugu aurretik:

- Nafarroako Gobernuaren zentro berekiak: San José egoitza eta Lur Gorri etxebizitza, biak Iruñerrian.

- Ikastetxe itunduak: titulartasun publikoa eta kudeaketa pribatua duten zentroak eta zentro pribatuak.

- Besteren toki diruz lagunduak: NGOik zuzenean diruz lagundutako tokiak besteren zentroetan.

Tokien kudeaketa	2002	2003	2004	2005
Berekia	91	91	91	91
Itundua	650	695	735	735
Kanpokoak, diruz lagunduak	60	60	92	92
Guztira	801	846	918	918
Indizea	100	106	115	115

2005eko ekitaldiari dagokionez, ondoren hileko guztizko kostua, tarifa eta erabiltzaileak ordaindutako kuota alderatzen ditugu.

Kuota tarifarekin alderatuta, ehuneko 50 inguru egiten du egoitzetako eta etxebizitza kasuan, eta ehuneko 74 eguneko zentroetan.

Azkenik, 2005. urteari dagokionez, toki itundutako hileko guztizko kostua eta zentro berekietako hileko gata alderatu ditugu.

Haiek irakurrita, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

- Guztira dauden tokien kopuruak ehuneko 15 egin du gora azterturiko aldirian; hala eta guztiz ere, 2004tik 2005era ez da aldaketarik antzeman.

- Toki itunduek, ekitaldi guztietan, dauden toki guztien ia ehuneko 80 egiten dute, eta 2002tik 2005era ehuneko 13 hazi da.

- Toki berekiek lau ekitaldietan berdin mantendu dira.

- Diruz lagundutako tokiek ehuneko 53 egin dute gora.

Tokiaren izaerari dagokionez:

Tokien izaera	2002	2003	2004	2005
Egoitza zentroa	523	536	592	592
Eguneko zentroa	183	198	198	198
Etxebizitza funtzionalak eta beste	95	112	128	128
Guztira	801	846	918	918

Hau da:

- Egoitza-zentroetako tokiek toki guztien ia ehuneko 64 egin dute; azterturiko aldirian ehuneko 13 egin dute gora.

- Eguneko zentroetako eta etxebizitza funtzionalak tokiek ehuneko 8 eta ehuneko 34 egin dute gora, hurrenez hurren.

Kokapen geografikoari gagozkiola, tokien ehuneko 76 Iruñerrian daude.

Laburbilduz, ezgaituentzako tokien diagnosis-ren arabera, toki guztiak egoitza erakoak dira

(ehuneko 64), itunen bitartez finantzatzen dira (ehuneko 80) eta Iruñerrian daude (ehuneko 76).

Tokien guztizko estaldura indizea eta 65 urtetik beherako nafar minusbaliatuen populazioa alderatuta, hona emaitzak:

Ekitaldia	Estaldura indizea	Indizea
2002	4,81	100
2003	5,03	105
2004	5,31	110
2005	5,10	106

Minusbaliotasuna izan eta 65 urte baino gutxiago dituzten 100 biztanle bakoitzeko toki guztien betetzeari buruzko indizea ehuneko 6 inguru hazi da 2002tik 2005era: azken ekitaldi horretan, 5,10 toki dira. Halaber, halako atzeratze bat antzeman da 2005eko adierazle horretan, 2004ko datuekin alderatuta.

Aurreko guztizko indizea xehakatu behar da: egoitza tokien estaldura indizeak alde batetik eta eguneko zentroen estaldura indizeak. Hartara, honakoak lortuko ditugu:

Ekitaldia	Estaldura indizea Egoitzetako tokiak	Indizea	Estaldura indizea eguneko zentroak.	Indizea
2002	3,14	100	1,10	100
2003	3,19	102	1,18	107
2004	3,42	109	1,14	104
2005	3,29	105	1,10	100

Horrenbestez, egoitza tokien indizeak ehuneko 5 egin du gora 2002tik 2005era; hala eta guztiz ere, azken ekitaldi horretan behera egin du 2004ko datuekin alderatuta. Eguneko zentroi dagokienez, berriz, 2005ean 2002ko mailari eutsi zaio.

Nafarroako aurreko balioak gainerako autonomia erkidegoetakoekin alderatuz gero, eta horri buruzko informazioa falta zaigunez gero, ganbera

honek estaldura ratio batzuk kalkulatu ditu, Menpekotasunen Liburu Zurian biltzen den informazioa (erkidego bakoitzean 2003an zeuden egoitza tokiak eta eguneko zentroetako tokiak) eta haietako minusbaliatuen populazioa abiapuntu hartuta, azken datu hori Ezgaitasun, urritasun eta osasun egoerari buruzko 1999ko inkestarena arabera. Nafarroako datuak, berriz, aurreko tauletan adierazitakoak dira.

	2003ko estaldura mailak (egoitza zentroak)	Indizea
Nafarroa	3,19	100
Aragoi	1,76	55
Gaztela eta Leon (gehienekoa)	3,84	120
EAE	1,74	54
Emioxa	2,64	83
Andaluzia (gutxienezkoa)	0,53	17

Nafarroako indizea Espainiako bigarren handiena da egoitza zentroi dagokienez; Gaztela León baizik ez du gainera.

Eguneko zentroi dagokienez, Nafarroako zentroen kopuruak zortzigarren lekua betetzen du autonomia erkidego guztien artean.

	2003ko estaldura indizeak (eguneko zentroak)	Indizea
Nafarroa	1,18	100
Aragoi	0,91	77
Gaztela eta Leon (gehienekoa)	3,60	305
EAE	1,38	117
Emioxa	1,07	91
Kanariar Uharteak (zenbateko txikiena)	0,06	5

### XI.6. EZGAIUENTZAKO TOKIEN ITXARON ZERRENDAK

Behin sartzeko eskaria jaso ondoren, batetik eskatzailearen banakako ezaugarriak eta, bestetik, buruko osasunaren arduradunek edo oinarritzko gizarte zerbitzuek emandako txostenak aztertuko dira. Horrekin, kasuko ezgaitasunari (psikikoa, mugimendukoa edo buru-gaixotasuna) erantzuna emateko behar den laguntza-baliabide mota zehaztuko da (egoitza, eguneko zentroa, etxebizitza funtzionala edo zuzeneko laguntza). Balorazio hori 15-20 eguneko batez besteko aldi bati dagokionez egiten da.

Behin laguntza beharra zehaztuta, eta toki hutsek ez baldin badago, interesdunari itxaron zerrendan sartu dutela jakinaraziko zaio, agiri normalizatu baten bidez. Komunikazio horretan, ezgaitasun mota, toki mota eta ukituak, gaur egun, laguntza baliabideren bat edo nolabaiteko estaldura duen jasoko da. Azken egoera hori egiaz itxaron zerren-

Itxaron zerrenda	2002	2003	2004	2005
Baliabidearekin	121	140	104	88
Baliabiderik gabe	176	190	179	187
<b>Guztira</b>	<b>297</b>	<b>330</b>	<b>283</b>	<b>275</b>
Indizea	100	111	95	93

Horrenbestez, aztertutako aldian, itxaron zerrendan dauden tokien guztizkoak ehuneko 7 egin du behera. Dena den gutxitze hori laguntza-baliabidea duten tokietan baizik ez da gertatu –ehuneko 27ko jaitsiera-, zeren eta baliabiderik gabeko tokietako itxaron zerrenda ehuneko 6 hazi baita.

Bilakaera desberdin hori ondoriozta daiteke, halaber, ikusten denean 2002an baliabiderik gabe-

Ezgaitasun mota	Baliabiderik gabe	Baliabidearekin	Guztira
Psikikoa-buruko gaixotasuna	119	22	141
Psikikoa-buruko atzerapena	43	29	72
Buruko atzerapena eta gaixotasuna	9	16	25
Buruko atzerapena jokabidearen nahastearekin	8	7	15
Fisiko motorikoa	4	10	14
Bestelakoak	4	4	8
<b>Guztira</b>	<b>187</b>	<b>88</b>	<b>275</b>

Hau da, ezgaitasun psikikoa –buru-gaixotasuna nahiz buruko atzerapena- itxaron zerrendaren toki guztien ehuneko 87 egiten du.

dan egotea da, zeren eta gainerakoak, gehiago edo gutxiago, laguntzaren bat jasotzen ari baitira.

Toki huts bat dagoenean, itxaron zerrendan dauden eskatzaileen espedienteak aztertzen dira, kasuko afekzioaren arabera, egoera pertsonalaren arabera, sexuaren arabera eta toki hutsa dagoen zentroaren kokapenaren arabera, eta tokia esleitzen da; halaber, kontuan hartzen dira eskatzailearen inguruabarretan geroan gerta litezkeen aldaketak. Oro har, ez dago itxaron zerrendaren eta zentro zehatzaren arteko loturarik.

Egoera berezietan aurre egiteko, ez dago “koltxo” lana egin dezakeen tokirik; hori dela eta, ahal den konponbiderik onena jartzeko ahaleginak egiten dira.

Ondoko taulan, itxaron zerrendan dauden tokien kopuruaren bilakaera ikusten dugu –laguntza-baliabidearekin edo laguntza-baliabiderik gabe-, aztertutako lau urteetarako:

ko tokien eta baliabidea duten tokiek, itxaron zerrenden guztizkoan, ehuneko 59 eta ehuneko 41 egiten dutela, hurrenez hurren; 2005ean, ordea, balio horiek ehuneko 68 eta 32 dira.

2005erako, itxaron zerrendak ondoko taulan ematen duguna da, betiere ezgaitasun motaren arabera.

Azkenik, itxaron zerrendan dagoen jendea 65 urtetik beherako Nafarroako minusbaliatuen populazioaren guztizkoarekin alderatu dugu.

Ekitaldia	Minusbaliatuen populazioa <65 urte	Itxaron zerrendak	Ehunekoa
2002	16.656	297	1,78
2003	16.826	330	1,96
2004	17.303	283	1,64
2005	18.002	275	1,53

Hau da, Nafarroako 65 urtetik beherako minusbaliatuen populazioaren aldean, itxaron zerrenden ehunekoak behera egin du, eta 2002an ehuneko 1,78 izatetik 2005ean ehuneko 1,53 izatera iritsi da, populazio horren gutzitza aldean.

## XI.7. LANERAKO PRESTATZEKO ZENTROAK

### XI.7.1. Lanerako prestatzeko zentroyen ezau-garriak

Lanerako prestatzeko zentroyen helbura da lanera bideratzeko terapiako eta egokitzapen personal eta sozialeko zerbitzuak ziurtatzea jasaten duten minusbaliotasun-mailaren ondorioz enpresa batean edo enplegurako zentro berezi batean txertatzea ezinezkoa zaien ezgaituei. Zentro horiek, ez dira sekula gizarte zerbitzu hori behar duten pertsonentzako lan zentrotzat hartuko.

Lanerako prestatzeko terapia da ezgaituek, beren banakako baldintzen arabera eta zentroko langile teknikarien orientabideekin, eginiko jardura edo lan ez-produktiboak. Terapia hau bideratuta dago modu erregularrean merkatu operazioetako xede ez diren objektu, produktu edo zerbitzuak lortzera.

Zentro horiek administrazio publikoak berak sortuak nahiz irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak sortuak izan daitezke. Haiek sortzeko baldintza gisa eskatzen da lanerako prestatzeko zentroyen erregistroan izena emanda egotea.

Sari edo ordainsarien sistemak ezarri ahalko dira, ezgaitua zentroko jardueretan egoki integratu dadin sustatzeko. Sistema horiek NGOlren Balortzio Ataleko lanbide anitzeko taldeak gainbegiratu ko ditu.

Zentro pribatuak, beren sostengurako, dirulaguntzak eskatu ahalko dizkiote administrazioari. Dirulaguntza horien deialdia ezgaitasunaren arloko irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzan deialdi orokorrean sartuko da.

Zentro horiei ematen zaizkien laguntzen kudeaketa, NGOlren barrenean, boluntarioen, elkarten eta programen atalaren ardura da; hain zuzen ere, ezgaituen elkarten eta programen bulegoarena.

### XI.7.2. Aurrekontuari buruzko informazioa

Zentro horientzako dirulaguntzak honakoetan erregistratzen dira aurrekontuetan:

- Aspaceri, Uxane lanerako prestatzeko zentro-rako emandakoa, itunen lerroari egotzen zaio, tresna horrekin arautzen baitira Aspaceretikiko harremanak.

- Tasubinsarena, 2005etik, "lanerako zentroeki-ko itunak" aurrekontu lerroari egotzen zaio, eta hartan erregistratzen den bakarra da.

- Gainerako laguntzak, irabazi asmorik gabeko entitateentzako lerro orokorrari egotzen zaizkio.

Aztertuturiko aldirian, lanerako prestatzeko 6 entitate daude, 2005ean guztira 25 zentro dituztenak.

Entitate horiek 2002tik 2005era bitarte jaso dituzten laguntzak, eta dauden tokien kopurua 10. taulan jasotzen dira.

Haiek irakurritan, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

- 2002 eta 2005 artean, zentro horiek, guztira, 13,53 milioi euro jaso dituzte. Zenbateko horretatik, 10,51 milioi Tasubinsari eman zaizkio; hau da, ehuneko 78.

- Urteko bilakaerari dagokionez, 2003an, laguntza horiek ehuneko 23 egin dute gora, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gainerako ekitaldietan, iguera apalagoa da.

- Tokiei dagokionez, guztira 2.765 dira diruz lagundutakoak; horietatik, ehuneko 81 -2.251-Tasubinsarenak dira.

- Toki horien kokapen geografikoari erreparatuta, ehuneko 67 inguru Iruñerrian daude, ehuneko 10 Lizarran eta ehuneko 2 Tuteran.

### XI.7.3. Laguntza horien deialdi orokorraren berrikuspena 2005eko ekitaldirako.

Laguntza hauek ezgaitasunaren arloan lan egin eta kolektibo horrentzako jarduerak, inbertsio txikiak, turismoa eta oporraldiak finantzatzeko laguntzak eskatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdi orokorre-tan sartzen dira.

2005eko deialdia 2004ko abenduaren 14ko foru aginduaren bidez onetsi zen; horrenbestez, 1997ko dirulaguntzen foru legea aplikatu behar zaio.

Deialdi horren edukia aztertutik, ateratzen dugun ondorioa da Dirulaguntzei buruzko 8/1997 Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen dituela. Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu ezen balorazio irizpide batzuk ezarri eta kuantifikatu ziren arren, irizpide horiek ez daudela garaturik, eta ez dela adierazten, ezta ere, puntuazioa nola banatuko den; banaketa hori deialdiko ebazpen proposamenerako txostenean islatzen da, eta alde aurretik argitaraturik ez dauden azpi-irizpideak erabiltzen dira.

Hobetu litezkeen alderdiei dagokienez, dirulaguntzei buruzko foru lege berria aplikatzeaz gainera, gure ustez honako alderdiak landu beharko lirateke:

- Lanerako prestatzeko zentroetarako berariazko deialdi bat egin beharko litzateke, gainerako laguntzetatik berezita.

- Urte anitzeko laguntzat hartzea, haien funtzionamendu errealarari egokitzeko eta zentroetan egonkortasuna bermatzeko.

- Dirulaguntzak justifikatzeko agiri-betekizunak eta haiek egiaztatzeko giza baliabideak bateratzea.

- Agirien berrikuspen hori osatzea bestelako berrikuspen osagarriekin; esate baterako, zentroetara bisitaldiak egitea, sarien edo beken kontrola eta enplegu zentro bereziak (lan legediaren menpekoak eta Lan Departamentuaren eskumena) eta lanerako prestatzeko zentroak batera dauden zentroen gaineko berariazko jarraipena egitea.

#### **XI.7.4. 2005ean Tasubinsari emaniko laguntzen jarraipena**

2005ean Tasubinsari emaniko laguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzen aurreko deialdi orokorretik kanpo utzi ziren, "Lanerako prestatzeko zentroekiko hitzarmena" izeneko kontusaila baitago, guztira 2,77 milioi euroko kreditua duena.

Kontusail horren kargura ordaintzen dira soilik Tasubinsa enpresari emaniko laguntzak –harekin dagokion lankidetzat hitzarmena dago–; horrenbestez, enpresa horrek kreditu osoa hartzen du.

Jarduteko modu hori dirulaguntzei buruzko foru legean aurreikusitako aparteko bideetan sartzen da; horretarako, txosten juridiko baten bidez arazoitzen da gizarte interesa eta helburu publiko bat lortu nahi direla.

Halaber, baldintzen multzo bat ezartzen da; honakoak, besteak beste:

- NGOik alde aurretik baloratuko ditu lanerako prestatzeko zentroetako erabiltzaileak.

- Sari edo ordainsarien araubide bat ezarriko da, hori ere NGOik gainbegiratu.

- Erabiltzaileei aldizkako berrikuspenak eginen zaizkie.

- 2006ko martxoaren 31 baino lehen, Tasubinsak 2005ean garaturiko jardueren oroitidazki bat aurkeztu beharko du.

- Tasubinsak bere gain hartzen du 2005eko lehen hiruhilekoan zehar 2004ko tokien kopuru berari –564 toki– eusteko konpromisoa; urtean zehar, kopuru hori berrikusi eta egokituko da Ezgaituei laguntza emateko plan integralean jasotako proposamenen arabera.

Emaniko zenbatekoa eta ordaindutakoa 2,77 milioi euro izan ziren, hain zuzen ere kontusailako kreditu guztia. Tasubinsak guztira, 546 toki aurreikusen ditu, foru lurralde osoan banaturiko 13 zentroetan.

Espedientea aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu aplikatzeko den araudiaren arabera dela, oro har. Hala eta guztiz ere, ondoko alderdiak adierazi nahi ditugu:

- Ez dago jasota 2005ean aplikatzeko den moduluen zenbatespenaren justifikazioa. Moduluen zenbatekoa 2004koaren arabera kalkulatu da, ehuneko 3ko gehikuntzarekin.

- 2005eko abenduaren 31n tokien kopuru justifikatua 552 da. Bestalde, gai honetan plan integrari buruz egiten den aipamena ez da egokia, planik ez dagoelako.

- Ez da ageri ordain edo sarien sistemari buruzko gainbegiratze jarduerarik egin denik.

- Gure iritziz, kontusailak izenduna izan beharko luke, modu egokian justifikaturik badago.

2005ean Tasubinsa enpresak justifikazio gisa aurkezturiko agirien artean, auditoretzaren oroitidazkia eta txostena ageri dira. txosten horren iritzia garbia da, salbuespen batekin: ez dago informaziorik enpresako administratzaileek Tasubinsaren helburu sozialaren jardueramota bera, antzekoa edo osagarria duten sozietateetan dauzkaten kargu edo funtzioei buruz

Halaber, azpimarratzen da NGOik eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emaniko dirulaguntzek 2005ean ustiakuntzarengatik dirusarreraren ehune-

ko 31 egiten dutela. Dirulaguntza horiekin ustiakuntza gastuen ehuneko 30,5 finantzatzen da.

#### **XI.7.5. Kudeaketari buruzko adierazleak (2002-2005)**

Funtsean zentro hauen kudeaketaz arduratzen den NGOIren ataletik lorturiko informaziotik, ondokoak nabarmendu nahi ditugu:

Diruz lagundutako tokien kopurua. 2002an 683 izatetik 2005ean 693 izatera pasatu dira; aldi horretan, horrenbestez, ehuneko 1,5eko hazkundera izan da. Toki gehien aurreikusitako diren urtea 2004a da; 711 toki hain zuzen.

18tik 65 urte bitarteko ezigaituei erreparatu gero, toki horien betetzearen ehunekoa ondoko taulan azaltzen duguna da:

Ekitaldia	Estaldura, ehunekotan
2002	4,37
2003	4,29
2004	4,38
2005	4,11

Horrenbestez, estaldura mailan gutxitze txiki bat antzeman da ekitaldi hauetan; halere, antzeko kopuruetan mantentzen da.

Entitateen arabera, diruz lagundutako toki horiek, funtsean Elkarkideren eta Tasubinsaren zentroetan biltzen dira, ehuneko 16,5 eta 78,8 2005ean, hurrenez hurren; hau da, ia guztizkoaren ehuneko 95. 2002ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko handiengan hazi zena Elkarkide izan zen; izan ere eki-

taldi horretan diruz lagundutako 75 toki izatetik 2005ean 114 izatera pasa da; kontrako bidean, Tasubinsaren toki kopurua 575etik 546ra jaitsi da.

Nafarroako Gobernuaren laguntzen zenbatekoak, 2002tik 2005era, ehuneko 30 egin du gora. Entitateen arabera, dirulaguntzetan igoera handiena izan dutenak Elkarkide –ehuneko 54– eta Tasubinsa –ehuneko 25– izan dira. Bi entitate horien artean, 2005ean, dirulaguntzen ia ehuneko 96 biltzen dute.

Toki bakoitzeko batez besteko dirulaguntzak –edo tokiak Nafarroako Gobernuarentzat duen kostuak- 2002tik 2005era ehuneko 28 egin du gora, 4.156 eurokoa izatetik 5.317 eurokoa izatera iritsi baita. Batez besteko kopuru horien gaineratik daude, urtero, Elkarkide –batez beste toki bakoitzeko 6.500 euro- eta ASPACE –toki bakoitzeko 6.000 euro inguru. Tasubinsaren batez besteko kopuruak urteko batez bestekoaren azpitik daude, gutxi bada ere. 2005ean, Nafarroako Gobernuarentzako batez besteko balio altuena Elkarkideri dagokiona da –toki bakoitzeko 6.644 euro- eta merkeena Okilena da –962 euro toki bakoitzeko-.

2002 eta 2005 artean, batez besteko dirulaguntzan gorakada handiena izan duena Tasubinsa da, ehuneko 31 igo baita; gutxien igo dena, berriz, Elkarkide da, ehuneko 2 hazi baita.

2003ko ekitaldirako, eta Liburu Zuriaren informazioaren arabera, ondoko taulan Nafarroan toki bakoitzeko emaniko batez besteko dirulaguntzaren zenbatekoa konparatu dugu autonomia erkidego mugakideetakoarekin eta balio handiena eta txikiena duten autonomia erkidegoetakoarekin.

	Toki bakoitzeko emaniko batez besteko dirulaguntza (eruoan) 2003an		Tokien guztizko kopuruaren gaineko %
	Indizea		
Nafarroa	5.168	100	2
Aragoi	3.908	76	2
Gaztela eta Leon	2.213	43	8
EAE	5.276	102	7
Errioxa	2.774	54	1
Madril (zenbateko handiena)	6.433	124	17
Kanariar Uharteak (zenbateko txikiena)	392	8	5

Horrenbestez, Nafarroaren gaineratik Euskal Autonomia Erkidegoa eta Madrilgo Erkidegoa daude; hala eta guztiz ere, batez bestekoa erkidego mugakideen gaineratik dago nabarmen.



## **XII. GEHIGARRIA. LARRIALDIETARAKO TELEFONO-ZERBITZUA**

### **XII.1. ZERBITZUAREN ALDERDI OROKORRAK**

Larrialdietarako Telefono Zerbitzua (aurrerantzean LTZ) NGOIren eta Larrialdietarako Laguntzarako Babes Zibileko Zerbitzuaren (SOS Nafarroa) arteko lankidetzatik sortu zen.

Prebentzio- eta laguntza-zerbitzu bat da, beren buruaz baliatzeko arazoak dituztenei segurtasuna emateko. Larrialdiko egoeretan, eguneko edozein unetan konponbideak emateko behar diren baliabideak abiarazteko bidea ematen du.

Honakoei zuzenduta dago, batez ere:

- 65 urtez gorako pertsonak, bakarrik bizi direnak edo eguneko ordu gehienetan bakarrik egoten direnak, arrisku handikoa den egoera soziosanitarioan.

- 65 urtez gorako pertsonak, autonomia pertsonala mugatzen dien ezgaitasun bat dutenak edo zerbitzu horren bidez konpon litezkeen arazoak dituztenak.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zerbitzu osagarria da, eta foru lurralde osoan ematen da.

Helburua da mugak dituzten kolektibo horiek beren ingurunean gera daitezen, bizi kalitate hobearekin. Aldi berean, baliagarria suertatzen da hain integratzaileak ez diren eta kostu handiagoa duten beste baliabide batzuen erabilera geroratzeko; esate baterako, egoitza zentroak

Zerbitzu hori emateko tresna batzuk erabiltzen dira: telefono terminal bat eta domina edo/eta eskumuturreko bat, erabiltzailearen gorputzari atxikia, aktibatzen denean kontaktuan jartzen dena 112rekin (SOS Nafarroa). Halaber, zerbitzuak kortesiazko deiak egiten ditu –jardueraren jarraipena egiteko– eta jarduera-ezaz abisatzeko alarmak –denbora jakin batean irauten duen mugimendurik eza antzematen du.

Beste gailu eta teknologia batzuk aztertzeke eta ezartzeko fasean gaude, haiek erabiltzailearen etxetik kanpo erabiltzeko edo hura kokatzeko, erabiltzailearen presentzia edo erorikoak antzemateko, medikamentuak emateko, urrutiko mediku-laguntza emateko eta abar.

Oinarrizko baldintza gisa eskatzen da zerbitzua hartuko duten pertsonak honako baldintzak betezea:

- Bakarrik bizizea.

- 65 urtetik gorako pertsona batekin bizizea, eta pertsona hori zaintzaile nagusia izatea.

- Ezgaitasunen bat duen 65 urtetik beherako pertsona batekin bizizea.

- Egunean gutxienez ere zazpi orduz etxetik kanpo egoten den eta ezgaitasunen bat duen 65 urtetik beherako pertsona batekin bizizea.

Zerbitzua erabiltzaileak kofinantziatzen du, hilean 6 euro ordainduta. Horrelakorik ez dute ordaindu behar Ondorio askotarako errenta-adierrazle publikoa (IPREM) baino errenta txikiagoa dutenek.

2004an, guztira, 24.167 dei egin ziren; horietatik, ehuneko 71 nahi gabeko zanpatzeen ondorioz izan ziren. Halaber, guztira kortesiazko 65.476 dei egin ziren.

Urte horretan, guztira 1.898 baliabide erabili ziren; horien ehuneko 64 osasun arlokoak izan ziren.

### **XII.2. AURREKONTU INFORMAZIOA (2002-2005)**

Zerbitzu horri egotzi dakizkiokeen aurrekontu-gastuak bi talderi dagozkie: enpresa bati ordaintzea terminalak eta dominak alokatzeko eta Caja Navarra Fundazioari ordaintzea kortesiazko zerbitzuarengatik.

Aurreko ordainketen erregulazioaren oinarria, fundazioaren kasuan, lankidetzaren hitzarmen bat da; terminalen enpresaren kasuan, berriz, 1997an haren aldeko hasierako esleipena egin zen, eta urtez urte luzatzen joan da 2002ra arte; 2003an, prozedura negoziatuaren bitartez, enpresa beraren aldeko esleipena egin zen eta 2004ra arte luzatu zen; 2005ean, ez da inolako kontraturik egin, baina 2004an aurreneko izapideak egiten hasi ziren beste kontratazio espediente bat egiteko, Nafarroako Gobernuaren larrialdietako zentralen (Positron) zeuden arazoengatik eta sistema horren kontratazioa Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiaren eskumena delako. Hori guztia 2006ra arte atzeratu da, eta kontratua urte bereko apirilean sinatu da.

Aurrekontu dirusarrerak bat batzoz IPREM baino errenta handiagoak dituen erabiltzaileak egindako koordainketarekin. Dirusarreraren aurrekontu-egozketari dagokionez, esan beharra dugu ekitaldi bakoitzak bere gain hartzen dituela aurreko urteko abenduko eta kasuko urteko lehenbiziko hamaika hiletako dirusarrerak; hala eta guztiz ere, 2005ean, ez dira egotzi azaroko dirusarrerak, eta 2006ko aurrekontuan erregistratu dira. Konparazio-azter-

keta homogenea izan dadin, hil horretako zenbaitakoa 2005ean sartu dugu.

Laburbilduz, LTZtik 2002tik 2005era heldu diren gastuak honakoak izan dira (eurotan):

Ekitaldia	Alokairua	Kortesiako zerbitzua	LTZaren gastua guztira	Indizea
2002	752.547,46	66.111	818.658,46	100
2003	927.726,40	98.111	1.025.837,40	125
2004	865.782,71	100.858,11	966.640,82	118
2005	985.473,79	105.901,02	1.091.374,81	133

Lorturiko aurrekontu-dirusarrerei dagokienez, hona:

Ekitaldia	LTZko dirusarrerak, guztira	Indizea
2002	126.600,45	100
2003	109.508,21	86
2004	166.588,90	132
2005	192.512,32	152

Laburbilduz, eta aztergai dugun aldirako, zerbitzuaren aurrekontu-gastuek ehuneko 33 egin dute gora; dirusarrerek, berriz, hazkunde handiagoa dute, ehuneko 52koa.

### XII.3. KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK (2002-2005)

Lortutako informazioaren arabera, kudeaketari buruzko ondoko alderdiak azpimarratu behar ditugu:

Ondorengo taulan, aurkeztutako eskabideen bilakaera eta onetsi direnak aztertzen ditugu. Ikusten denez, eskabideetan antzeko bolumen bati eusten zaio; ehuneko 98 inguru onetsi egiten dira. Ehuneko handi horrek berretsi egiten du zerbitzurako itxaron zerrendarik ez dagoela.

Bigarrenik, erabiltzaileen bilakaera erakusten da, eta ikusten da aldian ehuneko 25eko igoera izan dela; ehuneko hori bat dator terminalen kopuruak gora egitearekin.

Ekitaldia	Aurkeztutako eskabideak	Onetsitako eskabideak	Onetsiak/aurkeztuak	Benetako erabiltzaileak	Terminalen kopurua
2002	1.142	1.024	89,67	4.431	4.198
2003	1.093	1.091	99,82	4.839	4.611
2004	1.180	1.175	99,58	5.178	4.980
2005	1.135	1.113	98,06	5.533	5.276

Erabiltzaileen kokapen geografikoari erreparatuta, ondoko taulan azaltzen dugu haien bizilekua; ondorioa da ia ehuneko 45 Iruñerrian daudela.

Ekitaldia	Benetako erabiltzaileak	Iruñerria	Gainerako eskualdeak.
2002	4.431	2.095	2.336
2003	4.839	2.236	2.603
2004	5.178	2.370	2.808
2005	5.533	2.449	3.084

Zerbitzua kofinantzatzen duten erabiltzaileak guztien ehuneko 54 dira 2005ean; erabiltzaileek ordaindutako dirusarrerekin, LTZaren aurrekontu kostuaren ehuneko 18 ordaintzen da. 2002ko ego-

erarekin alderatuta, zerbitzua ordaintzen duten ereabiltzaileen kopuruak ehuneko 10 egin du gora; estaldura mailak, berriz, ehuneko 14 egin du gora.

Ekitaldia	LTZa ordaintzen duten erabiltzaileen %	Estaldura maila
2002	48,90	15
2003	45,65	11
2004	43,30	17
2005	53,89	18

Ondoko taulan, zerbitzuaren pertsona bakoitzeko kostua eta harekin lagundutako pertsonen ehunekoa, hirugarren adineko pertsonen eta ezgaituen populazioa kontuan hartuta.

	2002	2003	2004	2005
Lagundutako populazioa	4.431	4.839	5.178	5.533
Kostua/pertsona	184,76	211,99	186,68	197,25
> 65 urteko populazioa	102.730	103.200	103.382	103.637
Estaldura, ehunekotan	4,31	4,69	5,01	5,34
> 65 urteko populazioa + < 65 urteko ezgaituak	119.386	120.026	120.685	121.639
Estaldura, ehunekotan	3,71	4,03	4,29	4,55

Haiak irakurrita, ondokoa azpimarratu nahi dugu:

- Pertsona bakoitzeko aurrekontu kostua ehuneko 7 hazi da azterturiko aldian.
- Erabiltzaileek ordaintzen duten prezio publikoak kostu horren ehuneko 3 inguru estaltzen du.
- Hirugarren adineko guztizko populazioaren gaineko estaldura, 2005ean, ehuneko 5,34 da; maila horrek puntu bat egin du gora 2002tik 2005era –ehuneko 24ko hazkundea–. 2005ean iritsitako balioak nabarmen gainditzen ditu plan gerontologikoan aurreikusitakoak; izan ere, helburu gisa jartzen zen 2000n ehuneko 3ra iristea.

- Zerbitzua teorikoki zuzenduta dagoen populazioaren guztizkoan (hirugarren adina gehi 65 urtez beherako ezgaituak), estalduraren maila, 2005ean, 4,55 da; antzeman daiteke, horrenbestez, 2002tik ia ehuneko 1 egin duela gora –ehuneko 23ko hazkundea.

Azkenik, ondoko taulan alderatzen dugu, 2003. urterako, Nafarroako egoera Espainiako batez bestekoarekin, autonomia erkidego mugakideekin eta, kasua bada, hirugarren adineko populazioan LTZren estalduran balio handienak eta txikiak dituzten erkidegoekin; bestalde, erabiltzaileek ordaintzen dituzten prezio publikoak ere alderatzen ditugu. Datu horiek Menpekotasunei buruzko Liburu Zuritik lortu ditugu.

	Estalduraren maila, hirugarren adineko populazioari begiratuta	Erabiltzaile bakoitzaren prezio publikoa (euroak/urtea)
Espainiako batez bestekoa	2,05	254
Nafarroa (kopuru handiena)	4,69	72
Aragoi	2,66	180
Gaztela eta Leon	2,54	228
EAE	2,26	88
Errioxa	1,25	430
Kanariar Uharteak (zenbateko txikiena)	0,62	-

Ikus daitekeenez, Nafarroako estaldura maila nazio mailako batez bestekoaren bikoitza da eta gainerako autonomia erkidegoetakooa baino nabarmen handiagoa da.

Erabiltzaileak ordaintzen duen prezio publikoari dagokionez, Nafarroa da zenbateko txikiena ordaintzen den lekua, Espainiako batez bestekoa baino % 72 gutxiago hain zuzen ere.

### **XIII. GEHIGARRIA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ)**

#### **XIII.1. ELZren ALDERDI OROKORRAK**

Etkez etxeko Laguntza Zerbitzuaren (aurrerantzean, ELZ) funtsa da laguntza ekonomiko edo pertsonalak ematea 65 urtez gorako pertsonak eta ezgaituak etxean gera daitezen, ahal diren baldintza onenetan, egoitzetara sar daitezen saihestuz.

Zerbitzu hori bi bidetatik eskaintzen da gure erkidegoan, onuradunak behar dituen laguntza-orduen arabera:

a) NGOIren kargurako prestazio ekonomikoa, onuradunak etxean eguneko 2 ordu eta erdi baino laguntza gehiago behar duenean. Prestazio ekonomiko horiek Nafarroako aurrekontu orokorren kargura ordaintzen dira, eta NGOIk kudeatzen ditu. Onuraduna da zerbitzu hori emanen dion pertsona kontratatzearen erantzukizuna duena. Prestazio mota hori, estatu osoan, Nafarroan baino ez dago.

b) Zerbitzurako laguntza edo zuzeneko prestazioa, aipatu onuradunari arestian aipatutakoa baino laguntza behar txikiagoa aitortzen zaionean. Zuzeneko zerbitzu hori udaletako gizarte zerbitzuek kudeatzen dute, eta horiek dira zerbitzua emateko pertsonak –familia langileak- kontratatzen dituztenak; toki entitateek eta NGOIk –dirulaguntzen bidez- eta erabiltzaileak berak kofinantzatzen dute zerbitzua, toki entitate bakoitzak horri buruz duen berariazko ordenantzaaren arabera. Halaber, NGOIri dagozkio zerbitzu horien koordinazio, ebaluazio eta jarraipen lanak.

NGOIk kudeatzen dituen laguntza ekonomikoetan zentratutik, horiek ematen dira pertsona horiek baliabide ekonomikorik ez dutenean, eta beren etxeetan egunero bi ordu eta erdiko baino gehiagoko laguntza behar dute. Zehazki, onuradunei ondoko baldintzak eskatzen zaizkie:

- Nafarroan bizitzea.
- Baliabide ekonomiko nahikoak ez izatea.
- 65 urte baino gehiago izatea edo, ezgaituen kasuan, ehuneko 33ko edo gehiagoko minusbalio-tasun maila izatea.

Laguntzen zenbatekoa ondokoan arabera zehaztuko da:

- Eguneko laguntza orduen kopurua kasuan kasu baloratuko dira.
- Familia unitatearen dirusarrerak.
- Zerbitzua emateko kalkulatu den kostua.

Laguntza horiek emateko, hartzaileari bere etxean laguntza zerbitzua emanen dion pertsona bat kontratatu behar da, eta kontratazioaren arloan eta gizarte segurantzaren arloan indarra duten arauak bete beharko dira.

Onuradunek, jasotako laguntza aurreikusitako xederako erabili beharko dute. Hori dela eta, NGOIk egiaztatze lanak egin ahalko ditu.

Zuzeneko laguntzen zerbitzu honen kudeaketa NGOIren Boluntarioen, Elkarteen eta Programen Atalari dagokio.

Bestalde, udaletako gizarte zerbitzuek emandako zerbitzuei ere NGOIren aurrekontuaren kargurako finantzaketa ematen zaie. Horretarako, urtero, deialdi bat argitaratzen da, eta hartan, besteak beste, etkez etxeko laguntza horiek sartzen dira. Akordioak sinatzen dira ukituriko udalekin, eta akordio horien arabera udalek konpromisoa hartzen dute dagokion zati proportzionala finantzatzeko. Dirulaguntza zenbatekoa zehazteko, behar diren langileen kostuari buruzko kalkulua hartzen da abiapuntu, eta, gainera, gastu horien ehuneko 30 kalkulatu da gastu orokorretarako eta jarduerak garatzeko; NGOIk emandako dirulaguntzak gutzizko kostuaren ehuneko 60 egiten du; gainera, 5.000 biztanle dituzten oinarrizko eskualdeetarako, toki entitateak biztanle bakoitzeko 5,71 euro ordaintzen ditu; gastuaren gainerakoa NGOIren dirulaguntzarekin ordaintzen da. Hala eta guztiz ere, 2005. urterako, aurreko finantzaketa formulak aldatzeko probako plan bat hasi da, gizarte zerbitzuetako oinarrizko laguntza berrantolatze prozesu baten barruan.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua, laguntzak emateko irizpideen aldaketa eta udal zerbitzuen aipatu finantzaketa-plan berria antolatzeko eredu berri baten definizioa aztertzen eta garatzen ari da. Azterlan hori bukatzeko bidean dago, eta betiere etorkizuneko menpekotasunei buruzko legean zerbitzu horri buruz ezartzen denaren pentzutan egonen da.

#### **XIII.2. AURREKONTU INFORMAZIOA (2002-2005)**

ELZren aurrekontu gastuak bi kontusaili egozten zaizkie; bata zerbitzu horrengatik NGOIk zuzen-

nean ematen dituen diru prestazioen kontusaila, eta bestea, Nafarroako toki entitateek zerbitzu horren zuzeneko laguntzak finantzatzeko dirulaguntzen kontusaila.

Aztertutako aldian, aurrekontu gastu horiek honakoak izan dira (milioika eurotan):

Ekitaldia	Prestazio ekonomikoa	Indizea	Toki entitateen dirulaguntza	Indizea	Guztira	Indizea
2002	6,36	100	4,05	100	10,41	100
2003	6,84	108	4,26	105	11,10	107
2004	6,83	107	4,46	110	11,29	108
2005	7,07	111	4,68	116	11,75	113

Hau da, prestazio ekonomikoek, azterturiko aldian, ehuneko 11 egin dute gora; toki entitateentzako dirulaguntzei dagokienez, ehuneko 16 hazi dira. Oro har, zerbitzu horren gastuak ehuneko 13 egin du gora.

NGOik prestazio ekonomikoak emateko prozesua berrikusita, gure ondorioa da orokorrean egozia dela. Hala eta guztiz ere, hobetu daitezkeen bi gai nabarmendu behar ditugu:

- Ez da ageri prozedura sistematiko bat dagoenik emaniko laguntzak berraztertze, onuradunari exijitzen zaizkion betekizunek bere horretan dirautela segurtatze aldera. Egindako berrikuspenetatik ez dugu ondorioztatzen, oro har, laguntza ekono-

mikoak bertan behera utzi direnik; bai, ordea, haien zenbatekoa aldatu dela.

- Oro har, ez da egiaztatzen onuradunak laguntza ekonomikoa erabili duen kontzesioan zehazturiko helbururako.

Bai egiten da osasun zentroyen eta oinarritzko gizarte zerbitzuen bitarteko zeharkako kontrola.

Bestalde, zehaztu beharra dago udal zerbitzuen erabiltzaileek zati batean kofinantzatzen dutela zerbitzuaren prestazioa, toki entitate bakoitzaren berariazko arautzearen –ordenantza- arabera; 2004an, arautze hori 48 ordenantzatan islatu zen. Laburbilduz, udalaren etxer etzeko laguntza zerbitzuaren finantzaketa iturriak ondoko taulan ageri direnak dira:

Ekitaldia	Erabiltzaileek finantzaturiko %	NGOik finantzaturiko %	Toki entitateek finantzaturiko %
2002	8	51	41
2003	10	48	42
2004	5	38	57
2005 (*)	11	44	44

(\*) Azterturiko hiru iturrietan, katalogatu gabeko beste dirusarrerara batzuk badaude.

Aurreko datuek ez dute islatzen inolako joera argia izatea zerbitzu hauek finantzatzeko moduari buruz. Hala eta guztiz ere, NGOiren ekarpenetan beharakada bat antzeman dugu.

### XIII.3. KUDEAKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK (2002-2005)

Ondoren garatzen ditugun iruzkinak azalduta daude, batetik, prestazio ekonomikoari buruzko adi-

erazleen arabera, eta, bestetik, udal laguntza zuzenen gaineko adierazleen arabera.

#### XIII.3.1. NGOiren prestazio ekonomikoen gaineko kudeaketaren adierazleak

Ondorengo taulan, aurkeztutako eskabideen bilakaera eta benetan onetsi direnak aztertzen ditugu. Bigarrenik, etekin errealeen bilakaera alderatzen dugu, familia unitate bereko kide batengan baino gehiagorengan eragina izan dezakeen eskaera abiapuntu hartuta.

Ekitaldia	Aurkeztutako eskabideak	Onetsitako eskabideak	Onetsiak/aurkeztuak	Espediente aktiboak	Benetako etekinak	Onuradunen indizea
2002	1.219	642	53	1.656	2.034	100
2003	1.176	535	45	1.675	1.790	88
2004	1.104	474	43	1.698	2.089	103
2005	888	416	47	1.727	2.153	106

Ikusten denez, aurkeztutako eskaerek behera egin dute nabarmen aldi horretan, hain zuzen ere ehuneko 27. Aurkeztutakoen ehuneko 47 inguru onesten dira, eta antzeko ehuneko bati ezezkoa ematen zaio; gainerakoak ebazteko zain daude. Batez beste, espedienteak ebazteko 15 egun inguru behar dira.

Espediente aktiboek –edo laguntza aktiboek– ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n, ehuneko 4

egin dute gora aztertutako aldi horretan; bitartean, onuradun errealen kopuruak ehuneko 6 egin du gora.

Kokapen geografikoari dagokionez, espediente aktiboek buruzko datuak dauzkagu; 2005ean, haien ehuneko 20 Iruñerriari zegozkion.

Ondoko taulan aztertzen dugu, emandako informazioaren arabera, batez besteko hileko laguntza ekonomikoaren bilakaera eta aitortutako asteko orduen batez bestekoa.

Ekitaldia	Hileko batez besteko laguntza ekonomikoa (eurotan)		Asteko batez besteko ordu kopurua	
		Indizea		Indizea
2002	335,08	100	19	100
2003	347,63	103	19,75	104
2004	349,20	104	18,30	96
2005	349,65	104	18,85	99

Hau da, laguntza honen batez besteko profila hileko 350 eurokoa da ia, aste bakoitzeko aitortutako orduetarako; 19 ordu inguru dira horiek. Hila lau astek osatzen dutela abiapuntu hartuta, orduko 4,61eko batez besteko laguntza ondoriozta dezakegu.

Aldian, batez besteko laguntza horrek ehuneko 4 egin du gora; bitartean, asteko orduen batez besteko kopurua ia bere horretan geratzen da.

Aurreko taularen osagarri, erantsi behar dugu aipatu aldian hileko laguntza ekonomikoaren gehieneko kopurua 668 eurokoa izatetik 698 eurokoa izatera pasa dela; hileko gutxieneko laguntza

2002an 280 eurokoa izatetik 2005ean 292 eurokoa izatera pasa da.

Asteko orduen gehieneko kopurua 50 izatetik 47,5 izatera pasa da; orduen gutxieneko kopurua, ordea, 2002an 5 izatetik 2005ean 12,5 izatera pasa da.

Ondoko taulan laguntza ekonomiko mota horren estaldura duen pertsonen ehuneko aztertzen dugu, kontuan hartuta bai hirugarren adineko populazioa bai menpekotasuna duten pertsonak (hirugarren adinekoak gehi 65 urtez beherako ezgaituak).

Ekitaldia	3. adineko pertsonen gaineko estaldura	menpekotasuna duten pertsonen gaineko estalduraren ehuneko
2002	1,98	1,70
2003	1,73	1,49
2004	2,02	1,73
2005	2,08	1,77

Hori irakurrita, ondoriozta dezakegu aztertutako aldi oso antzeko terminoetan geratzen direla bi balio mota horiek.

Nafarroako plan gerontologikoak (1997-2000) laguntza ekonomikoetarako finkatzen zuen 2000n estaldura maila ehuneko 1eraino gutxitzea.

Ez dago jasota estaldura adierazle horri buruzko nazio mailako konparazio-daturik; izan ere, laguntza mota hori Nafarroan baino ez dago.

### XIII.3.2. Toki entitateetako ELZek emaniko zuzeneko laguntzen gaineko kudeaketaren adierazleak.

Nafarroako ELZren gaineko ikuspegi orokorra osatzeko, atal honetan toki entitateek zerbitzu hori emateari buruzko adierazleak aztertzen dira, kontuan hartuz NGOik berak ere kofinantziatuak direla.

Lehenbizi, udaletako ELZen erabiltzaileen bilakaera eta erabiltzaile bakoitzarentzat Nafarroako Gobernuaren kargura izaniko batez besteko dirulaguntza aztertuko ditugu.

Ekitaldia	Erabiltzaileen kopurua	Indizea	Erabiltzaile bakoitzeko batez besteko dirulaguntza, NGOIrena (euroak/urtea)	Indizea
2002	3.174	100	1.275	100
2003	4.179	132	1.020	80
2004	4.211	133	1.059	83
2005	4.569	144	1.022	80

Ikusten daitekeenez, zerbitzuaren erabiltzaile kopuruak ehuneko 44 egin du gora azterturiko aldian; 2003an 2002ren aldean izaniko aldaketa azpimarratu behar da, ehuneko 32 egin baitu gora. Ia 1000 erabiltzaile berri daudela esan nahi du.

Kokapen geografikoaren arabera, erabiltzaileen ehuneko 35 inguru Iruñeko Udalekoak dira.

Erabiltzaileen kopuruan antzemandako gorakadak beheramen nabarmena eragin du erabiltzaile bakoitzeko batez besteko dirulaguntzan; izan ere,

dirulaguntzen guttizkoak, azterturiko aldian, ehuneko 16 baino ez du gora egin. Toki entitate bakoitzak emaniko batez besteko dirulaguntzaren balioa aztertuta, desbideratze nabarmenak antzeman ditugu; esate baterako, 2005ean Cintruénigo-Fite-ron erabiltzaile bakoitzeko 334 euro ematetik Zaraitzun 2.799 euro ematera. Iruñean, berriz, erabiltzaile bakoitzeko 951 euroko laguntza ematen da.

Urteko ELZek betetako orduak ondoko taulan azaltzen direnak dira:

Ekitaldia	Erabiltzaileen kopurua	Urteko orduak, guztira	Erabiltzaile bakoitzeko urteko orduak	Orduak hileko eta erabiltzaileko
2002	3.174	e.d.	e.d.	e.d.
2003	4.179	417.217,05	99,84	8,32
2004	4.211	497.916,72	118,24	9,85
2005	4.569	368.794,09	80,72	6,73

Azpimarratzekoa da 2004an 2003. urtearen aldean izan den igoera –ehuneko 19koa–, eta 2005ean 2004. urtearen aldean izan den jaitsiera –ehuneko 26koa.

Ikusten denez, erabiltzaileen kopuruak gora egiten duen neurrian, batez besteko orduen kopurua gutxitzen da.

Menpekotasunen Liburu Zurian esaten da 2004. urterako hileko orduen batez besteko nazionala erabiltzaile bakoitzeko 16,43 ordu dela. Nafar-

roa, Andaluziarekin batera –8 ordu hileko- ordu gutxien egiten dituzten erkidegoen artean dago. Beste muturrean, Galizia eta Euskal Autonomia Erkidegoa daude, non hileko 29 eta 25 ordu egiten diren, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, berriz adierazten da konparazio horretan ez direla sartzen Nafarroako Gobernuak, prestazio ekonomikoaren bitartez, zuzenean finantzaturiko orduak.

ELZ zerbitzuak guztira duen kostua, lorturiko informazioaren arabera, honakoa da:

Ekitaldia	ELZren kostua (euroak, milioitan)	Erabiltzaile bakoitzeko batez besteko kostua (eurotan)	Orduko kostua (eurotan)	Erabiltzailearen ekarpena (eurotan)
2002	4,71	2.615,38	e.d.	200,34
2003	8,89	2.126,15	21,30	212,80
2004	11,63	2.761,75	23,36	131,02
2005	10,69	2.338,63	28,97	267,79

Hau da, 2005ean, ELZren kostu osoa 10,69 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino ehuneko 8 gutxiago; zenbateko horretatik, ehuneko 72 langile gastuei dagokie.

2005ean erabiltzaile bakoitzeko batez besteko kostua aurreko urtekoa baino txikiagoa bada ere,

orduko kostuak goranzko joera dauka, eta hiru urteetan ehuneko 36 egin du gora.

Erabiltzailearen ekarpenak ehuneko 33 egin du gora. Igoera hori gorabehera, eta Menpekotasunari buruzko Liburu Zuriaren arabera, Nafarroa, 2004an, Espainiako erkidegoetan erabiltzaileak gutxien ordaintzen duen erkidegoa da.

Hirugarren adineko populazioari dagokionez, eta menpekotasuna dutenen populazio guztia kontuan hartuta, zerbitzuaren estaldura-ehunekoa ondoko taulan azaltzen duguna da:

Ekitaldia	Estalduraren ehunekoa-hirugarren adina	Estalduraren ehunekoa-menpekotasuna dutenak
2002	3,09	2,66
2003	4,05	3,48
2004	4,07	3,49
2005	4,41	3,76

Aurreko balioek ez dituzte betetzen plan gerontologikoan hirugarrena adinerako populazioarentzat aurreikusitako estaldura mailak, 2000n ehuneko 5 egiten zutenak.

### XIII.3.3. ELZ dela-eta NGOik izan duen gastuaren guztizkoari buruzko kudeaketa adierazleak –prestazio ekonomikoak eta zuzeneko laguntzak-

Nafarroako Gobernuak ELZ zerbitzurako emaniko prestazioaren guztizko ekarpenak kontuan hartuta –prestazio ekonomikoak eta toki entitateen dirulaguntza-, prestazioaren eta dirulaguntzaren erabiltzaile bakoitzeko batez bestekoaren honako bilakaera gertatzen da:

Ekitaldia	Prestazio ekonomikoa		Udal ELZ		
	Onuradunak	Erabiltzaile bakoitzeko batez besteko zenbatekoa (eurotan)	Erabiltzaileak	Erabiltzaile bakoitzeko batez besteko dirulaguntza (eurotan)	ELZk erabiltzaile bakoitzeko NGOirentzat duen guztizko gastuak (eurotan)
2002	2.034	3.127	3.174	1.275	1.999
2003	1.790	3.823	4.179	1.020	1.860
2004	2.089	3.268	4.211	1.059	1.792
2005	2.153	3.284	4.569	1.024	1.748

Erabiltzaile bakoitzeko batez besteko prestazio ekonomikoak nahiko iraunkor mantentzen da lau urteetan, bai onuradunen kopuruari bai zenbatekoari begiratuta: erabiltzaile bakoitzeko batez besteko dirulaguntzak, ordea,aldi horretan ehuneko 20 egin du behera; erabiltzaileen kopurua, ordea, ehuneko 44 hazi da. Batez besteko prestazio ekonomikoak udaletako ELZrentzat emandako batez besteko dirulaguntzaren hiru halako egiten du.

Bestalde, NGOirentzat erabiltzaile bakoitzak daukan batez besteko guztizko kostua pixkanaka gutxitzen doa aztertutako aldirian; horren ondorioz, 2005ean, 2002an baino ehuneko 13 gutxiago izan da.

Etxez etxeko laguntzako bi modalitateak eta Nafarroako plan gerontologikoan duten harremana kontuan hartuta, honakoa da zerbitzuaren estalduraren guztizko ehunekoa, hirugarren adineko populazioari dagokionez:

Ekitaldia	Prestazio ekonomikoen estalduraren ehunekoa (hirugarren adina)	Zuzeneko laguntzen estalduraren ehunekoa (hirugarren adina)	ELZren guztizko estaldura (hirugarren adina)
2002	1,98	3,09	5,07
2003	1,73	4,05	5,78
2004	2,02	4,07	6,09
2005	2,08	4,41	6,49
Plan gerontologikoaren helburua 2000. urterako	1	5	6

Horrenbestez, 2004.etik oro har planaren helburuak bete dira etxeko laguntza zerbitzua hirugarren adineko populazioari emateari dagokionez. Hala eta guztiz ere, laguntza mota bakoitzaren garrantzia aldatu egin da, eta pisu handiagoa eman zaie laguntza ekonomikoari, hain zuzen ere planean aurreikusitakoa baino pisu bikoitza.

Bestalde, Nafarroako balioak plan gerontologiko nazionalaren aurreikuspenen azpitik daude; izan ere, 2000. urterako, ehuneko 8 jartzen zuen helburu, estatuko estaldura maila 2004.ean ehuneko 3,14 bazen ere.



#### **XIV. GEHIGARRIA. GIZARTE ZERBITZUEN KALITATEA ETA IKUSKAPENA**

Atal honetan aztertzen ditugu, alde batetik departamentuko zerbitzu zentralek hirugarren adinekoentzako eta ezgaituentzako egoitzen gainean eginiko kontrol eta ikuskapenak, eta, bestetik, zentroen arduradunen eta erabiltzaileen, familien eta langileen gogobetetasun maila. Jarduera hauek Programa eta Instalazioen Kalitate eta Ikuskapen Atalaren ardura dira.

Aldez aurretik agerian jarri behar da ISO 9002 ziurtagiriaren jarraipena alde batera utzi dela, arduradunen esanetan hartatik espero ziren onurak lortu ez direlako.

##### **XIV.1. ZENTROEN IKUSKAPENA**

Urtero, atalak ikuskapen plan prestatzen du egoitza zentroi eta bestelakoei buruz. Urteko planek bai alderdi orokorren berrikuspenak bai egoitza eta zentro zehatz batzuen ikuskapenak jasotzen dituzte. Hartara, txosten honen helburuetarako, ondokoa azpimarratu behar dugu, laburbilduz:

##### **2002ko eta 2003ko ekitaldiak**

- Hirugarren adineko egoitzak, funtsean zentroetako arduradunekiko elkarrizketen bitartez eta egoitzetako langileei, bere buruaz baliatzen diren egoiliarrei eta ahaideei eginiko galdetegien bitartez eta arlo ekonomikoa analizatuz.

- Zentroen ikuskapena (egoitzak, klubak, etxak...)

##### **2004ko ekitaldia**

- Ezgaituak: Antzemandako kalitateari buruzko inkesta egoitza guztietan.

- Zaharrak: Antzemandako kalitateari buruzko inkesta bost egoitzatan.

- Ikuskapenak irregulartasunak, salaketak eta kexak antzematen diren zentroetan.

##### **2005eko ekitaldia**

2005eko lan programari buruz, azpimarratu behar dugu ez duela inongo kalitate helbururik planteatzen. Laburbilduz, honakoak ezartzen ditu ekitaldi horretarako helburu gisa:

- Zaharrentzako eta ezgaituentzako egoitza guztietara bisita arruntak egitea, bi helbururekin: 209/1991 Foru Dekretuan edo kasuan kasuko itunean langileen arlorako ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzea (gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa) eta zentro horien agiri administratiboak

aztertzea, bereziki haietako parte-hartze kontseiluek eginiko bilerak. Bisita horietako bakoitzarengatik txosten bat eginen da.

- Aurreko emaitzekin, zentroek azterturiko alderdiak direla-eta duten egoerari buruzko azterlan bat egin ahalko da.

- Baimen, arau-hauste eta zehapenei buruzko lege-proposamen bat eta dekretu bat egitea.

- Ikuskapenak irregulartasunak, salaketak eta kexak antzematen diren zentroetan.

Ez da urte bakoitzeko jardueri buruzko laburpen-txostenik egiten, planteaturiko helburuak eta lorturiko emaitzak jasotzeko; egindako lanak eginiko banakako txosten edo/eta aktak ditu ardatz. Urteko txostenik ez egoteak zaildu eta mugatu egiten du ikuskatutakoari buruzko ondorioak idaztea.

2005ean eginiko jarduketetatik, honakoa azpimarratu behar dugu:

- Guztira 197 egoitza, apartamentu, zentro, klub eta etxe aztertu dira. Horietatik, 155 azterketa arruntak izan dira eta gainerakoak, funtsean, erreklamazio, salaketa, baimen eta jarduera-uzteengatik egin dira.

- Langileen arloko baldintzak betetzeko mailari buruz aipatu den helburuari dagokionez, txosten bat egin da –testuak berak aitortzen du ez dagoela guztiz osaturik denbora falta izan delako–; bertan, ondorioztatzen da “oro har, sobra betetzen dela 209/1991 foru dekretua zuzeneko laguntzako langileei dagokienez (zentzu zabalean). Hala eta guztiz ere, kontzeptu hori hertsiki hartuz gero (garbiketako, garbiletako, sukaldeko, mantentze lanetako eta abarretako langileak kontuan hartu gabe), zentro batzuetan mota bateko baino gehiagoko defizitak daude”. Dena den, txostenak adierazten du azterlan hori helburu batzuekin osatu behar dela; honakoekin, besteak beste:

- a) Lanpostuetako bakoitzeko zeharkako analisiak, konparazio-balioak lortze aldera.

- b) Zentro bakoitzeko banakako analisia; bertan adieraziko da aipatu foru dekretuko baldintzak betetzen diren edo ez diren betetzen.

- c) Eskatzen diren profesionalak dituzten zentroen kopurua.

- d) Ez-betetze orokorrenak.

- e) Itunen konparazio-azterketa.

- f) Erligiosoen kongregazioek kudeaturikoetan izandako eragina.

- g) Baimenen sistemaren berrantolaketa.

## XIV.2. GOGO BETETZE MAILA

Gogobetetzeari buruzko inkestek, atalak bidali-takoek, bi hartzaille talde ditu:

- Erabiltzaileak, ahaideak, egoitzetako langileak.
- Bezeroak (entitateak, zentroak eta zerbitzuak).

Xede dituzten zentroak kasuan kasuko zentron zuzendaritzen eskarien arabera hautatzen dira, edo ikuskapen-jardueren ondorioz.

## Erabiltzaileei eginiko inkestak

Arloak	2002ko batez besteko orokorra	2003ko batez besteko orokorra
Elikadura	4,02	4,16
Garbitasuna	3,86	4,07
Langileen garbitasuna	4,14	4,07
Instalazioak	4,39	3,97
Antolaketa	3,81	4,18
Osasunerako laguntza	4,33	4,14
Segurtasuna	3,67	4,08
Harremanak	4	4,10
Erreklamazioak	3,20	3,59
Langileen profesionaltasuna	-	4,12

Kontuan hartuta emaitza hauek eragina dutela egoitza desberdinetan eta une desberdinetan eta faktore desberdinetan eragiten dutela (tokiaren kostua, laguntza mota...), adierazi beharra dago 2002an garbitasunaren, antolaketaren, segurtasunaren eta erreklamazioen arloetan ateratzen dela puntuaziorik okerrenea; 2003an, ordea, emaitza txarrenak instalazioetan eta erreklamazioetan ger-

Hirugarren adinekoekin lan egiten dutenei erreparatuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2002an, 3 egoitzetan egin ziren inkestak; 2003an, berriz, 10 egoitzatan; 2004an, azkenik, egoitza bakarrean. 2005ean ez zen inkestarik egin, zeren eta inkestaren edukia eta hartzailleak aldatzea erabaki baita.

- 2002an eta 2003an eginiko inkestetan –egoiliarrei, ahaideei eta zentroetako langileei eginikoak dira– lorturiko emaitzen urteko laburpena egin zen.

- Oro har, eta azterketaren arloei erreparatuta, honako emaitzak azpimarratu behar ditugu, gehiezez ere 5 puntu eman zirela kontuan hartuta:

tatzen dira; erreklamazioen arloa da bi ekitaldietan agertzen den bakarra.

2002an hobekien baloraturiko arloak instalazioak eta osasunerako laguntza dira; 2003an, ordea, antolaketa eta elikadura dira.

- 2003ko inkestaren emaitzak berdin ematen dira haien hartzailleen arabera.

Arloak	Egoiliarrak	Langileak	Ahaideak
Elikadura	4,25	4,16	4,10
Garbitasuna	4,26	4,05	3,96
Langileen garbitasuna	4,24	3,98	4,02
Instalazioak	4,25	3,74	3,95
Antolaketa	4,18	4,14	4,20
Osasunerako laguntza	4,33	4,03	4,09
Segurtasuna	4,19	4,13	3,96
Harremanak	4,21	4,08	4,05
Erreklamazioak	4,01	3,54	3,34
Langileen profesionaltasuna	4,20	4,20	4,00

Ikus daitekeenez, egoiliarrek puntuazio okerrak erreklamazioen eta antolaketaren arloetan ematen dituzte; langileek, berriz, erreklamazioen, instalazioen eta langileen garbitasunaren arloan; azkenik, ahaideek puntuazio okerrak erreklama-

zioetan, instalazioetan, segurtasunean eta garbitasunean ematen dituzte.

Ezgaituentzako zentroein dagokienez, zentro guztiei zuzendutako inkestak egin ziren, eta alde

batera utzi zen banakako txostenak egitea eta laburpen orokorra egitea.

#### Bezeroei eginiko inkestak

ISO 9002 ziurtagiriei eusteko prozesuen barruan, bezeroen, entitateen, zentroyen eta zerbitzuen gogobetetze mailaren irizpidea aplikatzen da. Horrekin zentroetako arduradunek ataleko langileek emaniko zerbitzua dela-eta duten gogobetetze maila ezagutu nahi da.

Neurriak	2001eko indizeak	2002ko indizeak	2003ko indizeak
Komunikazioa eta informazioa	72,60	83,30	85,20
Erantzuteko gaitasuna eta malgutasuna	74,40	87,90	85,90
Profesionaltasuna	78,80	85,40	90,10
Giza harremana	83,10	92,10	91,40
Satisfazio orokorra	77,20	87,10	87,90

Aurreko emaitzek agerian uzten dute ataleko bezeroen gogobetetze maila handia, eta, gainera, goranzko joera bat antzematen da balorazioan.

### **GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu Comptos Ganberako langileei, txosten hau egiteko prozesuan erakutsi duten interesagatik eta jarreragatik, eta, bereziki, auditoreek departamentuan lan egiten duten pertsona guztiakin izan duten tratu guztiz egokia.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua 2006ko urriaren 6an jaso zuen behin-behineko txostena, aztertu eta, egoki iritziz gero, alegazioak aurkezteko txostena jaso zen egunetik kontatzen hasita hamar egun naturaleko epean.

Beste ezer baino lehen, nabarmendu nahi dut orokorrean ados gaudela txostenaren edukiarekin, bai departamentuko jarduerari buruz jasotzen dituen datuei dagokienez, bai prestazioen kudeaketa hobetzeko egiten dituen gomendioei dagokienez ere. Izan ere, aurrerago azalduko dugun bezala, horietako asko gaur egun lantzen ari garen alderdiei buruzkoak dira, edo Nafarroako Gobernuak aurtengo irailaren 25ean onetsi duen Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuan jasotako buruzkoak; foru lege proiektu hori Parlamentuan izapidetzeko fasean dago.

Aurrekoa gorabehera, egoki jotzen dugu behin-behineko txostenari honako alegazio zehatzak egitea:

Galdetegi hori 2001etik 2003ra igorri zen. 2004tik aurrera, ordea, aipatu ziurtagiria alde batera utzi zen.

Urte horietan lorturiko emaitza orokorrak –ehunekotan adieraziak– ondoko taulan ematen ditugunak dira, kontuan hartuz hirugarren adinekoekin eta ezgaituekin lan egiten duten zentroyei ez ezik, NGOIren ardura diren beste zentro batzuei ere zuzendutakoak.

I. Behin-behineko txostenean jasotako datuei dagokienez:

a) Txosteneko 12. orrialdean, IV.1 puntuan, hauxe esaten da: “Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, funtsean, menpekotasun egoeran daudenei (hirugarren adinekoak eta ezgaituak) laguntza emateko eta haiek gizarteratzeko politikak eta haurtzaindegiak kudeatzeaz arduratzen da”

Zehaztu beharra dago Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren estatutuak onetsi zituen maiatzaren 22ko 31/2006 Foru Dekretuaren arabera, institutu horren menpean geratzen direla Nafarroako Gobernuaren haurtzaindegiak; haien antolamendua eta koordinazioa, ordea, Familia Zuzendaritza Nagusiaren esku geratuko da. Eskurantzza horiek berak aurreko egituran jasota zeuden (20/2004 Foru Dekretua).

b) Txosteneko 17. orrialdean, IV.7.24 puntuan, hauxe esaten da: “eginkizunak bulegoei esleitzera-koan, ez dira beti egitura organikoaren aldaketak gaurkotu eta egokitu”

Ez gaude ados baieztapen horrekin; izan ere, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko aurreko estatutuak onetsi zituen 20/2004 Foru Dekretua argitaratu eta gero, ekainaren 29ko 83/2004 Foru Agindua eman zen, zeina uztailaren 23ko 88. NAO-n argitaratu baitzen; haren bidez, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren bulego mailako egitura organikoa garatzen da. Eginkizun horiek estatutuetan ezarritako egituraren xedeekin bat datoze la jotzen dugu.

c) Txosteneko 24. orrialdean, IV.9.40 puntuan, hauxe ezartzen da: “zentro berekietako batez besteko tarifa zentro itunduetakoaren ehuneko 19 da;

kuotaren ehunekoa, berriz, ehuneko 14 txikiagoa da." "Zentro berekietan, kuotak gastuaren ehuneko 22 egiten du 2005ean; toki itunduetan, erabiltzaileak ordaintzen duen kuota moduluauren kostuaren ehuneko 44 da."

Comptos Ganberako auditoreek kalkulaturiko batez bestekoen datuei aurka egin nahi ez badugu ere, zehaztu nahi dugu tarifa bakarra dela, eta berdin ezartzen dela zentro berekietarako eta itunduetarako, eta aldagai bakarra erabiltzailearen egoera ekonomikoa dela; hori dela eta, batez besteko tarifa hori ez zaigu egokia iruditzen. Tarifa bakar hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzarraren 1997ko ekainaren 18ko erabakian finkatu zen; izan ere, hartan erakunde autonomoak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuetarako tarifak eta haiek aplikatzeko arauak onesten dira. Horrenbestez, egoera ekonomiko zehatz horiek dira erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota ezartzeko balio dutenak, eta zentro berekien eta itunduen arteko aldea, berriz, gertatzen da normalean toki berekietan sartzen diren pertsonak direlako baliabide ekonomiko txikiak dituztenak.

## II. Egindako gomendioei dagokienez:

a) Txosteneko 15. orrialdean, IV.6 puntuan, jasotako gomendia, departamentuak eta NGOik garatu beharreko ildo estrategikoak lantzeari buruzkoa. Etorkizunerako eginkizun horretan aintzat hartu beharko litzateke Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen (Menpekotasunari buruzko Legea) eta hura foru esparrura egokitzearen eragina.

Departamentuak guztiz egokitzen jotzen du gomendio hori; izan ere, behin-behineko txostenean adierazten den moduan, Nafarroako Gobernuak 2006ko irailaren 25ean onetsitako Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuak ezartzen du lau urtean behin Nafarroako Gizarte Zerbitzuen plan estrategiko bat onetsi behar dela, arlo honetako politiketik zer bideri jarraitu behar dioten ezarri duena. Plan hori onesteko epea urtebetekoa da, foru legeak indarra hartzen duenetik hasita. Menpekotasunari buruzko Legeari egokitzeari dagokionez, begi-bistan dago egin beharreko zerbaite dela, Estatuak Menpekotasunari buruzko Legea emate aldera aipatutako titulua zein den ikusirik (Espainiako Konstituzioko 149.1.1 artikulua), zeinean esaten baita Estatuak oinarritzko baldintzak arautuko dituela, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzeko nazioko lurraldeko edozein tokitan. Baina, horregatik, kontuan eduki beharko da ezen soilik oina-

rrizko gisa ezartzen diren prestazioek baldintzatu ahalko dituztela politika horiek, baldin eta besteren eskumenetan eskua sartzeko arriskua saihestu nahi bada.

b) Behin-behineko txosteneko 18. orrialdean, IV.7.28. puntuan, jasotako gomendia, eskatzen duena azterketa bat egin dadila ikusteko ea gaur egungo lan-araudien aniztasunak eragin aipagarriarik duen ematen den laguntzan eta laguntza-ematearen kalitatean.

Gomendio hori ere onartzen da, eta halaber adierazi nahi da Nafarroako Gobernuaren kezka hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuan ere jasota geratu dela; izan ere, proiektu horrek aurreikusten du, alde batetik, enplegu kalitatea kontuan hartuko dela gizarte-zerbitzuen homologaziorako aintzat hartu beharreko zerbitzuetarekin kalitatearen adierazle gisa, eta bestetik, enplegu kalitaterako batzorde bat sortzea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren baitan (Departamentuaren aholkularitza-organo nagusia da), arlo honetan neurriak aztertu eta proposatzeko.

c) 22. orrialdeko IV.9.37 puntuan jasotako gomendia, zeinaren bidez adierazten baita oinarritzko irizpideak ezarri behar direla, etorkizuneko planifikazio estrategikoaren barrenean, zentroekin itunak egiteko eta hirugarren adineko moduluauren zenbatekoa zehazteko.

Hala da, bai: gomendia onartu beharra dago, horixe baita, hain zuzen ere, plan estrategikoak landu beharko dituen puntuetako bat, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuaren arabera. Proiektuari emandako testuak ez zuen itunei buruzko aipamenik egiten, zeren eta kontratuen arloko araudi berriak (ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak) desagerrarazi egiten baitu itunaren figura; dena den, jasota dago proiektuko 21 eta 23. artikuluen testuetan.

c) 30. orrialdeko IV.10.48 puntuan jasotako gomendia, zeinaren bidez adierazten baita oinarritzko irizpideak ezarri behar direla, etorkizuneko planifikazio estrategikoaren barrenean, zentroekin hitzarmenak egiteko eta ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentroetan moduluauren zenbatekoa zehazteko.

Gomendio horri buruz aurreko kasuko gauza bera esan behar da; hala ere, gehitu behar dugu ezen, itun hauen kasuan, modulu homogeen bat zehaztea kontu hagitik konplexua dela; izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko biztanle-kopuru ez oso handiaren ondorioz, ezarritako zentroak ezgaitasun-mota jakin batean espezializatzen dira, ezgaitasun hori jasaten duten biztanle guztiak

artatzeko joerarekin; horrek moduluari eragiten dio, haietako bakoitzerako programa eta tratamendu bereziak beharrezkoak gertatzen direnez gero.

e) 41. orrialdeko IV.13.63 puntuan jasotako gomendioa, prozedura bat taxutu dadin, horrela bermatzeko funts publiko horiek (etxez etxeko laguntzarako prestazio ekonomikoak) behar bezala aplikatzen zaizkiola haiek ematean ezarri zitzaizaien xede zehatzari.

Gomendio hau ere egokitzat jotzen dugu, eta adierazi beharreko gauza bakarra da departamentua jadanik laguntza horien berrikuspenean burubelarri ari dela, etorkizunean onetsiko den Menpekotasunari buruzko Legearen arabera izanen den eredu bat lortze aldera.

f) 42. orrialdeko IV.13.66 puntuan jasotako gomendioa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak buka dezan udaletako laguntza zerbitzua emateko eredu berri baten definizioa, laguntza horiek emateko irizpideak aztertuz eta udal zerbitzuak finantzatzeko plan berri bat garatuz, eta zuzeneko laguntzen eta laguntza ekonomikoen artean antzemandako desorekaren egokitasuna aztertzeke.

Aurreko gomendioaren kasuan bezalaxe, eta abiapuntu gisa harturik Nafarroako Foru Komunitatean gehien sustatu beharreko zerbitzuetako bat dela menpeko pertsonen beren etxean bizitzen segitu ahal izateko laguntza, berriro ere aipatzea da departamentua lanean ari dela etxez etxeko laguntzako sistema orokor berri bat ezartzeko asmoz, zeina neurri handian Menpekotasunari buruzko Legearen eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen edukiaren baitan egonen baita. Sistema horrek uztartu behar ditu zerbitzu-ematea, zerbitzu bati loturiko prestazio ekonomikoak eta zaintzaile-lanetan diharduten familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak. Toki entitateen finantzaketari dagokionez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuak jadanik ezartzen du oinarrizko gizarte zerbitzuetarako finantzaketa-sistema bat, hitzarmenetan oinarritua eta Toki Araubideko Foru Batzordeak jadanik onartua. Sistema horrek aipatzen du oinarrizko gizarte zerbitzu horiek eman beharreko programen kostua; horrela, kostuaren % 50 edo % 100 finantzatu behar da, programen barrenean sarturikoak izanik menpekotasunari buruzko estatuko legediak bermaturiko prestazioen kasuan.

g) Orrialde eta puntu berean, halaber, gomendio bat egiten da, Gizarte zerbitzuei buruzko etorkizuneko foru legeak gutxieneko eskubide berak berma ditzan herritar guztientzat, non bizi diren alde batera utzita.

Gomendio horren isla agertzen da Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuan, horixe baita, hain zuzen, Parlamentura igorritako testuak erdie-tsi nahi dituen helburu nagusietako bat. Horrelaxe jasotzen du proiektuko 34. artikuluko b) letrak, zeinak ezartzen baitu, Nafarroako Gobernuako eskumenean artean, behar diren neurriak hartzea Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osorako homogeneoak izanen diren gutxieneko prestazioak bermatzeko. Neurri horiek gauzatzen dira gizarte zerbitzuen zorro orokor baten sorkuntzan, non jasoko baitira herritar guztiei eskainiko zaizkien gutxieneko prestazioak, bai eta haiek eskuratzeko gutxieneko baldintzak, koordainketa eta abar. Halaber, gauzatzen dira Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzu guztietarako baimentze- eta homologazio-baldintzen ezarpenean, oinarrizko laguntzako lau programa funtsezkoak Foru Komunitateko lurralde osora hedatzean eta plangintzarako erantzukizunean.

h) Azkenik, behin-behineko txosteneko 44 eta 45. orrialdeetan jasotzen diren ondorioei dagokionez, errepikatu beharrekoa da 5 eta 6. ondorioetarako, plangintzari buruzkoetarako, jadanik gorago adierazitakoa.

Zazpigarren ondorioari dagokionez, besterik gabe, berriro baieztatu behar da, behin-behineko txostenean jadanik adierazten den bezala, ezen aipatzen diren alderdi guztiak araututa daudela Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuan.

Berdin gertatzen da 9. ondorioari dagokionez. Izan ere, ikuskapen-jarduera sendotzea eta prestazioen kalitatearen gutxieneko maila bat bermatzea jasota daude, halaber, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuan.

Amaitzeko, 10. ondorioari ere, zeina bat baitator eginiko gomendioetako batekin, helduko zaio, jadanik esan bezala, enpleguan kalitate-irizpideak txertatzeko foru lege proiektuan ezarritako neurrien bitartez.

Iruñean, 2006ko irailaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: M.<sup>a</sup> Isabel García Malo

#### **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA.**

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak aurkeztutako alegazioei kontuen ganbarak emandako erantzuna

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak aurkezturiko alegazioak jaso ondoren, ganbera honek adierazten du departamentuaren kudeaketan hobetu daitezkeen alderdiei buruzkoak direla,

hain zuzen ere fiskalizazio lanean nabarmendutakoak, eta, funtsean, gizarte zerbitzuei buruzko foru lege proiektuan jasota daudela.

Horrenbestez, alegazio horiek ez dute behin-behineko txostenaren edukia aldatzen, baizik eta

berresten; hori dela eta, behin betiko txostentzat joda.

Iruñean, 2006ko urriaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

---



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	